

ASTE SANTUA

Hurrengo aldizkariak:

GOIENA: apirilaren 21ean.

'Puntua': apirilaren 21ean.

→ Gaur ez dago 'Puntua'-rik.

Ondo
ibili!

'SARETZEN': ETORKINAK DEBAGOIENEAN



ARGAZKIAK: H. LARREA, I. SORIANO, M. ZUMALDE, M. ARREGI

Immigrazioaren aurpegiak

Hamar pertsonatik bat etorkina da Debagoienean; jatorri askotariko sei debagoiendarren erbak jaso ditu GOIENAK / 4



Arlabango errepidearen egoera. IMANOL SORIANO

Arlaban mendateko zorua birgaitu egingo dute

GI-627 errepideko bost puntutan egingo dituzte lanak; guztira, bi kilometro zoru konponduko dute eta 1,3 milioiko aurrekontua izango dute horretarako. Aldundiaren esanetan, Arlaban beharrezkoa da Eskoriatzako eta Gatzagako baserri asko lotzeko

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Arlabango GI-627 errepidea hobetzeko lanak egingo dituzte datozen hilabeteetan; Foru Aldundiaren asmoa da maiatzean lizitatzea obra horiek eta urte amaierarako lanak amaituta egotea.

Bide Azpiegituretako diputatu Aintzane Oiarbidek azaldu du GI-627 errepideko bost puntutan bi kilometro zoru birgaituko dutela. Lan horiek egiteko 1,3 milioiko aurrekontua izango du Aldundiak.

Orain arte egindakoak

Bideko zoruak birgaitu aurretik beste hainbat lan egin dituzte Arlabango mendatean; besteak beste, errepideko hainbat puntutako lerradurak egonkortu egin dituzte. Hain zuzen, errepideko hiru puntutan konpondu eta egonkortu dituzte lerradurak. Horretarako, puntu bakoitzari egokitutako euste-pantaila batzuk instalatu dituzte, mikropilotaz osatuak.

Oiarbidek nabarmendu du esku-hartzeak gune oso konplexuetan egin direla eta garrantzi handikoak direla, errepidearen segurtasuna bermatzen dutelako.

Errepidearen garrantzia

"Errepide hori beharrezkoa da Gatzagako eta Eskoriatzako baserri asko lotzeko, baita jatetxe eta landa-etxeetarako ere", dio Oiarbidek. Eta txirrindularitza-zaleak ere gehitu ditu: "Arlaban mendatea kuttuna da txirrindularitza-zaleendako". Bigarren mailako errepide-sareak ere arreta eta mantentze-lanak behar dituela nabarmendu du Oiarbidek: "Funtsezkoa da lurraldearen kohesiorako".

ALDUNDIAREN ASMOA DA MAIATZEAN LIZITATZEA LANAK ETA URTEAREKIN BATERA AMAITZEA

Hiru lerradura konponduta

Konpondu dituzten errepideko lerradura-zatiak hauek izan dira: "Konpondu den lehenengo lerradura 55 metroko oinplanoko horma bat da, eta deformazioak sortu ziren puntu batean egin da lan". Bigarren lerradurak 55 metroko luzera zuen beste errepide zati bati eragin zion. Zoladuran eta errepidearen zabal-gune osoan ezegonkortasun eta deformazio-zantzuak antzeman dituztenez, egonkortu egin dute zati hori ere. Hirugarren eta azken lerradura 110 metroko luzera duen errepide zati batean dago. Ezegonkortasunaren deformazio-zantzuak antzeman zituzten zati hartan ere. Hiru lerradura horietan, kasu bakoitzari egokitutako mikropilotaz osatutako pantailak jarri ditu Aldundiak.

Oiarbidek prentsa-ohar bidez nabarmendu du orain arte bezala 15 tonatik gorako ibilgailuek debekatuta dutela GI-627 errepidean zirkulatzeko.

LABek lortu du ordezkari gehien hezkuntzako hauteskundeetan

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko hezkuntza publikoan 108 ordezkari izango ditu sindikatuak; Steilasek, 91

A.E.G. ARRASATE

EAEko eskola publikoko langileek hauteskunde sindikalak izan zituzten martxoaren 30ean, eguena; bada, bai EAEn eta baita Debagoiengan ere LAB sindikatuak lortu ditu ordezkari gehien. LABek emandako datuen arabera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza publikoan 108 ordezkari lortu ditu LABek, 2019an baino ordezkari bat gehiago; Steilasek 91 ordezkari lortu ditu, 2019an lortutako 93en aurrean; eta ELAk 68 ordezkari izango ditu, 2019an baino 8 gehia-

go. CCOOk 27 ordezkari izango ditu; UGTk, 23; CGTk, 2; USOk, 2; eta Interinok, 12.

Bailarako balorazioa ere egin du LAB sindikatuak, eta dio "pozez eta arduraz" jaso duela langileen esana. Hain justu, haur eskolak, sukalde eta garbiketako langileak, irakasleak, heziketa bereziko langileak eta EHU dira hauteskunde horietan parte hartzen duten kolektiboak. Horren arabera, sindikatu horrek 125 boto jaso zituen, Steilasek lau gehiago eta ELAk, 61; bozketak eskualdeka egiten dira.



OIHANA ELORZA

Matrikulazioen harira protestak

Hezkuntza Sailak 2023-2024ko matrikulazio prozesuan aldaketak egin ditu: diru publikoa jasotzen duten ikastetxe guztiek plaza-kopuru jakin bat gorde beharko dute ume zaugarrientzat. Hori horrela, hainbat familia eurek aukeratu duten ikastetxean plaza barik gertu dira. Kaltetutako guraso taldeak deituta elkarretaratzeak egin zituzten Oñatin eta Arrasaten.

Aberri Egun bateratua ospatzeko dei egin dute zapaturako

Euskal Herria Batera herri plataformak Aberri Egun bateratua ospatzeko dei egin du: Donostiako Miramar jauregian egingo dute ekitaldia, apirilaren 8an. Horrez gain, herritarrei eskatu diete balkoietan ikurrinak eta nafar banderak jartzeko. Alderdiei dagokienez, EAJk Bilbon ospatuko du Aberri Eguna, domekan; eta EH Bilduk, Iruñean.

Ernaik autobusak jarri ditu Elorrioko Gazte Topagunerako

Ernaik antolatzen duen Gazte Topagunea Elorrioren izango da apirilaren 6tik 9ra bitartean, Gazte Antolakundearen 10. urteurrenean. Bailaratik autobusak jarriko dituzte, biharko: 09:30ean Oñatitik irtengo da; 09:50ean, Eskoriatzatik; 10:00etan, Aretxabaletatik; 10:10ean, Arrasatetik. Beste autobus bat 10:00etan irtengo da, Bergaratik.

Turismo-eskaintza zabala egunotan bailaran

Jaiegunotan izango da zer gozatu Debagoieneko herrietan. Kanpotik heldutako turistendako ez ezik, bertakoendako ere interesgarriak izan daitezkeen proposamenak daude antolatuta: bisita gidatuak, natura irteerak, familiendako ekintzak...

Larraitz Zeberio Lekuona

DEBAGOIENA

Jaiegun dezente datoz jarraian, eta, batzuen aukera kanpora joatea izango bada ere, beste askok etxe bueltan emango dituzte egunok. Bada zer gozatu Debagoiengan. Mankomunitateko Turismo Saitetik zein bailarako udal zerbitzuetatik hainbat proposamen egin dituzte bertako herritarrendako zein kanpotik etorriko diren bisitariendako.

Turismo eskaintzari dagokionez erreferentzia dira bailaran Oñatiko zein Arantzazuko turismo bulegoak, Arantzazuko Santutegia, Arantzazuko Parketxea, Arrikruz kobak, Bergarako Laboratorium museoa, Leintz Gatzagako Gatz Museoa, Turismo Bulegoa eta Dorletako Santutegia, Arrasateko hiribildua eta Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa Elgetan. Zerrenda horretan ez dira ahaztu behar egunotarako eskaintza berezia egin duten Gomiztegi Artzain Eskola, Pottokaleku eta Oñatiko Txokolateixia.

'Bizi Debagoiena'

Bizi Debagoiena lelopean egin du egunotarako turismo eskaintza Debagoieneko Mankomunitateak. Komeni da jakitea, dena den, aukeratutako ekintza edozein izanda ere garrantzitsua dela alde aurretik izena ematea; izan ere, ekintzak taldeak osatutakoan bakarrik egingo dira.

Bisita zein hizkuntzatan izango den eta zein adinekoendako den galdetzea ere komeni da – euskaraz, gazteleraz edo elebitan-. Halakoetarako, infoturismo@debagoiena.eus helbidera idatzi daiteke edo dagokion turismo bulegora deitu daiteke. Arrasaten BAZ bulegotik kudeatzen dituzte izen-emateak eta Bergaran, Laboratorium museotik. Unean uneko informazioa eskatzea komeni da.

Iragana eta gune historikoak

Arantzazuko Santutegia, Sancti Spiritus unibertsitatea, Oñati monumentala eta Erdi Aroko San Migel errota ezagutzeko aukera izango da egunotan Oñatin. Bisitak Turismo Bulegotik kudeatuko dituzte. Bergaran ere hirigune monumentala, lorategi historikoak eta Laboratorium museoa gidarekin deskubritzeko aukera izango da. Kontaktua da laboratorium@bergara.eus.

Leintz Gatzagan ere ia egunero izango da zabalik Turismo Bulegoa –hilaren 11n eta 12an, itxita-, eta bisita gidatuak egingo dituzte Gatz Museoa. Erreserbak egiteko: info@gatzmuseoa.com.

Arrasaten ere hiribildua gidarekin bisitatzeko aukera emango dute. Interesatuak izenemateak@arrasate.eus helbidera idatzi behar dute.

Elgetan 1936ko gerrarekin lotutako Intxortako ibilbidea ezagutzeko hainbat aukera izango dira. Eskaerak infoturismo@debagoiena.eus helbidera biderratu behar dira.

Naturaz gozatzeko ekintzak

Arantzazuko Parketxea eta Arrikruz kobak zabalik izango dira egunotan. Arrikruzten, gainera, helduendako espeleologia irteera iragarri dute apirilaren 10erako. Mendi irteera gidatua egin nahi



Bisita gidatua Oñatin. GOIENA

dutenek, berriz, aukera dute Arrasaten: hilaren 9an 09:00etan irtengo dira, plazatik. Bakue-Kortaburu-Etzezarreta izango da ibilbidea. BAZ bulegoan eman behar dute izena interesatuak.

Umeekin disfrutatzeak

Familia giroan egiteko ekintzak hiru dira: lehenengoa *Espeleotxiki* ekintza da, Arrikruz koban apirilaren 6an eta 8an, 6

urtetik gorakoendako. Arantzazuko Santutegian familia giroan egiteko bisita gidatua antolatu dute hilaren 8rako; eta hango Parketxean, berriz, orientazio jolasa antolatu dute hilaren 16rako. Gomiztegi Artzain Eskolan –info@gomiztegi.eus–, Pottokalekun –jelorzarza@hotmail.com– eta Txokolateixian ere hainbat bisita egin daitezke, erreserbarekin.

Askotariko bisita gidatuak eta irteerak

APIRILAK 5, EGUJAZTENA

- **Leintz Gatzagan**, 12:00etan eta 13:00etan, bisita gidatua Gatz Museoa.
- **Oñatin**, 17:00etan, *Txokolatearen bidaia* Txokolateixian.

APIRILAK 6, EGUENA

- **Oñatin**, 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan, *Txokolatearen bidaia* Txokolateixian.
- **Elgetan**, 10:30ean, bisita gidatua Intxortako ibilbidean.
- **Oñatin**, 10:30ean eta 15:30ean, *Espeleotxiki* Arrikruz koban.
- **Arrasaten**, 11:00etan, *Hiribildu bizia* bisita gidatua.
- **Leintz Gatzagan**, 12:00etan eta 13:00etan, bisita gidatua Gatz Museoa.
- **Oñatin**, 13:00etan, *Oñati monumentala* bisita gidatua.

APIRILAK 7, EGUBAKOITZA

- **Oñatin**, 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan, *Txokolatearen bidaia* Txokolateixian.

- **Elgetan**, 10:30ean, bisita gidatua Intxortako ibilbidean.
- **Arrasaten**, 11:00etan, *Hiribildu bizia* bisita gidatua.
- **Leintz Gatzagan**, 12:00etan eta 13:00etan, bisita gidatua Gatz Museoa.
- **Oñatin**, 13:00etan, bisita gidatua Sancti Spiritus unibertsitatean.

APIRILAK 8, ZAPATUA

- **Oñatin**, 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan, *Txokolatearen bidaia* Txokolateixian.
- **Oñatin**, 10:30ean eta 15:30ean, *Espeleotxiki* Arrikruz koban.
- **Arrasaten**, 11:00etan, *Hiribildu bizia* bisita gidatua.
- **Oñatin**, 11:30ean, familiendako bisita gidatua santutegian.
- **Leintz Gatzagan**, 12:00etan eta 13:00etan, bisita gidatua Gatz Museoa.
- **Oñatin**, 13:00etan, *Oñati monumentala* bisita gidatua.

APIRILAK 9, DOMEKA

- **Arrasaten**, 09:00etan, mendi irteera plazatik abiatuta.
- **Oñatin**, 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan, *Txokolatearen bidaia* Txokolateixian.
- **Elgetan**, 10:30ean, bisita gidatua Intxortako ibilbidean.
- **Leintz Gatzagan**, 12:00etan eta 13:00etan, bisita gidatua Gatz Museoa.
- **Oñatin**, 13:00etan, *Oñati monumentala* bisita gidatua.

APIRILAK 10, ASTELEHENA

- **Oñatin**, 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan, *Txokolatearen bidaia* Txokolateixian.
- **Oñatin**, 10:30ean, *Espeleoarrikruz* –nagusierendako– Arrikruz koban.
- **Leintz Gatzagan**, 12:00etan eta 13:00etan, bisita gidatua Gatz Museoa.
- **Oñatin**, 13:00etan, *Oñati monumentala* bisita gidatua.

APIRILAK 11, MARTITZENA

- **Oñatin**, 13:00etan, *Oñati monumentala* bisita gidatua.

APIRILAK 13, EGUENA

- **Leintz Gatzagan**, 12:00etan eta 13:00etan, bisita gidatua Gatz Museoa.

APIRILAK 14, EGUBAKOITZA

- **Leintz Gatzagan**, 12:00etan eta 13:00etan, bisita gidatua Gatz Museoa.

APIRILAK 15, ZAPATUA

- **Arrasaten**, 11:00etan, *Hiribildu bizia* bisita gidatua.
- **Leintz Gatzagan**, 12:00etan eta 13:00etan, bisita gidatua Gatz Museoa.

APIRILAK 16, DOMEKA

- **Oñatin**, 11:00etan, orientazio jolasa familientzat Arantzazuko Parketxean.
- **Leintz Gatzagan**, 12:00etan eta 13:00etan, bisita gidatua Gatz Museoa.

Amaia Ramirez de Okariz**Kortabarria DEBAGOIENA**

63.648 herritar bizi ziren bailaran 2002an, eta haietatik jatorri ez-espainiarra –eta ezta hego euskal herritarra ere– zutenak 970 ziren, INE Espainiako Estadistika Institutuak emandako datuen arabera; biztanleriaren %1,52. Alabaina, egoera bestelakoa da egun: populazio orokorraren datuak ez du aldaketa handirik izan, baina bai, ordea, etorkinenak. 2021ean 63.847 herritar zeuden Debagoiengan, eta haietatik 6.259 ziren atzerritarak; auzokide guztien %9,8.

Hego Euskal Herriko immigrazioaren azterketa egin baitute EITBK eta Tokikom tokiko komunikabideen sareak –Goiena ere kide da–, datu kazetaritza jorratuta Saretzen proiektuan, eta hori da ondorioetako bat. 2002tik 2021era atzerrikotarrak jatorriak, hazkundera eta helmuga aztertu dituzte.

Bada, kontinenteetako egotari dagokionez, gehienbat, amerikarrak etorri dira bailarara. 2002an 456 ziren handik iritsitako pertsonak, eta 2021ean, 3.157. Halere, iparramerikarrak baino, latinoamerikarrak dira gehienago.

Amerikarren ondoren, batez ere, afrikarrak iritsi dira, historikoki joera errepikakorra izan ez den arren. 2021ean europarrak eta asiarrak baino gutxiago ziren afrikarrak, baina egoera aldatuz joan da: 2015erako, afrikarrak aurreko bi jatorrietakoak baino gehiago ziren, eta, orduetik, gorantz egin du kopuruak: 2021ean jatorri afrikarreko 1.494 herritar zeuden eskualdean.

Beste hiru jatorrietan dagokionez, Europatik heldu dira, eta, ostean, Asiatik. Are, badira ozeaniarrak eta aberriak ere; 2021ean, guztira, zazpi ziren.

Hego Euskal Herriko egoera


Hego Euskal Herriari dagokionez, 2002an 2.690.414 herritar zeuden, eta haietatik 112.147k ez zuten jatorri espainiarrik; zehazki, %4,17k. Aldiz, hogeitun urtera, ia 200.000 biztanle gehiago ziren Hegoaldean –2.872.291–, eta haietatik 365.705 kanpotik etorritakoak ziren; alegia, biztanleria osoaren %12,73.

Bada, jasotakoak gogoan izanda, Xabier Aierdi Soziologian doktoreak eta immigrazioan adituak ondorioztatu duenez,

Debagoieneko etorkinak kontinenteketa

ITURRIA: INE • EGILEA: GOIENA

■ EUROPA (ESPAINIA GABE) ■ AFRIKA ■ AMERIKA ■ ASIA ■ OZEANIA



Hamar herritarretik bat etorkina da bailaran

Hogeitun urtean gora egin du etorkinen kopuruak eskualdean. Askotariko errealitateek bultzatuta, baina, batez ere, politiko eta ekonomikoek, asko dira etorritakoak. GOIENAK jatorria, sexua eta lana aztertu ditu Saretzen egitasmoan, zeharkako gaiak azaleratuta

"errealitate berri baten aurrean" gaudela erakusten dute datuak, eta, gainera, "egiturazkoa" izango dela. "Norbaitek uste badu joan-etorriko pertsonak direla, ez da: datozenak bertan geldituko dira, hemen garatuko dute euren bizitza". Nabarmendu du "gizarte berri bat" sortuko dela, askotariko jatorrietako herritarrez osatua, eta, beraz, erronkak "nolabaiteko hiritartasun praktikoa" bultzatu behar duela. "Bizitzeko baliagarria den gizarte sortu behar dugu, denentzako aukera berberekin".

Etorriak eta geldituak

Lehen migrazioa "estrategikoa" dela azaldu du Aierdik: "Leku batean instalatzen da kanpotik datorrena; gauzak ondo baldin badoazkio, bertan geldituko da; egoera okertzen bada, aldatu egingo da". Immigrazio mugimenduetan, oro har, sareak

muntatzen dira, lehendabizi, eta jendea gehitzen dute. "Eurak dira migrazio kolektiboaren bizitza eta ibilbidea gidatzen dutenak; aurrez iritsitakoak instalatuta daude, jende gehiago deitzen dute eta datozenezat aukera berriak sortzen dituzte".

Kasu horretan, hogeitun urtean, batik bat, lau izan dira bailarara iritsitako etorkinen jatorriak: Maroko, Kolonbia, Pakistan eta Portugal.

Marokoarrei dagokionez, soziologoak azaldu du "aspaldiko migrazioa" dela. 74 marokoar zeuden bailaran 2002an, baina 2021ean 729 gehiago ziren: 803. Bergaran eta Arrasaten instalatu dira gehienak, baita Aretxabaletan ere. Hala ere, badaude Afrika iparraldetik iritsitako beste zenbait herritar ere.

INERen datuen arabera, Arrasaten, esaterako, 83 aljeriar zeuden 2021ean. Eta sahararren datuak ere eman ditu Udalak: 88 ziren iaz. Alabaina, errealtate berezia dute, eta horrek eragina du datuetan. INEk udaletatik eskuratzen ditu, baina ez dago sahararentzat kode propiorik, eta, bereziki, lau multzotan ager daitezke: Maroko, Aljeria, Mauritania eta Afrika-koste herrialde batzuk.

Latinoamerikatik, emakumeak


Marokoarren ondotik, kolonbiarrak daude, batik bat, bailaran: 746 dira, eta, marokoarren eran, Bergaran eta Arrasaten daude instalatuta: 403 eta 110, hurrenez hurren, 2021ean. 2002tik 2011ra artean goranzkoa izan zen jatorri hura duten auzokideen joera, baina eten bat egon zen 2015era arte, jaitsi egin baitzen herri haietan bizitzen zeuden kolonbiarren kopurua. Halere, pixkanaka, berriro hasi ziren bailarara heltzen.

Egoera horren berri ere eman du Aierdik: kontatu duenez, 2000ko hamarkadaren hasieran kolonbiarrak, perutarak eta ekuadortarrak iritsi ziren Hego Euskal Herrira. "Batik bat, kolonbiarrak gailendu ziren, eta hemen gelditu dira. Kolonbia hustean, boliviarrak iritsi ziren, Bolivia hustean, paraguaia-arrak...". Era horretan, "nolabaiteko fluxu migratzaile bat zabaldu" ohi da, batez ere, Hego Ameriketatik etorria, eta Erdialdeko Ameriketatik, ondoren.

Jatorri amerikarra dutenen gehienagoa, gainera, emakumea

Immigrazioaren bilakaera bailaran

ITURRIA: INE • EGILEA: GOIENA



da bailaran: 2021ean hamarretik sei ziren andreak eta lau gizonetzkoak. "Beti dago lurralde feminizatuago bat aurrekoaren testigua hartuko duena. Inposatu egiten dira gertakariak, eta, premia bat izanez gero zaintza arloan, bertako errekurtoekin asetzen izango litzateke denek nahiko luketena, baina ez da gertatuko, ez dagoelako bertako biztanlerik zaintzara modu masiboan dedikatuko dena, eta, gutxiago, egoera horiek ekonomikoki zailagoak izanda eta ez dagoenean sistemarik antolatuta".

Hala, soziologoak argi du: "Immigrazioak ekonomia materialean -monetarioa- eragina du. Migrazioak modu askotan, era isilean, ikusezinean eta oso material nabarmenean ekarpen ekonomiko handia egiten du". Baina ez hor soilik; baita ekonomia afektiboa deritzon ere, besteak beste, atzerriko emakumeek egin ohi dituzten zaintza-lanak gogoan izanda. "Gaur egun zaintza nola baloratzen dugu? Nork konpontzen du? Zenbat gatazka familiar saihestu dira immigrazioaren etorrerarekin?".

Asiatik eta Afrikatik, gizonak
Kolonbiar eta marokoar jatorriko bizilagunez gain, pakistandarrek ere mantendu egin dira hogei urtean. Aierdiren arabera, 2011n "pakistandar fluxu bat" iritsi zen Hego Euskal Herrira,

besteak beste, "politika zehatz batzuek" etorrera erraztea ahalbideratu zezaketelako, eta, hala, sareek beste herrikide batzuk deitu zituztelako. Ordea, bailaran lehenagokoa da pakistandarraren presentzia.

2002an 80 pakistandar zeuden Debagoianean: Bergaran, 49; Oñatin, 21; eta Antzuolan eta Arrasaten, bosna. Zortzi urtera, halaber, 2010erako, herri guztietan zegoen gutxienez pakistandar bat, Leintz Gatzagan izan ezik. Halere, baliteke 2011tik aurrerako etorrerak eragina

**BIZTANLERIAREN
%1,52 ZEN JATORRI
ATZERRITARREKOA
2001EAN; HOGEI
URTERA, ALDIZ, %9,8**

**LEHEN MIGRAZIOA
"ESTRATEGIKOA" DA:
EGOERA ONA BADA,
BERTAN GELDITUKO
DA; BESTELA, ALDATU**

**IMMIGRAZIOAK BADU
ERAGINA EKONOMIA
MATERIALEAN ETA
AFEKTIBOAN, "ERA
IKUSEZINEAN"**

izatea, 2014an jo baitzuen goia jatorri hura zuten herritarren kopuruak; orduko hartan, 586 zeuden. Ordutik, gorabeherak izan dira, eta, egun, 504 dira jatorri pakistandarrek.

Kolonbiarren -edo, oro har, latinoamerikarren- kasuan ez bezala, ordea, iritsitako pakistandar gehienak gizonak dira; hala da Asiatik datozen auzokide gehien artean, afrikarrekin batera, azken urteetan gero eta emakume gehiago heldu diren arren. "Ekonomiari dagokionez, pakistandarrak, adibidez, frutategietan, janari-dendetan... aritzen dira, eta, diskriminazio batzuk egongo diren arren, biztanleen artean nahiko ondo jasoak dira". Alabaina, azpimarratu du jatorriaren arabera gizartearen ikuskera ere alda daitekeela. "Txinatarren kasuan pakistandarren gaineko gauza bera esango al genuke?".

Gainera, gehitu du inguruaren ez-kontrola ere traba izan daitekeela ekintzaitzarako; adibidez, hizkuntza. "Andreen kasua izan daiteke gehiago".

Europatik, portugaldarrak
Europatik, batik bat, portugaldarrak etorri dira bailarara. 2002an gehiengoa osatzen zuten atzeritik etorritakoen artean: 392 portugaldar zeuden orduan; 2008an, goia jo zuen, 610ekin; eta, ordutik, beherantz egin du. Halere, Aierdik adierazi du etorkizunera begira ez dela "oso nabarmena" izango, hemengo bizi-maila eta Portugalgoa "oso antzekoak" direlako. Are gehiago, errumaniarrak ere badira, baina, Hego Euskal Herriko datuarekin alderatuta, kopurua ez da horren nabarmena.

Soziologoak ez du bailarako europarren irakurketarik egin, baina, portugaldarrak adibidez, aipatu du baso eta mendi lanak egitera etorri zirela, eta eraikuntzara; batzuetan, Bolkestein araudia aplikatuta. Europar Batasunak du: helmugako enpresa batek ABEE aldi baterako enpresa elkarte bat egin dezake atzerrikoarekin. "Hura arduratzen da hemengo lanekin: ordain dezake jatorrizko baldintzetan, ez lan egiten duen herraldetokotan". Horrek "esklabismo forma berria" dakar, eta beste egoera baten isla da: "Ez immigrazioaren ikuspegitik; baizik eta erresilientziako migrazioarenetik".

"Helburutzat izan behar da berdintasuna lortzea"

XABIER AIERDI SOZIOLOGIAN DOKTOREA

Immigrazio mugimenduak gogoan izanda, "mundu berri bat sortzeaz" dela dio Xabier Aierdi Soziologian doktoreak eta immigrazioan adituak, eta, gainera, "egiturazkoa" izango dela: datozenak bertan geldituko dira. Hala, nabarmendu du "gizarte berri bat" sortuko dela, eta etorkizuneko ezaugarrietako bat izango dela: "Hiritartasun praktikoa" bultzatu beharrez jardun du. **Egungo testuinguruaren berri eman duzu; zerk behar du izan oinarri?**

Nahastuta egotea da gizarte bezala izan behar dugun asmoa. Multikulturalitateak, esate baterako, esaten diguna da jende multzoak daudela, baina ez dela euren artean kontakturik eskatu behar. Aldiz, interkulturalitate pasatzen garenean, oso inportantea da ahal den eta kontakturik handiena bermatzea.

Zer behar da horretarako?

Hiru elementu aipatzen dira: helburutzat berdintasuna lortzea; desberdintasuna errespetatzea; eta interakzioa bultzatzea. Gure gizarteak izan beharko lukeen xedea elementu horiek nahastea izan beharko litzateke.



GEURIA

**"ESTATUEK, HARREMANEN
ARABERA, LURRALDE
ZEHATZ BATEKO JENDEA
LEHENESTEN DUTE"**

Alabaina, horretarako, urratsak egin behar dira; badira atzeritik etorritakoez sortutako elkarteak eta tokian tokikoak. Garrantzia al dute integrazioari dagokionez?

Elkarteek beti dituzte bi aurpegi. Eta kezkek ere bi aurpegi izaten dituzte. Gizarte oso arrotz batean, elkarte baten sorkuntza, batetik, inportantea da, pertsonari lagunduko

diotelako egokitzen eta gizarte horretan nolabaiteko bizitza lasaia edo babestuagoa bizitzen. Baina elkarte bada bereizkeria erortzeko, itxia izateko edo kontaktu gutxikoa gizarte hartzailearekin, ez du lagunduko ez adaptazioan, ez integrazioan. **Bailaran, adibidez, badira batzuk: Auzoko egitasmoa, Ndank-Ndank, Amerika eta Erei elkarteak...**

Lehenagoari eutsiz, elkarteak existitu behar dira; baina bai, oso inportantea da udalerrietatik, migrazio edo aniztasun zerbitzuetatik, horrelako taldeak sustatzea.

Batzuetan, ordea, prozesua nekeza izan daiteke...

Halakoetan erantzunak faktore ezberdin batzuk jarraituz izan daitezkeelako. Kontuan izan behar da, batetik, datorrenaren kultura zenbat hurbiltzen den edo zenbat urrutzen den gizarte hartzailearenetik, eta, distantzia handia bada, egon daiteke atzera-egiteko etniko bat edo: taldean gelditzea, zureekin. Baina hor gogoan izan behar dena da ea portaera komunitarioa edo defentsiboa den, zenbat duen bakoitzetik.


Horrez gainera, euri ezarritako trabak ere badira, immigrazio guztiak ez direlako berberak...

Bada lehenesten den migrazioa. Estatu guztiek dituzten harremanen eta historiaren arabera lehenetsiko dute lurralde zehatz bateko jendea. Espainiak, adibidez, harreman kultural, kolonial, erlijioso eta linguistikoengatik Latinoamerikara jo du. Eta horren arabera, traba gutxiago edo gehiago izango dira. Esaterako, marokoarrek 30-40 urte daramatzate hemen, eta euren nazionalitate portzentajea nikaraguarrena baino txikiagoa da, haiek 2010-2011 artean hasi ziren arren etortzen. Legea oso berezia da.

Jatorria kontinenteka eta sexuka

ITURRIA: INE • EGILEA: GOIENA

■ Gizonezkoak (%) ■ Emakumezkoak (%)



Migrazioak, migranteek eurek kontatuta



MIREN ARREGI

"Saharan ez dugu pertsona gisa garatzeko inolako aukerarik"

TUMANA SALEH SAHARRA

Egoera politikoak erabat baldintzatutako herritarra da sahararra. Tumana Saleh Aljeriako errefuxiatuen kanpamenduan jaioa da eta han eman zituen umezaroa eta gaztaroa. "Han ez dago pertsona eta gizarte bezala garatzeko aukerarik. Egunen baten independentzia lortzen badugu, izango dugu aukera han bizimodua egiteko, baina hori gertatzen ez den bitartean ezinezkoa da". 50 urte kanpin-denda baten bizitzen egoteak sortzen duen nekeaz bizi da sahararra kanpamenduetan, eta "gazteek alde egiten dute, ikasi gura duenak alde egin behar du, lan egin gura duenak alde egin behar du".

2013an iritsi zen Saleh Oñatira. Senarrarekin etorri

"ZUZENBIDEA IKASI NUEN ALJERREN, BAINA LEGE MUSULMANAK DIRA ETA HEMEN IKASKETAK EZ ZAIKIT BALIAGARRI"

zen eta lau seme-alaba dituzte. Saleh abokatua da, Zuzenbidea ikasi zuen Aljerren. "Lege musulmanak dira eta hemen ezin dut abokatu moduan lan egin; berriz ere ikasi beharko nuke". Une honetan ezinezko zaio. "Lau-seme alabaren ama izanda, ezingo nuke", dio. Gaur egun, senarra da etxetik kanpo lan egiten duena eta Saleh arduratzen da umeen zaintzaz eta etxeaz: "Adinekoak zaintzen ere ibili izan naiz, baina senitartekoen laguntzarik ez dut eta etxean gelditu behar izan dut umeekin".

Zailtasunak hazi

Senitartekoen laguntza barik, haren ikasketak baliatu ezinik, egunerokoa gogorra den oso jakitun da Saleh. "Lana, dirua, gastuak, hara eta hona presak... egunerokoak jan egiten gaitu. Gure janzkera ere oztopo zaigu hemen", erantsi du. "Alokairu baten bila edo lan bila ari garenean, zaildu egiten du; jendeari mesfidantza sortzen dio". Hala ere, gustura dago Oñatin: "Elkarbizitza dugu herritarrekin, eta harreman polita gure seme-alaben lagunengurusoekin. Uste dugu toki onean gaudela, gure helburua eurei etorkizun bat ematea baita".



IMANOL SORIANO

"Inor ezin da integratuta sentitu baztertzaillea den gizarte baten"

LUCIANA ALFARO PERUTARRA

Luciana Alfaro duela hamabost urte erabaki zuen Peru utzi eta Bergarara etortzea. "Hemengoa den bikotekidearekin bizi ahal izateko etorri nintzen hona, baina hasieratik topo egin nuen migrantearekiko kudeaketa arrazista eta kolonialarekin. Turismo-bisa lortzeko baldintza guztiak betetzen nituen arren, ukatu egin zidaten. Azkenean, hainbat saiakeraren ondoren, etxeko langile gisa lan egiteko kontratu baten bitartez eman zidaten bidaiatzeko baimena. Adibide horrekin oso garbi ikusten da kudeaketa arrazista dagoela oinarri-oinarrian".

Arrazismoaren kontra, feminismoa

Hona iritsi zenetik, haren borroka arrazakeriaren kontra eta borroka feministaren testuinguruan garatu du. Aktibista feminista da Alfaro, eta, Debagoienean Emakumeen Mundu Martxari esker kolektibo feministaren sare interesgarria eratu dela badio ere, uste du asko dagoela egiteko. "Pertsona migranteok aukera berak ditugu alokairu bat eskuratzeko? Aukera berak ditugu garbiketa eta zaintzara bideratuta ez dauden lanak eskuratzeko? Zein baldintzatan lan egiten dute zaintzan diharduten pertsona migranteek? Hezkuntza sistemak berdintzatzen ditu pertsona migranteen seme-alabak?", galdetzen du. Alfaro nabarmendu du hemen oso onartutako sistema arrazista dagoela oinarri-oinarrian: "Ondorioz, badakit ez ditudala hemen jaio den pertsona batek dituen eskubide berberak". Horregatik guztiagatik uste du inor ezin dela integratuta sentitu "baztertzaillea den gizarte batean, besteak desberdintzat jotzen dituen eta besteak entzuten ez dien gizarte batean. Hori horrela den bitartean, nahiago dut horrela jarraitu, integratu gabe".

"SISTEMA ARRAZISTA DAGO OINARRIAN ETA BADAKIT EZ DITUDALA HEMEN JAIO DEN BATEK DITUEN ESKUBIDE BERAK"



MIREN ARREGI

"Niretzat gakoa izan da umetan euskaraz ikasi izana"

ALADJI SARR SENEGALDARRA

Bost anai-arrebako familia bateko seme da Aladji Sarr. Senegalgo hiriburuan jaio zen, Dakarren, eta beti eza-gutu du aita hara eta hona joan-etorrian. "Euskal Herrian lan egiten zuen, itsasoan", dio. Aladji Sarrek 10-11 urte zituela, familiak Euskal Herrira egin zuen, Dakar utzita. Bizkaiko Etxebarrira joan ziren lehenik. "Ez dut aldaketa traumatiko moduan gogoratzen. Umea nintzen, eta umetan errazago onartzen dira aldaketak. Gogoan dut ezer ez ulertzearen frustrazioa, hori bai. Baina Etxebarri herri txikia da, berehala euskaraz ikasi genuen, lagunak ere azkar egin genituen, eta orduko oso oroi-tzapen politak ditut", nabarmendu du. Bospasei urtera

"NIK BETI ESATEN DUT SENEGALDARRA NAIZELA, BAITA BERGARAKO ARI. HEMEN HAZI NAIZ; HEMEN DUT ETORKIZUNA"

etorri zen familia Etxebarritik Bergarara. "Hura bai izan zela gogorra. Lagunak nituen, ingurura eginda sentitzen nintzen... Bigarren aldaketa hura oso gogoan dut, baina uste dut ordurako euskaraz jakiteak lagundu egin zidala. Niretzat gakoa izan da hizkuntzarena".

Hemen hangoa, eta han hemengoa

Senegaldarra da Aladji Sarr, baita Bergarakoa ere. "Nik beti esaten dut senegaldarra naizela, baina hemengoa ere sentitzen naiz. Hemen bizitza egina dut eta ez naiz hemendik mugituko, ni hemen hazi naiz". Bergararra izanagatik ere, etorkina izateak mesfidantza sortzen duela nabaritu du sarri Aladji Sarrek. "Lan bila ari zarenean eta beste egoera batzuetan ere bai. Aurrean duzun pertsonaren arabera ere bada, baina sentitu izan dut, zalantzarik ez". Legalki ere zailtasun handiak gauditu behar ditu etorkinak. "Jendeak urte asko ematen ditu paperak eskuratzeko, eta hori oztopo handia da bizimodu duina egiten hasi ahal izateko. Nik nabarmenduko nuke arlo horretan ere asko dagoela egiteko".

Jaioterria utzita bizimodu desberdin baten bila Debagoienara etorri diren sei pertsonaren esperientziak jasotzen dira orri hauetan. Minak, zalantzak, kezak eta frustrazioa ageri dira; baita borroka, erronkak, lorpenak, pozak eta gizatasuna ere



MIREN ARREGI

"Gizatasunak behar luke izan mundutar guztion erlijio"

ALI ARCHAOUI AMAZIG ETNIAKO MAROKOARRA

Amazig edo bereber etniakoa, Marokoko Atlas mendietan, Tinghir izeneko oasian jaioa da Eskoriatzan bizi den Ali Archaoi. Lur emankorreko zonaldea da haren sortetria, baina "pertsona eta profesional gisa garatzeko aukera gutxikoa". Horregatik utzi zituen jaioterria, familia eta lagunak, "bizitza hobeago baten bila abiatzeko", 2000. urtean. Alemanian, Frantzian, Portugalen eta Katalunian egon zen Euskal Herrira iritsi aurretik, eta igaro dituen herrialde guztietako hizkuntzetan aritzeko gai da. Euskaraz ere ikasten dihardu, pixkanaka.

Lana bai, baina ez aukera berekin

Duela zazpi urte iritsi zen Eskoriatzara eta hona etorri zenetik ez dio lan egiteari utzi. "Industrian garbiketean, ostalaritzan, okindegian... ez zait inoiz lanik falta izan", dio. Hala ere, aukera berdintasunik ez dagoela eta bazterkeria sentitu izan duela azaldu du: "Sentitu egiten den zerbait da; ez ditugu aukera berak, esaterako, lan baterako hautaketa prozesuan. Ezagutza eta kualifikazio maila bera dugun bi pertsona elkartzeko bagara, bertakoa hartuko dute kanpokoaren ordez. Gainera, aurkitzen ditugun lanak izaten dira aldi batekoak, gaizki ordainduak... Sistemak dago arazoa". Zailtasunak zailtasun, pertsona baikorra da Archaoi, eta gauzen alde ona ikusten du beti. Eskoriatzan herritarrekin beti ongi sentitu dela dio. "Niretzat garrantzitsua da herritarrekin harremanak izatea. Liburutegira joaten naiz, kiroldegira, kafetxo bat hartzera... eta jende askorekin egin dut harremana modu horretan. Oraingoz, hemen jarraituko dut.

"NIRETZAT GARRANTZITSUA DA HERRITARREKIN HARREMANAK IZATEA, ETA USTE DUT LORTU DUDALA"

Gizatasun handia sentitu dut hemen, eta horrek izan beharko luke guztion erlijio. Gizatasuna, guztiona den mundu honetan".



MIKEL ZUMALDE

"Ogibide bera izango ez duzula onartzea kolpe handia da"

ALEJANDRA RAMIREZ KOLONBIARRA

Alejandra Ramirez Lopez Medellin hirikoa da (Kolombia) eta duela urtebete utzi zituen herria, familia eta han zuen guztia Arrasatera etortzeko. Urtebetea pasatuta, migrazioa "oinak lurrean direla egiteko zerbait" dela dio, "errealitatea oso gogorra delako, eta ez baztuetan uste izaten dugun bezain polita". Ramirezek migrazio-doluz hitz egiten du: "Lehenengo hilabetean, senitarteko bat bisitatzen egongo banintz bezala sentitzen nintzen, benetan ohartu barik nire herria, lagunak, familia... denak atzean utziak nituela. Gerora egin dut dolua, migrazio-dolua existitzen baita". Zure herria utzi izanaren minari gehitu behar zaio herrialde berriarekiko talka kulturala; izan ere, Ramirezentzat latza izan da "horren desberdina den kultura batekin" topo egitea. "Batetik, euskarekin topo egin dudalako, baina, bereziki, pertsonen izateko moduagatik. Gu oso irekiak, alaiak eta karismatikoak gara, eta iruditzen zait hemen hotzagoak eta serioagoak zarete. Egokitzen dihardut".

"ZURE HERRIA UTZI IZANARI GEHITU BEHAR ZAIO HERRIALDE BERRIAREKIKO TALKA KULTURALA"

Lana, hilabete bukaerara iristeko

Halere, Ramirezendako aurrez aipaturikoa baino gogorragoa izan da haren ofizioa utzi beharra. Bera banaketako eta logistikako lan-teknikaria da, baina hemen beste sektore batzuetan dihardu. "Hori egoan sekulako kolpea izan da. Onartzea zure ogibidea ez dela bera izango eta ostalaritzan, umeak eta nagusiak zaintzen edo beste edozerran lan egin beharko dudala hilabetea pasatu ahal izateko". Hala ere, oraingoz, hemen jarraitzeko asmoa du, "migratzailearen erronka eta helburu nagusia egonkortasuna lortzea" baita, eta uste du "hori lortzeko toki egokia izan daitekeela Euskal Herria". Egonkortasun bila etorri da, eta bila jarraituko du.



HASIER LARREA

"Pertsona batentzat oso zaila da herrialdea uztea"

TAMEER HUSSAIN PAKISTANDARRA

11 urte daramatza Euskal Herrian Tameer Hussain pakistandarrek, Arrasaten. Lehenengo urteetan Bilbon lan egin zuen, eta joan-etorrian ibiltzen zen. Emaztea ere etorri zen duela urte gutxi, eta orain, bi seme-alabaren guraso dira. Ile-apaintzailea da ofizioz eta hemen ere horretan dihardu. "Familia-negozioa da gurea, ilea mozteko gustatzen zait, eta Pakistanen ere halaxe nintzen". Alde horretatik, zorteko sentitzen da Hussain, besteak beste, jendearekin harremanetan egotea gustuko baitu, eta ofizioak horixe ahalbidetzen dio. Gainera, urteekin, bezero mordoa dituela dio: "Arrasatekoak asko, eta Oñatitiek, Aretxabaleatik, Eskoriatzatik ere etortzen dira. Orain, gazteak geroz eta gehiago. Ile-mozte modernoak egitera asko eta asko etortzen dira".

Pakistanen egoera gogorra

Pakistandarrena da Arrasaten azken urteetan gehien hazi den komunitatea. Gehienek zerbitzuetan eta obran lan egiten dute. Eta ez da harritzen etorrera horiez guztiez; izan ere, dio, euren herrialdeko egoera oso gogorra dela. "Nork bere herria uztea oso gogorra da, lan handia egin beharra dago, etengabeko borroka da. Hizkuntza ulertzen ez duzun toki batera iristen zara, jendearendako kanpotarra zara, eta niri asko kostatu zitzaidan hemen harremanak sortzea. Poliki-poliki, lortu dut", dio. Hussain harro dago hartu zuen erabakiaz, uste baitu hemen "hobeto" bizi dela. "Nire bezero gazteei askotan esaten diet ez dutela kezatzeko arrazoirik. Pakistanen bizimodua oso gogorra da, han jendeak asko sufritzen du. Osasuna, hezkuntza, lana... ez dago ezer. Horregatik irteten gara handik; izan ere, oso zaila da pertsona batentzat herrialdea uztea".

"PAKISTANEN BIZIMODUA OSO GOGORRA DA, JENDEAK ASKO SUFRITZEN DU; OSASUNA, LANA... EZ DAGO EZER"



Josu Aztiria, Arrasaten, Goienaren egoitzan, oraingo astelehenean. ENEKO AZKARATE LASPIUR

"Adimen artifiziala gauza da hizkuntzak sortzeko"

JOSU AZTIRIA ORAI NLP TEKNOLOGIAK ENPRESAKO KOORDINATZAILEA

'Goiena.eus'-eko albisteetako testuak entzun egin ditzake erabiltzaileak, Orai enpresak garatutako teknologiarik esker. Koordinatzaileak eman ditu azalpenak

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

Elhuyar Fundazioak sortutako Orai NLP Teknologia enpresako koordinatzaileak, Josu Aztiriak (Zumarraga, 1978), adimen artifizialari buruz dihardu. Sortzen diren aukerez, mehatxuez, datorenaz... *Goiena.eus*-en erabiltzaileen eskura jarri den ahots-sintesiarekin lortutako proiektuaren gainean ere jardun du.

Adimen artifizialaren alorrean ari da lanean Orai, gaur egun gori-gori dagoen alorra, sortzen dituen aukerengatik.

Duela hiru bat urte izan zen ez-tanda bat, itzulpen automatikoan egin ziren hobekuntzengatik. Euskararen ere jauzi kualitatibo handia eman zen. Orain sortu diren sistemak, ordea, gauza dira zehaztasun handiarekin hizkuntzak sortzeko. Makinak gauza dira testuak laburtzeko, gai nagusiak ekartzeko, elkarrizketa bat eroateko. Hori guztia herri-tarregana heldu da.

Teknologiaren aurrerapen azkar horrek mesede egiten dio euskara bezalako hizkuntza txiki bati?

Horrelako tresnak masiboki ari gara erabiltzen. Eta gure hizkuntza hor ez badago... Guk geure baliabide teknologiko propioak izatea, garatzea, da inportantea. Bestela, mendekotasun handia sortzen zaigu. Horrek ez du esan nahi, esaterako, Chat GPT euskaraz egotea txarra denik edo Googlek bilaketa euskaraz egiteko aukera ematea txarra denik.

***Goiena.eus*-eko testuak ahots bidez eman ahal izateko, ze teknologia erabili duzue?**

Ikasketa sakona edo *deep learning* deitzen zaiona. Lehenbizi, adibideak sortzen dira corpus jakinetan, oso modu adierazgarrian. Hizlariak hainbat audio-ordu grabatzen ditu. Grabazio horiekin, corpus horiekin, entrenatzen da hainbat algoritmoren bidez. Arkitektura neuronalak sortzen da. Azkenean, ahots sintetiko natural bat lortzen da. ***Goiena.eus*-en kasuan, esaldi asko grabatu dituzte hiru kazetarik, ordu asko sartuz.**

Bai, hala da. Gaur egun, ordu-beteko grabaketekin gauza gara antzeko emaitzak lortzeko.

Aitzindaria da *Goiena.eus*, alde horretatik?

Bai, modu horretan eginda eta emaitza horiekin, lehen hedabidea da. Tokikom elkarteko beste hedabide batzuekin ere ari gara antzeko proiektuetan. **Emitzarekin gustura geratu zarete?**

Bai, oso gustura. Beste proiektu batzuetan aritu gara, baina Goienako ahotsak oso ondo geratu dira. Kalitate handiko emaitza da. Helburua zen kazetariaren ahotsak imitatzea eta albisteak entzuteko sentsazio atsegina lortzea, eta hori lortu da.

Azpitulua euskaraz sortzeko beste proiektu batean ere ari zarete. Zertan?

Goienarekin, Goineural izeneko proiektu baten. Goiena gaur egun gauza da edozein bideo azpitolatzeko. Baina hobeto dabil hizkera formal batean oinarrituta, albisteak irakurria denean. Euskalkiarekin ere ari gara lanean. Arrasateko euskararekin proba batzuk egin ditugu. Aditz-taulak badaude, araututa dago, liburuak daude...

Iraultza izan da Chat GPT. Baita zuendako ere?

Ustekabe atsegina izan da, bai. Emaitza harritzeko modukoa da. Horrek eskatzen digu birkopkapen bat. Ezagutzen ditugu erabiltzen dituzten teknikak eta arkitekturak, baina benetako disrupzioa izan da.

Adimen artifiziala ari da aldatzen hainbat lan. Zenbateraino?

Esaten da lan automatizatua ordezkatuko duela adimen ar-

"HELBURUA ZEN KAZETARIAREN AHOTSAK IMITATZEA, ETA HORI LORTU DUGU"

Euskara, puntaren puntan

Ordu asko sartu eta baliabideak jarri behar izan ditu proiektuan Goienak –hiru kazetari aritu dira ahotsa sartzen–. "Egokorrak gara, laguntza teknologiko ona izan dugu Lengoia Naturalaren Prozesamenduan aurrean dabilen Orai enpresarekin", dio Iban Arantzabalek, Goienako zuzendari nagusiak. Eta zera gehitu du: "Euskarazko ahots sintesiarekin, igeri egin dugu. Gurea moduko enpresa txikiak kokatzen gara teknologiaren puntan. Ez diruaren alde, ez agintekeria lortzeko, ez handikeriagatik. Puntan jartzen gara bizi dugulako gure hizkuntza, bizirik nahi dugulako euskara. Puntan egon nahi dugulako".

tifizialak. Baina lan intelektualean ere eragina izango du. Lan administratiboan, abokatuen hainbat lanetan... Sortuko dira beste lan batzuk, baina beste batzuk ordezkatu ere bai.

Kazetariaren lana zenbateraino ordezka dezake ahots automatiko batek?

Ondo egindako kazetaritza hor egongo da beti. Kazetariaren sena, testuingurua, gai berriak, ikerketa edo lanketa handiagoa eskatzen dutenak... Baina gauza mekaniko asko, hainbat albiste labor... beharbada, erraz egingo ditu makinak.

Albiste faltsuak, ustez pertsona ezagun batek egindako adierazpenak, ikusten ari gara adimen artifizialarekin. Horiek antzematea eta saihestea izango da erronka?

Bai. Arazoa dira. Detektatzea da erronka. Horretan ere bagabiltza.

"ADIMEN ARTIFIZIALAREN ERRONKA BADA ALBISTE FALTSUAK DETEKTATZEA"



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabari 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



ZABALIK

ANAJE NARBAIZA

Gasbidea natur eremuan?

Aralarrek baditu izendapen desberdinak, Gipuzkoan Kontserbazio bereziko Eremua eta Nafarroan Babes Bereziko Eremua. Baina hitzek ez dute baliorik, gure proiektuek sinesgarritasuna kentzen badiote eremuari. Izan ere, natur eremu horretan dauden basoak, piztiak, xomorroak, habitatak eta abar babestu beharrean kaltetzen baditugu, alferrik izen ponpoxoak jartzea. Egun, Lekunberrin Naturgy taldeko Nedgia enpresak gasbide bat eraiki nahi du Irurtzunera bertaraino. Horretarako, 8 metroko zabalera duen korridore bat zabaldu behar dute 15 kilometrotan zehar. Horietatik herena Etxeberri eta Lekunberri artean dagoen Babes Bereziko Eremutik pasatzen da, eta kontuan hartuta 6.000 zuhaitz baino gehiago bota behar direla, sekulako kalteak eragingo ditu hango faunan eta landareetan. Jakin gabe zenbateko eragina izango duen hango leizeetan, iturrietan eta bestelako monumentu

BURUMUINARI ERAGINDA AURRE EGIN AHALKO DIEGU ETORKIZUNEKO PROIEKTU BERRIEI

natur lurra behar ez ditugun bitartean Babes Bereziko Eremu aitortzearekin ahoa hitz politex betetzeko erabiltzen dugula, baina, itxuraz, poligono industrial batera eramateko behar ditugunean etorkizunari kasu handirik egin gabe... gasbidea pasatzen dugu. Itxurakeriarik ez, mesedez!

Dena den, orokorrean, bada egin beharreko beste hausnarketa bat ere. Ikusita mundu mailan 2030erako klimaren aldetik datozen erronkak, erregai fosilak alde batera lagatzeko eta energia iturri garbiak erabiltzeko, gasa al da dugun aukera bakarra Nedgia enpresak behar duen jardura martxan jartzeko? Noiz arte erabili ahalko da gas-iturria? Sinistuta nago gure gurasoen gutxiagorekin pozik bizi izan ziren moduan guk ere, ez daukagun gasa erabili beharrean bertan ditugun baliabideak erabilia, gure arbasoek egin bezala eta burmuinari eraginda aurre egin ahalko diegula etorkizuneko proiektu berriei ere.

megalitikoetan. Ulegaitza da zergatik tematu den enpresa gasbidea eremu hartatik pasatzen, Lekunberritik Irurtzunera, Plazaolako trenbidea bidea zabaldua dagoenean eta bide hori erabil daitekeenean naturan beste kalterik eragiteke. Badirudi

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Hartu txapela!

ION UNAMUNO

PELLOREN MARTXA ZIKLOTURISTAREN ANTOLATZAILEEN IZENEAN BERGARA

Zelako asteburua 25ekoa eta 26koa! Gorlako aldapak ziklistaz bete ziren. Igandean, Torredonjimeno David Delgado irabazi zuen, eta zapatuan denok irabazi genuen. Pello oroitzeko martxa antolatzea erabakita, bikaina izan behar zuela argi genuen. Familiaren onarpena jaso ostean, martxan jarri ginen.

Hainbat herritarrez osatutako bideo-kate bat sortu eta zabaldu genuen lau haizeetara, *Hartu txapela!* lelopean. Giroa berotzen joan zen, eta izen-ematea 235era

igo zen. Eguna iritsi zen, eta, eguraldia lagun, mozorrotutako zikloturistaz bete zen plaza. Pello bere saltsan ibiliko zen. Asko maite zuen jendeak, eta 25a horren isla izan zen, emozioz eta alaitasunez bete. Pello eta seme-alabak omentzeko tartetxo baten ostean, han abiatu ziren guztiak Gorlara. Goian, zerbait jan eta edaten zuten bitartean, aurpegi alaiak ikusten ziren. Topera igo ziren batzuk; hainbeste estutu gabe gehienak. Denentzat zegoen lekua, denek irabazi zuten. Sarien zozketa luze batekin bukatu zen, eta, momentuak laguntzen zuenez, askok eguna luzatzea erabaki zuten, lagun giroan.

Antolakuntzakoei eskerrak eman dizkiguzue, baina zapatua

egun borobila izan zedin lagundu diguzuen guztioi eman nahi dizkizuegu eskerrak. Asko zarete, eta, inor ez ahazteko, *Mila esker, Bergara!* batekin laburtuko ditugu esker onak.

Pellok eta bere garaikideek urteetan erakutsi digutenaren testigua hartu eta herriak herri izaten jarraitu behar du. Pello leku askotara ailegatzen zen, baina, leku gutxiagotara helduta ere, bakoitzak bere aletxo ipini eta Bergara bizirik dagoela erakutsi behar dugu, beraien erueda jarraituz.

Ez utzi bizikleta kamarotean denbora luzerako, hurrengo urtean Torredonjimeno David Delgado bezalako ziklistez gain mozorrotutako zikloturistak ere Gorlan ikusi nahi ditugu eta.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Gesalibarko alkateari

NEREA ZABARTE, ASIER ZABARTE, LORETO NAFARRATE, IOSU URIZAR, FERNANDO ZABARTE, MARIAN IÑURRITEGI, JAVIER GARCIA, MAIALEN GARCIA ETA JUAN JOSE ZABARTE
IBAI-ONDO ERAIKINEKO AUZOKIDEEN ERKIDEGOAREN IZENEAN
ARRASATE

Gure gaitzespena zure hastapeneko eginkizunen betetzeari.

Auzoko Juntaren bilkura opor garaian deitu zenuen, auzoa oporretan zela jakitun.

Oraingoan, ondorioak jasan beharko dituzten auzokideei jakinarazi gabe, aparkalekua kentzea eragin duzu, juntakide baten mesedetan, azpikeria nabarmenarekin.

Juntakide hori da ingurunean etengabea izan diren hainbat liskarren sorburu. Haren jabegora behar bezalako sarbiderik ez izatea baliatzen dihardu urteetan auzoan egonezina sorrarazteko.

Ibai-Ondo eraikinaren berrikuntzaz geroztik, eraikinaren legezko kotak errespetatu eraiki zen elbarritzako sarbideaz kezaka hasi zuen oldarkeria. Eskritoretan zehaztu eta Udaleko teknikariek berrikusitako kota horien barne, garai batean eraikinaren eskailerak eta lorategiak ziren.

Haren errieta setatsu eta zentzugabeak ildo horretatik aterabiderik ez zuela ikusita, auzokoan pazientzia hautsi eta auzotarren harremanak ezegonkortzen saiatu da urteetan. Elkarren arteko ulermena eta auzo-borondatea sustatu barik, liskarra bilatzen duenaren erara.

Auzoko bizilagunei zuzentzeko haren jarrera elitistak gogora dakarkigu XVIII. mendeko Jauntxoek herriari iruzur egin eta gainontzekoak zapaltzeko hautatutako Kazikeen gisako jarduna.

Haren jardueran zure laguntza lortu izanak harritu egin gaitu, alkate andrea, haren eskubide bereziak gainontzeko auzotarren eskubideen gaintik ezarriz diharduzulako, gure iritziz.

Gesalibarko auzoa zerbitzuz probesten izan den eraginkortasun eskasia guztiok pairatzen dugu auzoan, sarbide estuak bitarteko, eta ez dugu ez zilegi ez bideragarri ikusten, gu guztion etorkizuneko elkarbizitza arriskuan jarri nahi ez bada, pertsona bakarrari mesede egitea gainontzeko auzokideen eskubideen kaltetan.

Hau sinatzen dugun auzokideok aipatutako zure azken neurria ahalik eta azkarren bertan behera utz dezazun eskatzen dizugu, eta dei egiten dugu Gesalibar auzoko beharren azterketa objektibo eta zentzuzkoagoa egitera, alternatibak bilatzeko.

Debagoieneko eskola publikoak ozen adierazi du Hezkuntza Sistema propio baten alde eragiteko garaia dela

JOKIN ZUBIRIA LAGUNILLA
DEBAGOIENENKO LAB-HEZKUNTZAKO ORDEZKARIA
DEBAGOIENA

EAEko eskola publikoko langileok hauteskunde sindikaletan gure ordezkariak hautatzeko aukera izan genuen martxoaren 30ean. Haur eskoletako, eskoletako, Lanbide Heziketako, institutueta eta EHUKo langileak izan ginen bozkatzera deituak, eta, EAEn bezala, Debagoiengan ere LAB izan da ordezkari handiena lortu duen sindikatua.

Pozez eta arduraz jaso dugu langileen esana. Debagoieneko hezkuntzako langileek ozen aldarrikatu dugu Hezkuntza Sistema

birsortu behar dugula, edo, Bergaran esango luketen bezala, badela garaia loreontzia berreraikitzeke. Horretarako, ezinbestean begiratu behar dugu atzera, akatsetatik ikasi eta ondo eginetan berresteko.

LABetik berresten dugu hezkuntza ez dela lau hormaren artean mugatzen den ariketa isolatua. Hezkuntzak ere izan behar duela greban dauden Gaeseko langileekin burutzen den elkartasun ariketa, izan behar dela Arrasateko lorezainekin bizi-baldintza duinen aldeko aldarrikapena eta izan behar dela Osakidetzako murrizketen aurkako lubakia salatzen duena.

Arrasaten esango luketen bezala, boliak aurrera jarraitzen du. Gaur atzo baino indar handiagoz aldarrikatzen dugu Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistemak publikoa eta komunitarioa izan behar duela. Eta horrela behar du izan, besteak beste, jaiotze kopuruen jaitzieraren aurrean eskola publikoko gelak kolokan jarriko direlako; baina baita itunpeko ikastoletan eta eskola kristauetan ere.

Egoera horren aurrean bi aukera zabalduko zaizkigu Debagoiengan: Sareen arteko matrikula lehia edo sistema bakarrerantz eramango gaituen trantsizioa burutzea. LABen argi dugu: konfluentzia da bidea.

Ildo horretan, Jaurlaritzak EAEko Hezkuntza Legearen testua aurkeztuko du datozen asteetan. Aukera ezin hobea zabaltzen zaigu sare publiko bakar eta deszentralizatura garamatzen bidean aurrerapausoak emateko. LABen prest gaude sare bakoitzaren onena hartuta hezkuntza publikoa, euskalduna, laikoa, feminista, herri proiektuei lotua, langileen baldintzak

hobetuko dituen eta ikasleak eta familiak erdigunean kokatuko dituen eskola eredu berri baten alde borrokan jarraitzeko.

Eta gaur, atzo baino gehiago gara! Eskerrik asko, Debagoiena!

Jokin Bildarratz Hezkuntza kontseilari agurgarriari gutun irekia

IBAI MENDIARATX ETA RAMON LOPEZ
ARRASATE

"Eragin minimotzat" hartu duzun %6 horretako bi familia gara. Baina zenbaki horren atzean gure familiak daude, hezur-haragizko izakiak, eta orain bertan babesgabe eta indargabe sentitzen garenak.

Zure sailak gure seme-alaben hezkuntzari buruzko erabakia hartu du guri aukera hori kenduta.

Gure hezkuntza sistemak hainbat hezkuntza eredu errekonozitu eta babesten ditu. Eredu publikoa dago, erlijio zentroena edota ikastolena. Denek partekatzen dute oinarri komun bat, baina bakoitzak bere ñabardurak ditu, gure familientzat garrantzitsuak direnak: pedagogia eredu, antolaketa eredu, zerbitzuak, egutegiak, instalazioak eta abar. Eredu horien artean aukeratzeko eskubidea, askotan hezkuntza-zentroak bisitatu ostean edota ate ireki jardunaldien ostean egina, egon da indarrean orain arte gure hezkuntza sistemak.

Guk ere uste dugu segregazioa arazo bat dela, baina arazo konplexua da, eragiten diena gizarteko eremu guztiei, ludotekei, plazei, udal musika eskolari eta abarri. Eta, jakina, landu beharra dago baita hezkuntza arloan ere. Halere, uste dugu Hezkuntza Sailak hartutako neurriek ez dutela arazo hori konpontzen; are gehiago, planteaturiko

aldaketa apurrek inpaktu minimoa edukiko dute segregazioan. Eta aipaturiko neurri horiek gauzatzeko ukatu egiten zaigu absolutuki gurasooi gure seme-alaben eskolatzeari buruz erabakitzeke eskubidea.

Gure iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoa ez da "guztiantzako kafea" errezetatzeko bezain handia, tokian tokiko errealitateak kontuan hartzen dituen udal-azterketa alde batera uzten den bitartean.

Bestalde, ez zaigu egokia iruditzen zaugarritasuna neurtzeko modua; izan ere, inkesta hori betetzen duen pertsonaren fede onaren mende dago, batez ere, eta gure seme-alaben hezkuntza-ibilbide osoa baldintzatzen duten matrikulazio-unekeo datu zirkunstantzialen mende ere bai. Eskola-plazak irizpide gardenekin neurtu eta berresleitu beharko lirakeke, pikarokeriarako aukerarik ematen ez duten datu objektibo egiaztagarriekin.

Azkenik, aurkeztutako errekurtsoen aldeko ebazpena eskatzen dugu, gure seme-alaben hezkuntza gure betebeharra eta eskubidea dela pentsatzen baitugu, ez baikara zaintzaile hutsak. Era berean, uste dugu erreakzio sozialaren analisiak – familien erreklamazioak, elkarretaratzeak, hezkuntza-zentroen adierazpen publikoak eta abar– balio behar duela eskola-plazen esleipen prozesua birformulatzeko eta horrek balio dezala hezkuntza komunitate guztiaren adostasuna lortzeko. Zintzoki uste dugu helburuak, nahiz eta berau oso txalagarria izan, ez dituela bitarteko horiek justifikatzen.

Adeitasunez, N.-ren eta E.-ren familiak.

PD: atxikimenduetarako esteka: <https://chn9.it/VQsMN4H9Wg>



Kulturola izan da, Juan Arzamendi Musika Etxearekin eta Ekobulebar-arekin batera, proiektu nagusia. E.A.B.

Gobernuak 45 milioi euro inbertitu ditu zortzi urtean

Azken bi agintaldien balorazioa egin du Arrasateko Udal Gobernuak, tarte horretan herriak "benetako eraldaketa" izan duela azpimarratuta. Kulturola, Juan Arzamendi Musika Etxea eta 'Ekobulebar'-a aipatu dituzte zortzi urteotako proiektu nagusien artean

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Kulturolan bertan egin dute azken zortzi urteek emandakoaren balorazioa egiteko prentsa-agerraldia Udal Gobernuak osatzen duten bi alderdietako ordezkariak. Maria Ubarretxena alkateak adierazi duenez, EAJK eta PSE-EEk osatzen duen taldeak 45 milioi euro inbertitu ditu bi agintaldiotan. "Sartu ginenean, hiru milioi euroko zorra zeukan Udalak, eta zorra kitatu genuen, herrian inbertituz. Proiektu batzuk gehiago gustatuko zitzaizkien herritarrei eta beste batzuk, gutxiago, baina herrian inbertitu dugu eta hori inork ezin du ukatu". Halaber, bi alderdien arteko elkarlanari balioa eman dio: "Bi alderdi ezberdin izan arren, Arrasateko proiektuak izan ditugu lehentasun, eta, horri esker, talde gisa funtzionatu dugu, herriaren alde".

Askotariko proiektuak

Gobernuak hainbat arlotan lan egin duela esan du alkateak:

"Mugikortasunean, irisgarritasunean, trantsizio energetikoan, kulturen, arlo sozialean eta abar". Hala, zortzi urteotako proiektu nagusiak nabarmendu ditu: "Kulturola eta Juan Arzamendi Musika Etxea errealitate dira. Halaber, igogailu publikoetan ere lan handia egin dugu, sartu ginenean hiru bakarrik baitzeuden herrian eta orain, hamabi. Bestalde, bidegorri-sarea ere osatzen goaz: 2015ean 500 metro ziren eta orain, 3.500 metro baino gehiago. Horrez gain, ur-parkeak, jolas-parke estaliak, Araba etorbideko urbanizazioa, Atarte zentroa, Lan R Bai proiektua, Antoniñako hezegunea, Etxezarretako parkea, Ekiola, SHREC proiektua eta abar".

EGINDAKOAZ GAIN, KIROL AZPIEGITURA PLANA ERE GAUZATZE-FASEAN DAGOELA DIO UDAL GOBERNUAK

Era berean, azpimarratu du herritarrekin eta herritarrentzat egindako proiektuak izan direla horiek: "Gobernatzeko modu berri bat erakutsi dugu, inoiz baino prozesu parte-hartzaile gehiago izan dira zortzi urte hauetan eta herritarrek parte-hartze handia izan dute. Eskerrak eman nahi dizkiegu, erakutsi duten inplikazioagatik".

Sozialistek bi sail izan dituzte

Johanna Sanchez zinegotzi sozialistak zera adierazi du: "Bi sail garrantzitsuren ardura izan dugu: Berdintasuna eta Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak. Lehenean, indarkeria matxistari dagokionez, emakumeen kolektiboari ahalik eta laguntza handiena emateko egin dugu lan eta indarkeria horren aurkako borrokan inplikaturako kolektiboen prestakuntza landu dugu. Bigarrean, Kulturola eta Juan Arzamendi Musika Etxeaz gain, igogailuekin egin dugun lana azpimarragarria da".



TXOMIN MADINA

Ongietorri hunkigarria eraikinari

Erakunde publikoetako ordezkariak, Juan Arzamendi zenaren senideak, eraikinaren erabiltzaile izango diren kultura eragileetako kideak eta herritar ugari batu zituen Juan Arzamendi Musika Etxearen ongiatorri-ekitaldiak. Kalejiran iritsi ziren eraikinera eta aurrekua dantzatu zieten Juan Arzamendi zenaren familiakoei; tartean, Ines Ceciaga alargunari.



IMANOL SORIANO

"Legea betetzea" eskatu dute

Sarek deituta, Unai Paroti "lege arrunta" aplikatu diezaiotela eskatzeko manifestazio jendetsua egin zuten domekan. "Unai 33 urte daramatza kartzelan. Lege arrunta aplikatuta, zigorraren hiru laurdenak beteta, 2018an kalean egon beharko luke. Hori eskatzen dugu". Hain zuzen, kartzelan 33 urte bete zituen egunean bertan izan zen mobilizazioa.

Ur-hoditeriaren sare osoa berritu dute Garagartza auzoan

Arrasateko Udalak edateko ura banatzeko hoditeria-sarea berritu du Garagartzan. Lanak Durangoko Bermeosolo enpresak egin ditu, eta, funtsean, zuntz-zementuzko hodia aldatu dute, Fagor Etxetresnen lantegi zahararen aurrealdearen eta Kobateko harrobira sartzeko bidearen arteko zatian -800 metro inguru-. "Fibrozementuzko hodi bat or-

dezkatu da fundiziozko hodi batekin, eta aurreikusitako epean egin da, lau hilabetean", azaldu du Luis Mari Illarramendik, Mantentze Saileko teknikariburuak. Hasiera batean, obrek 368.844 euroko aurrekontua zuten, baina, azkenean, 308.000 eurotan egin ahal izan dituzte. Victoriano Fuentes zinegotziak nabarmendu du inbertsioa "garrantzitsua" dela, eta arrasatearren ongizatea eta osasun ona "bermatzeko" balioko duela gaineratu du.

Udalekuak, gaitasun eta balioak lantzeko tresna

Amaia Arregi eta Iñaki Telleria Txatxilipurdi Elkarteak 'Hemen Debagoiena' saioan izan dira, elkartearen udalekuak hizpide hartuta; haien esanetan, nerabeek eta haurrek "askotariko balioak" lantzen dituzte udaleku horietan, gozamina erdigunean jarrita

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Txatxilipurdi Elkarteak, duela zortzi bat urte abiatutako prozesuan, haren jardunaren eta misioaren muina landu zuen, honako ondorio honetara iritsiz, Telleriaren esanetan: "Arrasate, haur, nerabe eta gurasoendako aisialdi hezitzaile euskalduneari jarduten dugu eta bizitzarako behar dituzten balio eta gaitasunak garatzen eta transmititzen saiatzen gara; besteak beste, euskaltzaletasuna, feminismoa, parte-hartzea, autonomia, aniztasuna eta heziketa berdea. Hori guztia hezkuntza ez-formaletik eraikitzen dugu; betiere, gozamina erdigunean jarrita".

Arregik gaineratu du ikasturte osoan edaten dutela balio horietatik, baita udalekuean ere. "Bizi garen mundu globalizatu eta bizi-estilo azkar honen baitan, udalekuak badira erritmo lasaiagora jaitsi eta lan hezitzaile hori beste goxotasun batetik egiteko eszenatoki aproposa". Era berean, herri-kohesioari lekua egiteko gune egokia ere badirela dio, eta deskonektiorako ere balio dutela; betiere, gozamina ardatz hartuta: "Gure erreminta magiko eta funtsezkoena jolasa bera da, eta gozamenetik egiten dugu balio horien lanketa ere".

Balioen lanketa udalekuean

Euskaltzaletasunaren kasuan, Arregiren arabera, gune informal horiek oso baliagarriak izan daitezke haurrek eta nerabeek hezitzaile erreferente euskaldunaren irudia barnertzeko eta haiek ere ikus dezaten gozamenetik ere euskaraz jardun daitekeela. "Euskalduntze-prozesu horretan eragile aktibo gara, euskara hizkuntza gutxitu bat dela ulertuta eta bizi dugun hizkuntza-errealitate zabalari lekua eginez".

Feminismoari erreparatuta, txikitik lan egiteko aukera ema-



Amaia Arregi eta Iñaki Telleria, Txatxilipurdiko kideak, Goienako platoan. L.Z.L.

IZEN-EMATEA IREKITA DAUKATE ORAINDIK; INFORMAZIO OSOA 'TXATXILIPURDI.EUS' WEBGUNEAN DAGO

ten die udaldiak hezitzaileei, talde txikietan batzen direlako udaleku ireki zein itxietan, eta haur eta nerabeekin "beste modu batean konektatzeko" balio die-lako. "Gertuagotik bizi ditugu eta errazagoa zaigu haien desio eta beharrak identifikatzea, zaintza bermatuz. Maskulinitate berrien lanketa ere egiten dugu eta norberak etxetik daren rol eta estereotipo apurketa eta deseraikitze horiek egiten ere saiatzen gara".

Aniztasuna da lantzen duten beste balioetako bat. "Aniztasuna aukera zabala da eta aukera eta ikaspen moduan ulertzen dugu. Ateak zabalik ditugu norbanako guztiendako eta udaldi bakoitza bakarria da, askotariko pertsonen hartzen baitute parte urtero. Urtez urte ikasten dugu parte hartzen duten guztiengandik, eta horrek aberasten gaitu".

Azkenik, haurrei eta nerabeei hitza eta parte hartzeko aukera ematea garrantzitsua dela azaldu dute elkarteak kideak, "subjektu aktibo bezala aitortze horrek begirada inklusiboa ahalbidetzen duelako, ikusgarri ez diren kolektibo horien errealitateak mahai gainera ekartzeko aukera sortuz".

Txatxilipurdiren balio erantsiaz Telleriak nabarmendu du Txatxilipurdik hainbat balio erantsi dituela. "Aipaturiko balio horien guztiak lanketa bera balio erantsi bat da, baita udaleku irekien 35. urteurrena ere. Ezagutza eta esperientzia metatu luzea dauka elkarteak". Hezitzaileen profilarri ere balioa eman dio: "Gure udaldietan parte hartzen duten hezitzaile gehienak ibilbide profesional batetik datoz, ikasturte osoan askotariko proiektu hezitzaileak egiten aritu izan direnak. Formakuntza batekin iristen dira udaldira".

Haur eta nerabeen iritziak ere jasotzen dituzte urtero. "Gure balio erantsiez galdetuta, gertutasuna, goxotasuna eta entzunak sentitzea dira erantzun azpimarragarrienak".



TXOMIN MADINA

EH Bilduk zerrenda aurkeztu du

Diputatu nagusi izateko EH Bilduren hautagai Maddalen Iriarteren babesarekin egin zuten aurkezpena. Honako hauek dira lehen hamarrak: Maider Morras, Kepa Urteaga, Garazi Etxebarria, Joseba Ezpeleta, Mikel San Miguel, Jasone Giraldo, Jaime Bengoa, Asier Murguzur, Gladys Fernandez eta Andoni Arratibel (Zerrenda osoa, Goiena.eus-en).

Solasaldia Iratin, apirilaren 19an, Eraitz Saez de Egilazekin

'Karkabatik herria' zikloaren baitan, 'Gureak ere badira; desira, boterea, epika' liburuaz ariko da, 19:00etan

E.A.B. ARRASATE

Apirilaren 19an, eguaztena, berriabiatuko dute Arrasateko Sorkutuk eta Irati Topalekuak Iratzar fundazioarekin elkarlanean antolatutako solasaldi zikloa, Eraitz Saez de Egilazekin. Lur Arbizurekin batera argitaratutako liburua izango du hizpide egileak. Hona hemen sinopsia: "Belaunaldi aldaketarekin, egungo gazteek ez dakite konpromisoa zer den, ez dago etorkizun desiragarri posiblerik, abertzaletasuna eta komunitatea ahuldu egin dira... Horiek eta gisakoak

maiz entzun ditugu azken urteetan. Halako ideia maiztu bezain erosoak nondik datozen azaldu eta horiek problematizatzen dituzte egileek, afektuetan eta kolektiboan arreta jarriz eta eraldaketa sozialerako desira, boterea eta epika ardatz hartuta. Beren esperientzia gorputz eta ikuspegitik aztertzen dute orain arte eraiki den istorio komuna, eta hori berridazteko gakoak ematen dituzte, zeren, denok kabituko bagara, istorio komunak ezin baitu istorio bakarria izan. Haienak ere badirelako".

OHARRAK

Gurutze-bidea egingo dute egubakoitzean

08:00etan hasita, Portaloitik Santa Barbararaino.

Antzerkia txotxongiloekin, apirilaren 20an

Phanta Rei antzerki taldeak *Noa uy uy uy* emanaldia egingo du Amaia antzokian, 18:00etan, 3 urtetik gorakoentzat.

San Felipe Elkarlaguntzaren batzar orokorra

Apirilaren 29an egingo dute, Juan Arzamendi Musika Etxean. Lehen deialdia 10:00etan eta bigarrena 10:30ean.

Txorbela Otxotea Granadara doa Pazko Astean

Bi kontzertu egingo dituzte: bata apirilaren 11n eta bestea 12an.



Antton Martinez, Naiara Okina eta Gorka Zubizarreta Tttakun Txalaparta Elkarteko kideak. ENEKO AZURMENDI BARRENA

Hiru hamarkada taulak astintzen

1993an sortu zen Ttakun Txalaparta Elkartea, eta, zaila bada ere, hogeita hamar urte igaro dira eta osasuntsu jarraitzen du. Urteurrenari begira hainbat ekintza antolatu dituzte; besteak beste, Txotxparta, Mendiparta, baita txalaparta ikastaroak ere

Iñigo Barrena Kortabarria ARRASATE Hogeita hamar urte dira Arrasaten txalapartaren hazia loratu zela Ttakun Txalaparta Elkartearen sorrerarekin. Hiru hamarkada geroago, lotura horrek sendoa izaten jarraitzen du, urteetan zehar lekukoa emanez egin den lanari esker, eta aurrera begira hori izango da elkartearen erronka nagusia: belaunaldi berriei erakutsi eta Euskal herriko altxorra den txalapartzat gozatu duten belaunaldi gazteak erakartzea.

Hastapenak, ordea, beti izan ohi dira gorabeheratsuak, eta taldea hamar kidek baino gehiagok osatzen badute ere, Nagore Iraolak, Arantzazu Uriartek eta Leire Aperribaik eratu zuten taldea, 1993. urtean. Hasierako ikastaroak Biterin egin zituzten, eta lehenengo lokala Seber Altube plazan kokatu

zen, eta ohikoak ziren txalaparta-doinuak inguru haietan. Hasierako urte haietan ikastaroak ematen eta ekimenetan parte hartzen jardun zuten; aipatzekoa da Hertzainak taldearen 564 abestian txalaparta-doinuak sortu zituztela.

Esperientziak betetako urteak

Ondorengo urteetan denetariko egoerak eta esperientziak bizi izan zituzten elkarteak eta bertako kideek. Txalaparta festetan murgiltzeko garaia ere izan zen, eta, Euskal Herriko bazter guztiak zapaldu, 2004. urtean Leonera ere iritsi ziren Ttakun Txalaparta Elkarteko kideak. Bidaia aberasgarria, Gaztelako jendea txundituta gelditu baitzen. Ez zen izan garai hartako saio aipagarri bakarra, munduko arte martzialen txapelketan ere jo zuten-eta Ttakunekoe.

Lokal aldaketa izan zuten hiru urte geroago, Zalduspen kokatuta zegoen txoko batera pasatu zuten-eta entsegu-gela. Tartean, Arrasateko gaztetxean ikastaroak ematen hasi ziren, baina, bizilagunen kexengatik, ikastaroak Monterronera eram zituzten.

Ttakunkide figura, mugarrria

Hogeitaz igarota etorri zen Ttakunkide figura sortzeko ideia, eta mugarrria izan zen taldearen etorkizunerako. "Ideia hura taldea egonkortzeko eta jendea taldera batzeko sortu zen, eta

GAUR EGUN, HAMAR BAZKIDE BAINO GEHIAGO DITU TTAKUN TXALAPARTA ELKARTEAK

Txalapartaren hasierak Arrasaten

Ttakun Txalaparta Elkartea 1993an sortu zen arren, urte batzuk lehenago hasi zen Arrasaten txalapartarekiko zaletasuna. Kepa Altubek eta Igone Kazalisek landatu zuten txalapartaren hazia. 80ko hamarkadan, Bilbon unibertsitatean ikasketak egiten ari zirela, txalaparta ikastaroak jasotzera animatu ziren, hango gaztetxe okupatu berri batean; han ezagutu zuten elkar, eta, ondoren, bikote izatera amaitu ziren. Behin jotzen ikasitakoan, makilak eta taulak hartu, eta Euskal Herrian zehar aritu ziren instrumentua jotzen ondorengo urteetan.

Ibilbide hura amaitu ostean, 90eko hamarkadaren hasieran itzuli ziren biak Arrasatera, eta ikasle izatetik irakasle izatera pasatu ziren. Ordura arte ikasitakoa zabaldu nahian, ikastaroak ematen hasi zitzaizkien herriko gazteei. Garai haietan oraindik ezezaguna zen txalapartaren mundua jende askorentzat, eta gazte ugari batu zen probatzeko asmoarekin. Probatzeaz gain, askori erakargarria iruditu zitzaion. Olatu hura aprobetxatuz, hiru urte geroago gazte talde bat batu zen eta Ttakun txalaparta taldea elkarte bihurtzea lortu zuten.

Orduz geroztik jende asko pasatu da elkartetik, eta Arrasateko txalapartarekiko duen loturak ez du etenik izan urte hauetan guztietan; hori, neurri handi batean, garai haietan horren alde lan egin zutenei esker ere bada.



Dapena eta Zubizarreta. TTAKUN

urte gutxiren buruan eman zituen fruituak", azpimarratu du Gorka Zubizarretak. Hasierako hiruzpalau kide izatetik hamabost pertsonako taldea izatera pasatu zen Ttakun, eta proiektu eta ekimen berriak sortzeko aukera eman zien. Esaterako, 2013. urtean, Arrasateko I. Txalaparta Festa antolatu zuten eta hurrengo bi urteetan iritsi ziren Txotxparta eta Mendiparta ekitaldiak.

Orduan aldatu zuten lokala; gaur egun Kultura izenez ezagutzen den eraikinera joan ziren. Sergio Lamuedra txalapartari profesionalaren eskutik jasotako ikastaroen bitartez, berriz, profesionaltasun maila handitzen joan ziren. Eta egoera hark, aurrera egin bazuten ere, Euskal Herriatik kanpo emanaldiak egiteko aukera eman zien; 2014. urtean Huescako Broto herrian eginkoa, adibidez.

Arrasate, indargunea

Txalapartak jende ugari mugitu duen arren, Arrasate izan da elkartearen indargune nagusia. Ikastaroak ere egin dituzte Debagoienan eta ibarretik kanpo

ere, baina Ttakun izan da bai-larako txalaparta elkarte bakarra eta egonkorra. Ikastaro horietako batean ezagutu zuten elkar gaur egun kide diren Naiara Okinak eta Antton Martinezek, eta nahi duenarentzat elkarte "irekita" dagoela azpimarratu dute.

Egungo jardunean, bi aste behin elkartzeko dira entsegu-gelan, ikastaroak jaso eta txalaparta jotzen ikasten jarraitzeko. Horrez gain, herri mailan ere antolatzen dituzte txalapartari lotutako ekintzak; eta halaxe izango da urteurrena ospatzeko ere.

Hasteko, apirilaren 21erako Txotxparta antolatu dute, Iturrieta sagardotegian, eta Irati tabernan eman beharko da izena; azken eguna apirilaren 17a izango da eta 45 euro ordaindu beharko dira; langabeek, berriz, 40.

Maiatzaren 6an, 13an eta 20an ikastaroak emango dituzte Kulturolan, eta azken zapatuan Mendiparta ospatuko dute. Izen-ematea www.arrasate.eus webgunean eman beharko da. Langileek 15 euro eta langabeek, berriz, 10 euro.

Ibargoia kaleko lanen aurreproiektua, onartuta

Eguenean egindako ohiko osoko bilkuran udalbatzak onartu zuen Aldundiaren 2024-2025eko laguntza programaren deialdian sartzea herriguneko obra. Besteak beste, asmoa da espazio eta antolamendu aldetik hobetzea kalea

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aldundiaren Obra eta Foru Planean Ibargoia kaleko obrarako dirulaguntza eskatzea onartu zuten martxoaren 30ean egindako ohiko osoko bilkuran. "Auzoetan obrak egin dira, eta uste dugu Ibargoiak behar duela berrikuntza bat bai espazio aldetik, baita antolamendu aldetik ere. Orain aurkezten dugun proposamena da Plan Foralean obra eskatzea", azaldu zuen Lier-ni Altuna alkateak.

Hain zuzen ere, barikuan sartu zuten aurreproiektua Aldundiaren 2024-2025eko laguntza programaren deialdian. Plan Foralean onartu beharko da proiektua; horren ondoren, jendaurrean egongo da; eta, azkenik, obraren esleipena egingo da. Besteak beste, egingo dituzten lanak dira aparkaleku batzuk lekuz aldatzea.

EH Bilduko bost zinegotzi eta EAJko biak izan ziren bilkuran; proiektua aurkezteak guztien onarpena izan zuen.

Jaietarako laguntzak

Osoko bilkuran, auzoetako jaiak diruz laguntzea ere mahai gainean izan zuten. 2023ko ekitaldian auzoetako jaiak diruz laguntzeko programaren deialdia onartu zuten, aho batez. Azken urteetako kopuru berarekin jarraituko dutela azaldu zuen alkateak, 13.500 euro, eta kopuru hori nahikoa izaten dela gaineratu zuen. Ildo horretan, nabarmendu zuten kultur, kirol eta gizarte arloetako taldeei bideratutako dirulaguntza igo egin dutela.

Dirulaguntzaren xedea Aramaio udalerraren eremuan 2023ko auzoetako jaiak edo erromeriak antolatzeko dirulaguntzak ematea. Onuradunak Aramaio-

AUZOETAKO JAIK DIRUZ LAGUNTZEA ERE ONARTU ZUTEN: 13.500 EURO BIDERATUKO DITUZTE

ko auzo elkarteak eta Oletako batzar administratiboa izango dira. Ohikoa den moduan, dirulaguntza bi epetan jasoko da: %75 eskaera onartzen denean eta gainerakoa aurreikusitako ekintzak egin direla justifikatzen denean.

Eguneko Zentroa

Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko zerbitzu kontratua esleitzeko espedienteari hasiera ematea onartu zuten, aho batez. Izan ere, egun duten kontratua ekainean bukatzen dela azaldu zuen alkateak. Eguneko Zentroak zerbitzu integratuak eskaintzen ditu, prebentziokoak, asistentziakoak eta komunitarioak. Bereziki, adineko pertsona autonomoei laguntzeko diseinatua dago; eta pertsonaren autonomia, haien integrazioa eta parte-hartze soziala mantentzeko ahalegina sustatzea du helburu. Udalaren Gizarte Zerbitzuen bitartez egingo da kudeaketa.

Energia lortzeko beste eredu batzuk eskatu dituzte

'Babestu maite duzun mendia' mendi martxen edizio berriaren bigarren ibilaldia egin zuten Aramaion

A.E.G. ARAMAIO

Babestu maite duzun mendia leloarekin Aramaio inguruetan egin zuten mendi ibilaldia zapatuan; hain zuzen, Statkraft enpresaren proiektu eolikoa kokatuko litzatekeen lurretan. Ibarrik abiatu ziren batzuk eta Kruzetan batu ziren beste hainbat lagun, Ganborralde mendira igotzeko. Han irakurri zuten Aramaio Bizirik taldekoek ibilaldiaren harira idatzitako manifestua.

Aramaio Bizirik taldeko Judith Arriolabengoak azaldu zuen Aramaion jarri gura duten proiektu eolikoa bezalakoak ez direla energia berriztagarrien ereduaren adibide: "Aramaio eta beste toki batzuetako mendiak bakean uztea eskatzen dugu, badaudelako energia lortzeko beste eredu batzuk. Konponbidea plangintzatik eta kontsumo mai-



Mendi ibilaldia. TXOMIN MADINA

laren murrizketatik etorriko litzatekeela gaineratu zuen.

Maiatzaren 20an

Zapatuko ekimenaren antolatzailleek beste hainbat talderekin batera manifestazioa deitu dute maiatzaren 20rako.

Inkesta egin dute, San Martin jaiak antolatzen laguntzeko

Aramaio Udalak herritarrei zuzendutako inkesta bat ipini du udal atarian, herriko jaiak antolatzen laguntzeko. Uztaileko lehenengo aste bukaeran izango diren San Martin jaietarako herritarrek zer nahi duten jakin nahi dute udal arduradunek, modu horretan, 2023ko San Martin jaietako programazioa osatu ahal izateko.

Urtero egin ohi duten moduan, herriko talde eta eragileekin ere elkartuko dira udal arduradunak; orain, baina, herritarren iritzia jasotzen hasteko unea dela uste dute. Inkestan galdetzen dute azken urteetan egin ohi izan diren ekitaldien ordutegien inguruan, ekitaldiak eurak mantentzeko edo ez mantentzeko beharraz, proposamen berriak eskatzen dituzte... Gainera, azken urteetan herritarrek eskatu duten talde bat aurtengo jaietan ekarriko dutela gaineratu dute.

Komikiak izango dira literatur lehiaketako berritasunak

Komikiak aurkezteko aukera egongo da aurten Txirritolak antolatzen duen literatur lehiaketan. Berrikuntza izango da komikiana, eta, nolabait, azkenaldian euskarazko komikiak bizi duen loraldiaren erakusle izan nahi du berrikuntzak.

Komikien modalitatea LHko 3. zikloko ikasleei zuzenduta egongo da, eta taldeka aurkeztu

beharko da. Luzera librea izango da, baita gaia ere. Ipuinen modalitatea LHko 1. zikloari –taldekako ipuina– eta LHko 2. zikloari –bakarka– zuzenduta egongo da. Eta mikroipuen modalitatea, azken urteetan moduan, nerabeei eta gazte helduei. 100 hitzez osatutako mikroipuinak izan beharko dute.

Lanak liburutegian aurkeztu beharko dira apirilaren 28rako. Baloratuko dute euskaraz zuzen idatzita egotea eta originaltasuna.



Ibargoia kalea, egunean. A.E.G.

Bigarren Ikazkin Trail mendi lasterkarien zain

Irailaren 9an egingo da, eta Aretxabaleta kirol elkarteak joan den astean ireki zuen izena emateko epea; lehenengo mendi lasterketak izandako arrakastaren ondotik, parte-hartzaileen kopurua handitzea jarri dute aurtengo erronka

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Hasi dira lasterkariak izena ematen Ikazkin Trail mendi lasterketan. Bigarren antolatuko du UDAk eta aparteko berrietasunik ez dute iragarri; iazkoari eutsita, parte-hartze kopurua gaintzea dute erronka.

Ibilbide berbera

Kurtzebarri mendiaren bueltako ibilbideak apenas izango du aldaketarik. "Egon daiteke aldaketa txikiren bat edo beste. Pinu batzuk botatzen dabilta, eta lehenengo zatia zertxobait moldatzea ekar dezake horrek, baina ezer gutxi", adierazi dute antolatzaileek. 21 kilometro eta 1.200 metroko desnibela izango du ibilbideak: Arentza auzoa, gailurreria, Kurtzebarri, Elorretako Haitza, Kargaleku, Basobaltz, Degurixa, Andarto eta Urkulu. "Asfaltoa Urkuluraino, pinu gutxi, pagadi dotoreak, Degurixako lautada zoragarria... Paisaiari dagokionez, halako lasterketa gutxi egongo da. Eta iazko lasterkariak ere halaxe esan zizuten: benetan polita izan zela".

Hobekuntza txikiak

Datari ere eustea erabaki dute: irailaren 9a. "Udako oporren aurretik lasterketa asko daude eta ez da samurra lekua topatzea. Pentsatzen dugu lasterkariak ez dutela atsedetik hartzen opor egunetan ere", azaldu dute antolatzaileek.

Irteera-puntua eta helmuga Durana kalean egongo dira: "Giro polita sortu zen eta hantxe egongo gara aurten ere. Dena den, zabaldu egin gura dugu helmuga, erosoago egoteko". Beste hobekuntza txiki batzuk egiteko asmoa ere badute: kontsignak lekuz aldatu, dutxak kiroldegira eroan eta bidegurutzeetan jende gehiago jarri. Azken horietan boluntarioak egongo dira: "Iaz osatutako laguntzaile-sarearekin oso pozik gaude".



Hirugarren sailkatu zen Sara Peña oriotarra, hainbat lagunek animatuta. XABI URZELAI

"Edonorendako aproposa"

Lehenengoan 127 lasterkari elkartzu ziren, eta aurten gehiago izatea gura da lukete; bereziki, herritarrek animatu gura dituzte: "Ez da oso teknikoak; Elorretako Haitza bakarrik, zertxobait.

Korrikan egin gura duenarendako ibilbide potentia da, eta, era berean, aproposa da hainbeste egin barik gozatzea doanarendako ere". Izen-emate epea zabalik dago helbide honetan: <https://web.rockthesport.com>.



J. Ezeiza, I. Gomez, E. Kortabarria eta I. Ibarrodo bilera batean. M. ALTUBE

UDAkoak antolatze-lanetan

Lasterketa antolatzeko ardura duen taldea hasita dago lanean. Haien artean daude Julen Ezeiza, Iker Gomez, Eñaut Kortabarria, Iñaki Ibarrodo, Dorleta Ezeiza eta Ainara Muga –azken biak falta dira argazkian–. Horiei boluntarioek egingo diete lagun egunean.



NIRE USTEZ

OIER ZUMARRAGA ARANBURU

Herrigintza

Aisialdia eta entretenimendua norbanakoaren ongizatearen ardatz izan beharko lirake. Herri eta auzo txikiak bizirik mantentzeko funtsezkoak dira bertan sortutako elkarte eragileak. Herritarren parte-hartzea eta komunitate-bizitzaren sentimendua sustatzeko behar-beharrezkoak dira. Merkataritza, kultura, kirol, ingurumen edota elkartasun kolektiboen iritzia erdigunera ekartzeaz gain, hauen rola azpimarratu nahiko nuke. Kolektibo hauek herritarrek beraien energia eta kezak bideratzeko gune izan daitezke, eta, horrela, inguruko bizi-kalitatea hobetzen lagundu. Azken finean, eraldaketa sozialaren motorra dira. Horregatik, beharrezkoa da laguntza-politikak ezartzea eta erakunde horien eta administrazio publikoen arteko lankidetzak sustatzea. Halaber, beharrezkoa da parte-hartzearen kultura sustatzea herritarren artean, beraien konpromisoa nahitaezkoa baita edozein proiektu komunitario aurrera eramateko. Aurrera, eragileok, segi herrigintzan!

6,2 milioi euroko gerakinarekin itxi du 2022a Udalak

Diruzaintza kontuak jakin berri, agintaldia zorrik gabe itxiko dela iragarri zuen Udal Gobernuak astelehenean

M.A. ARETXABALETAKO

2022ko ekitaldi ekonomikoaren likidazioak 6.271.930 euroko diruzaintza-gerakina utzi duela eman zuen aditzera astelehenean Udal Gobernuak, eta horietatik 2,3 milioi euro inguru sartu ahal izango dituztela 2023ko kontuetan, "konprometitutako proiektuak finantzatzeko".

Komentuan egokitzen diharduten pertsona nagusientzako zentro sozialaren obretara eta Santakurtz kalearen berrurbanizatzeko-lanetara bideratuko ditu Udalak 2,3 milioi euro horiek.

Gainerako lau milioi euroak aurtengo aurrekontuetan jasotako defizitari aurre egiteko erabiliko dituzte, eta, hala, "ez da mailegu berririk eskatuko".

Udalaren "diru kontuak onbideratuta" daudela azaldu zuen Elkorok, 2015ean agintaldia hasi –5,7 milioi euroko zorrarekin– eta zortzi urtera. Gaineratu zuen inbertsioei aurre egiteko "gaitasuna mugatua" izan arren "garrantzi handiko esku-hartzeak" egin direla eta "kudeaketa zuzur eta arduratsuari esker" Udalaren zorra hutsean utzi dela.

Aste Santuko elizkizunak izango dira parrokan

Hainbat elizkizun izango dira datozen egunetan parrokan: bihar, Eguen Santua, Jaunaren azken afaria izango dute gogoan, 18:00etan; eta etzi, Egubakoitz Santua, gorespenak 10:30ean, gurutze-bidea 11:00etan eta Jaunaren nekaldiko elizkizuna 18:00etan. Zapatuan Pazko Gaubeila egingo dute, 19:00etan, eta domekan meza nagusia izango da, 12:30ean.

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

"Margotzeak adina ez dit beste ezerk ematen"

IBAN URRETA ETXEBERRIA MURALGILEA ETA ARTISTA

'Mutikokrital' izenarekin ezaguna den gazte aretxabaletarrak grafitien munduan duen esperientzia eta jakintza helaraziko du Oñatiko Arte Jardunaldietan

Eki Letona Erretolatza ARETXABALETA Oñatiko gaztetxeak antolatutako Arte Jardunaldien baitan dagoen grafiti tailerra gidatuko du Iban Urreta artista eta muralgile gazteak.

Oñatiko grafiti tailerrean izango zara; zer dela eta?

Oñatiko Antixena gaztetxeak grafiti tailerra egingo dute hilaren 21ean. Nirekin kontaktuan jarri ziren, eta ni prest laguntzeko.

Tailerak zelako erantzuna izateko espero duzu?

Ez dakit, baina ea jendea animatzen den. Nik hasieratik eskatu nuen 8-10 pertsonako talde mugatu bat izatea. Hortik gorako taldeetan kontrola galtzea errazagoa da. Marrazketa librea egingo da, bakoitzak nahi duena azaleratzeko, eta, tartean, nik aholkuak emango ditut, hobetzeko.

Oñatin gazteak izango dira, nagusiki, jardunaldian; zer esango zenioke mundu artistiko horretan hastera doan bati?

Adin-tartea librea da, denontzat da tailerra. Baina bai, normalean, gazteak izaten dira gehiengo. Hasiberriei esango niekeen lehenengo da pareta libre bat hartzeko eta euren kabuz hasteko margotzen; baina kontu handiz besteen lanekin, errespetu falta



Urreta, mural baten aurrean. I. URRETA

delako. Bigarren aholkua pazientzia izatea da, pauso txikiak eginez hobetzea; bestela, frustragarria izan daiteke. Azken finean, eboluzio bat da, eta askotariko material eta teknikak probatu behar dira.

Nola hasi zinen grafitiak egiten?

14 urte nituenean hasi nintzen errotuladoreekin paretetan grafitiak egiten; edozein lekutan egiten nituen marrazkiak. Ondoren, eboluzionatu egin behar nuela konturatu nintzen, eta hainbat teknika eta material erabiltzen hasi. Hasieran, etsi-

garria izan zen; besteen lanak ikustean, halakoak egin nahi nituen, eta ni hasiberria nintzen. Azkenean, konturatu nintzen prozesu luzea zela eta poliki-poliki ikasiko nuela.

Zuri dagokizunez, ze inportantzia du margotzeak?

Nire bizitzaren parte da; atal garrantzitsuenetako bat, esango nuke. Askok laguntzen dit; margotzeak adina ez dit beste ezerk ematen. Gainera, konstantziak eta poliki-poliki hobetzeak asko poztzen nau.

Zure lanetan animaliak ikusten dira, nagusiki; ze esanahi dute animaliek zuretzat?

Niretzako oso garrantzitsuak dira, beti gustatu izan zaizkit. Beti txakur artean ibili naiz, eta pintura eta animaliak lotzea oso gustuko dut. Gainera, hasiera batean, lagunen txakurrak ilustratzen hasi nintzen, eta ondoren, jendearen enkarguak iristen hasi zitzaizkidan.

Sare sozialetara igotzen dituzun lanak enkarguak edo zure kabuz eginikoak dira?

Denetik apur bat. Normalean, jendearen enkarguak izaten dira; erretratuak edo ilustrazioak, adibidez. Udalak ere eskatu izan dit; duela hiru urte hasi ziren kaleak apaintzeko muralak eskatzen.



IMANOL SORIANO

Arana eta Ortueta irabazle

Udaberri Saria eskuz binakako pilota txapelketa irabazi dute Manex Aranak eta Iker Ortuetak, kadeteen hirugarren mailan. 20-22 hartu zituzten mendean Lazkaoko Lapke elkartearen Nale Aranburu eta Lide Lopez. Lazkaotarrak aurretik jarri ziren 17-12, baina, etxekoek harrapatu, eta 18na eta 20na berdindu ostean irabaztea lortu zuten.

Hiru emakumeren liburuak aztergai literatura solasaldietan

Apirilean ere izango dira literatura solasaldiak udal liburutegian. Maggie O'Farrell (Erresuma Batua, 1972) idazlearen *Hamnet* liburuaren gainean jardungo dute kontu-kontari hilaren 19an, 18:00etan; Monica Leiva kazetariak gidatuko du oraingoan ere, eta gaztelaraz izango da.

Hurrengo egunean, hilaren 20an, euskarazko taldea elkartuko da, 19:00etan, Mikel Antza idazlearen esanetara. Arantxa Urretabizkaiaren (Donostia, 1947) *Zergatik panpox* eta Mariama Ba-ren (Senegal, 1929-1981) *Hain gutun luzea* liburuaren gainean jardungo dute elkartzen direnek, euskaraz.

Kiroldegia zabalik eta liburutegia itxita datozen egunetan

Ibarra kiroldegiak ez du aterik itxiko egunotan. Aste Santuan, apirilaren 6tik 10era, hain zuzen ere, goizez egongo da zabalik, 09:00etatik 14:00etara. Pazko Astean, berriz, hilaren 11tik 15ra, zapatutako ordutegia izango du: 08:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Egundorietan ez da taldeko kirol jarduerarik eskainiko, eta hilaren 17an berrekingo diete horiei, astelehenean.

Arkupe kultura etxeko harreara, ostera, zabaldu egingo dute Pazko Astean, goizetan, 09:00etatik 13:00etara. Udal liburutegia, baina, itxita egongo da Aste Santuko zein Pazko Asteko egunetan.



RPS: 83/19





**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Andoni Bengoa musikari eskoriatzarra, iaz, Zedemontre topaketako lehenengo edizioan egindako saioan. GOIENA

Bertako kultur sorkuntza sustatzeko asmoarekin

Zedemontre topaketaren bigarren edizioa ospatuko da aurten. Herriko sortzaile eta artista ez-profesionalentzako topaketa da, eta musika, antzerkia, magia, edo taularatu daitekeen edozein diziplina batzea da egitasmoaren helburua

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eskoriatzako Udalak antolatuta, herritarren kultur sorkuntza bultzatzeko eta sortzaileek euren lana erakutsi ahal izateko Zedemontre topaketaren bigarren egitasmoa martxan jarri dute. Iaz egin zen topaketa lehenengo, eta bigarren ediziorako izen-emaitea zabaldu berri dute. Horretarako azken eguna ekainaren 23a da, baina antolatzaileek lehenbailehen batu nahi dituzte Eskoriatzako artistak, posible den heinean askotariko diziplinak batzeko asmoz.

Zuzeneko emanaldiak, uztailean Bigarren edizio horretan ere mota guztietako sortzaile eta artistentzat lekua izango da Eskoriatzan, antolatzaileen esanetan. "Musikan, antzerkian edo taularatu daitekeen beste edozein modalitatetan ari denak aurkeztu ahal izango du lana", jakinarazi dute Eskoriatzako Udaletik. Hala ere, zenbait baldintza hartu beharko dituzte

kontuan parte-hartzaileek. Batetik, Eskoriatzan jaiotako edo erroldatutako pertsona guztiek har dezakete parte. Taldeen kasuan, kideetako batek, gutxienez, Eskoriatzan jaiotakoa izan beharko du, edo bertan erroldatuta egon. Bestetik, parte hartzen duten pertsonak edo taldeek gutxienez 30 minutuko saioa egin beharko dute zuzenean. Horrekin batera, emanaldiak uztailearen 14an izango dira, parte-hartzaileek eta antolatzaileek adostutako leku eta orduetan; eta banaka nahiz taldean aurkeztu daiteke topaketara; ez dago adin-mugarik.

Hala, interesdunek 650 49 51 66 telefono-zenbakira deitu edo kultura@eskoriatza.eus helbide-

PARTE HARTZEN DUTENEK GUTXIENEZ 30 MINUTUKO SAIOA EGIN BEHARKO DUTE ZUZENEAN

ra idatzi dezakete (Oinarri guztiak, udal webgunean).

Parte-hartzaileentzako sariak izango dira: 300 euroko sari bakarra –emanaldiaren erdia baino gehiago euskaraz izanez gero, 100 euro gehiago–; eta gainontzeko parte-hartzaileentzako honako sari hauek: banakakoak eta bikoteak 100 euro, taldeak 200 euro eta emanaldiaren erdia baino gehiago euskaraz izanez gero, 50 euro gehiago

Iazko edizioa hobeto nahian

Iaz, Marisol Andrade helduentzako ipuin kontaketa egin zuen, Andoni Bengoa gitarrekin kontzertua, eta Jesus Perez Susok eta kideek *El jardín de las canicas* proiektua aurkeztu zuten. Andoni Bengoa izan zen topaketako sari nagusia jaso zuena; ordubetik inguruko saioa eskaini zuen, haren kantuekin eta zenbait bertsiorekin. Hain zuzen ere, aurten ere askotariko diziplinak batzea da helburua.



UDA ELKARTEA

Isana Gorosabel irabazle

Elgoibarko San Pedro bolatokian jokatu zuten joan den zapatuan hiru txirilo bola-txapelketako laugarren saioa, eta UDA elkarteko Isana Gorosabel eskoriatzarrak irabazi zuen, bost txirilo botata. Guztira, 60 parte-hartzailek jardun zuten, eta, hain zuzen ere, lehenengo aldiz irabazi du emakumezko batek bolatoki hartan.



AITOR AGIRIANO

Markel Mendizabal 'Galdegazte'-n

Arizmendi ikastolako Almen guneko Oxel Etxabe, Gari Sarasua eta Izeia Garai ikasleek Etxepe taldeko Markel Mendizabal musikaria elkarrizketatu dute *Galdegazte* saioan. Noa Gonzalez eta Maialen Apraiz ikasleak, berriz, errealizazio-gelan izan dira saioa jarraitzen. Apirilaren 13an emitituko da elkarrizketa, 21:30ean eta 23:30ean, Goiena telebistan.

OHARRAK

Atxorrotx Kultura Elkartearen Eguna

Maiatzaren 13an ospatuko dute, eta egitaraua gertu dute elkartekideek.

Kiroldegiko mantenua

Pazko astearen igerilekuan urteko garbiketa egingo da, beraz, beheko solairu osoa itxi egingo da. Beraz, saunak ere ez dira erabilgarri izango.

PATXI CASTRO




Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besuak, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

Eskomotor Eguna antolatu dute lehenengoz

Herriko motorzaleek antolatuta, maiatzaren 20an ospatuko dute eguna; eskupilota partiduak, ibilgailu klasikoen erakusketak, herri-bazkaria, kontzertuak... izango dira. Hori guztiori, aurtengo Eskoriatzako ralliesprinta antolatzeko dirua ateratzeko asmoz

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eguna iristeko denbora dezente geratzen den arren, Eskomotor taldeko kideek maiatzaren 20rako prestatu duten egitarauaren berri eman dute sare sozialen bitartez. "Jai hori antolatzearen asmoa da dirua lortzea Eskoriatzan ralliesprinta antolatzeko. Ea egin dezakegun... Horrekin batera, motorzaleak batzea, zaletasuna sustatzea eta, motorra aitzakia, egun ederra pasatzea", adierazi du Eskomotor taldeko Gorka Idigorasek.

Eguna hasteko, 09:00etan, eskupilota txapelketa jokatu da Joseba Inurrategi frontoian. "Oraingoz, zortzi bikotek eman dute izena, eta 16 bikoteko muga ezarri dugu. Partiduak hamabi tantora izango dira, eta bost eta erdiaren barruan jokatu dira". 10:00etan, berriz, 4x4 trialeko autoak, auto klasikoak, lasterketa autoak eta motorrak ikusteko aukera izango da, zerbait gunetan jarriko duten erakusketarekin.

Ibilgailu klasikoak erakusgai 10:00etatik aurrera, Gorosarri plazan, 4x4 trialeko autoak izango dira, Santa Marina plazan auto klasikoak, baita motorrak ere, eta Fernando Eskoriatza plaza perein lasterketako autoak



laz, Eskoriatzako ralliesprinta egin ostean. IMANOL SORIANO

izango dira ikusgai. 13:00etan, trikipoteoa egingo dute, eta 15:00etan, berriz, herri-bazkaria izango da frontoian. Txartelak 25 eurotan jarriko dituzte salgai apirilaren 17ko astean, Aldatz eta Inkernu tabernetan, eta horiek erosteko azken eguna maiatzaren 15a izango da. Menua, berriz, Euskal Parrillaren eskutik, honako hau izango da: entsalada mistoa, txerri-saiheskiak eta baserriko oilaskoak parrillan, eta Ezeizako pasteltxoak. Edaria, kafea eta ogia barne, sagardo-kupela ere jarriko dute.

Kontzertuak, 21:00etan, plazan Bazkalostean, 17:30ean, eskupilotako finala jokatu da, eta, ondoren Oier Mendizabal Murrikuko DJak girotuko du musikarekin. Horren ostean, 21:00etan, punk-rock estiloa uztartzen duten taldeen musika kontzertuak izango dira Fernando Eskoriatza plazan. Oihu!, Youth United, Erne eta Txakurrrak taldeak izango dira oholtzaganean. Emanaldiak amaitzen direnean, Mendizabalek musika dantzagarria jarriko du, egunari amaiera emateko.

Zerrenda aurkeztu dute

Eman du aditzera Eskoriatzako EH Bilduk udal hauteskundeetarako zerrenda. Edorta Zubizarreta izango da zerrendaburua, eta hauek dira kideak: Alaitz Orueta, Edorta Barandiaran, Xabi Uriarte, Irati Iglesias, Mikel Luengo, Dorleta Sologastoa, Ruben Baena, Izaro Beitia, Maria Abeijon, Nestor Arana, Gadea Errasti, Oihana Larrigan eta Joseba Rielo.



EH BILDU ESKORIATZA

LEINTZ GATZAGA | 19



laz Makilakorta Fest jaiaren egindako herri-bazkarian. GOIENA

Makilakorta Fest jai maiatzeko lehenengo zapatuan izango da

Hirugarren edizioa izango da aurtengoa, eta, beste urte batez, musikak protagonismo handia izango du

Imanol Beloki Unamuno **GATZAGA** Leintz Gatzagako Makilakorta mendiarren izenaz bataillatu zuten Makilakorta Fest jaiaren hasierako helburua ekintza kulturez betetako egun bat ospatzea izan zen, eta, bide beretik jarraituz, hirugarren ediziorako programa osatu dute Gatzaga City Krew gazte taldeko kideek, Gatzagako Udalak lagunduta.

Egitaraua, urteroko ildo beretik Maiatzaren 6an, zapatua, ospatuko dute Makilakorta Fest jaiaren hirugarren edizioa, eta, egunari hasiera emateko, 09:00etan Makilakortara igoko dira nahi dutenek. "Han ginkana egingo dugu, eta, ondo pasatzeko taldekako jolas batzuk egin ostean, hamarretakoa egin eta beheranzko bidea hartuko dugu", adierazi du Beñat Agirreurretak, Gatzagako Udaleko Kultura zinegotziak. 13:12an poteo musikatu

egingo dutela adierazi dute, eta 14:30ean, berriz, herri-bazkaria izango da. "Catering-a eroango dugu, eta menua simplea izango da, baina, beti bezala, gustukoa: paella, postrea eta edatekoa". Antolatzailuek adierazi dutenez, txartelak apirilaren 11tik aurrera jarriko dituzte salgai, Labidea denda-tabernan.

17:00etan, berriz, bola-txapelketa jokatu dute bolatokian. "Boloak aterako ditugu, eta apusturen bat edo beste seguru ezarriko dugula...". 19:00etan, kontzertuak izango dira.

Musika urbanoa eta punk-rocka Tatta, Denso eta Mutiko musika urbanoa eskaintzera igoko dira oholtzagainera, eta, ondoren, Eskoriatzako Gazte Egunean martxoaren 25ean debutatu zuen Youth United taldeak punk-rock doinuak eskainiko ditu, bertsiotzat osatutako emanaldian.

'Munduko hizkuntzen basoa' proiektua aurkeztu du Sarasuak

Munduko 7.000 hizkuntzak baso batean batu eta hizkuntza bakoitzak bere zuhaitza izatea da proiektuaren helburua, eta Gatzagan kokatzea aztertzen ari dira. Jon Sarasuaren hitzetan, baina, Udalak eta herritarrek hartu behar dute erabakia. Azpimarratu duenez, "munduko lehendabiziko" hizkuntzen basoa izango litzateke.



Jon Sarasua, Gatzagan. IMANOL SORIANO

Azoka berritzeko lanak, maiatzetik Gabonetara

Hilabete barru hasiko dira obrak Oxirondoko beheko solairuan, eta sei hilabete iraungo dutela aurreikusi dute; eskuinaldean eta egun itxita dauden postu finkoekin espazio zabal bat egingo dute, ostalaritza zerbitzuarekin eta janari prestatua erosteko aukerarekin

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Hilabete barru, maiatzean zehar, hasiko dira lanak Oxirondoko azokan. Beheko solairuan egingo dira lanak; azokara sartu eta gaur egun eskuinaldean dauden postu finkoak gune bakar bihurtuko dira, eta espazio zabala sortuko da. Bertako produktua saltzeko gunea sortuko dute, ostalaritza zerbitzua egongo da eta janari prestatua erosteko aukera ere egongo da. Maiatzen hasi eta Gabonetarako amaitzea aurreikusten du Udal Gobernuak, udan zehar azokak mugimendu gutxi izan ohi duela aprobetxatuta. Obrak egitearekin batera, gerora sortuko den espazio nagusi horren kudeaketa zehazteko prozedura ere egingo du Udalak.

Obraren aurrekontua 345.443 eurokoa da, BEZa barne. Hain zuzen ere, Europako Next Generation dirulaguntzetara aurkeztu zen proiektua; 2022ko deialdian ez zen laguntzarik jaso, eta aurtengo deialdiaren erantzunaren zain daude.

Topagune izatea, azokaz harago Azokaz harago, etorkizunean Oxirondo lehen sektorea erdigunean jarriko duen topagunea izatea nahiko luke Ainhoa Lete alkateordeak: "Kokagune bat eman nahi diogu lehen sekto-



Gaur egun hiru postu finko daude Oxirondon; irudian, Bixain harategia. J.B.L.

UDALAK LASTER JAKINGO DU 2023KO NEXT GENERATION DIRULAGUNTZA JASOKO DUEN

reari eta bertako produktuari, eta astean zehar gainbeheran dagoen egoera horri buelta bat eman, eskaintza osatu eta eskaintza iraunkorra sortu. Salmenta-guneaz harago, topagune izatea da helburua. Sentsibili-

zazio- eta formazio-espazio bat ere edukiko du, eta koordinazio osoa bertatik eramango da. Erreferentziatzko gune izatea nahi dugu".

Gipuzkoako Azoken Sarea Oxirondoko proiektua 2021ean abiatutako Gipuzkoako Azoken Sarearen barruan kokatu beharra dago; Landaola elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Erika Fundazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako hama sei udalerririk hartzen dute parte azoken sare horretan.



LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

Asteburu oparoa Lokatzarentzat

Asteburu emankorra izan da Lokatza Ziklismo Eskolarentzat. Zapatuan, kadeteetako Espainia mailako Zornotzako lasterketan Iñaki Plaza arrasatearrak eguneko ihesaldian sartzea lortu zuen, 34. helmugaratu bazen ere. Bestalde, egun berean jokatu zen infantil mailako Mendaroko lasterketan Harkaitz Ilarduia bergararrak bigarren postua lortu zuen –argazkian–.

Pentekosteetarako kartel lehiaketa, apirilaren 19ra arte

Pentekosteetako egitarauaren azala egiteko lehiaketa apirilaren 19ko 13:00etan amaituko da; lanak aurkeztu behar dira Udaleko BAZ zerbitzuan. Irudia sortzeko teknika librea da, eta lanak originala izan beharko du. Azaleko irudiak paperean inprimatuta eta kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu behar dira, eta irudiaren kopia digitala CD ba-

ten ere aurkeztu behar da. Baztertuak izango dira adikzioen prebentzioaren eta berdintasunaren irizpideen aurkako adierazpenak jasotzen dituzten lanak. Irabazleak 400 euroko balioa duten bonuak eskuratuko ditu, herriko komertzioan trukatzeko; saria eman gabe gelditu daiteke, epaimahaia hala erabakitzen badu. Hori bai, herritarren irizkiak %40ko balioa izango du; herritarrek apirilaren 24tik 27ra eman ahalko dute botoa. Argibide gehiago: www.bergara.eus.

OHARRAK

Azuak Ala Hil ekimena: bazkarirako txartelak

Apirilaren 29rako egun osoko egitaraua antolatu dute, Elorregin. Bazkarian parte hartzeko azken eguna apirilaren 16a da; 681 24 66 80 telefono-zenbakira deitu beharra dago.

Belgikako Bugari Express taldearen bisita

Bi kontzertu emango dituzte Bergaran: apirilaren 5ean Pol-Pol kanpoan (19:00) eta apirilaren 7an kartzela zaharrea (18:00).

Kafekonpon ekimenaren hurrengo hitzordua

Askotariko konponketa-lan txikiak egiteko apirilaren 12an elkartuko dira, San Joxepeko bigarren solairuan (16:00).

Gure Artera Sare taldearen zozketa

Erramu-zapatuko orgaren zenbaki saritua 2.200 da –ordezkoa, 1.331–. Saria jasotzeko telefono-zenbakia: 943 76 02 54.

Baionako manifestaziorako autobusa

Aranzadi Ikastolak autobusa antolatu du apirilaren 22an Baionan egingo den mobilizaziorako: *Azterketak euskaraz! Euskarari trabarik ez!* 11:00etan irtengo dira Bergararik eta 19:30ean itzuliko dira; prezioa hamar euro da.

Lanek iraun artean zabalik egongo da

Obretan ere zabalik jarraituko du azokak. Eraikina sartu eta ezkerrean dauden postu finkoak zabalik egongo dira, baita eraikin hartan dauden ludoteka eta goiko solairuko jolaserako gunea ere. Lanek trabarik egin ez dezaten, babeserako pareta bat jarriko dute. Eguaztenean eta zapatuan bertaraten diren ekoizleentzat karpa bat jarriko dute kanpoan, Katabia plazan.



Ekoizleak ezingo dira erdiko gunean egon; karpa bat jarriko da kanpoan. J.B.L.



Eguerdi partera jendetza elkartu zen azokako askotariko postuen bueltan.



Aurtizko joaldunak gora eta behera aritu ziren; irudian, lbargaraitik pasatzen.



Ganadua ukitzeko aukera ere izan zen.



Baserriko hainbat ofizioen erakustaldiak ere izan ziren; tartean, ardiei ilea moztekoa.



Ogitartekoak batzeko zapien tailerra.



450 bat lagun elkartu ziren Txapa Irratiak frontoian antolatutako herri bazkarian.

Ohiko osagaiak, nobedade arrakastatsuz osatuta

Erramu-zapatuak jendetza erakarri zuen goizeko feriara, baina arratsaldean ere parranda-giro ederra izan zen, besteak beste, Eingo taldeak gidatutako erromeria ibiltarian; egitarauan aurtien sartu diren berritasunek erantzun ona izan dute, oro har

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Erramu-zapatuko egun handira begira euria mehatxu handia bazen ere, feriako ordu nagusietan eutsi egin zion eta Bergarako kaleak jendez bete ziren askotariko ekintzez gozatzeko.

Goi mailako bertso saioa

Bezperan klasikoa den bertso saioan bete egin zen Seminari-xoa, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Alaia Martin, Aitor Sarriegi eta Nerea Elustondo ikusteko. "Ohikoa baino luzexkagoa egin genuen saioa, umorez bustitako ariketa azkarrak eta barkarkako saio serioagoak tartekatuz. Entzuleen partetik feed-

back oso ona jaso genuen, eta bertsolariak ere esan zidaten gozatu zutela", adierazi du gai-jartzaille lanetan aritu zen Ibon Leibar *Txinbo*-k.

Betiko osagaiak, berritasunekin Zapatuko egun handian Erramu-zapatuak izan ohi dituen osagai guztiak probatzeko aukera izan zuten herritarrek, baina izan ziren berritasun apagarri batzuk ere. Udaletxeko arkupeetan ezpainetako baltsamoa egiteko tailerra izan zen, Ekoudalax-en eskutik; Erlantz Olabarria erlezainak umeendako ogitarteko-bilgarriak argizariarekin nola egin erakusten ibili zen; urte

luzez egin izan den txorimalo lehiaketa sormen txokoarekin ordezkatu zuen Jardunek, lehen aldiz, arrakastaz; abelburuen bueltan erakustaldiak izan ziren -ardiari ilea mozteko saioa, zaldiak ferratzekoa...-; 2019a ezker egin barik egon ostean, 450 bat lagun elkartu zituen Txapa Irratiak antolatutako bazkariak, eta amaieran txarangak sekulako giroa jarri zuen frontoian; Eingo taldeak gidatu zuen erromeria ibiltariak hainbat lagun jarri zituen dantzan; eta, eguna borobiltzeko, Zuberoako Xiberoots musika taldearen reggae doinuekin dantzan egiteko aukera izan zen Munibe plazan.



Buztina lantzeko aukera, umeentzat.



Salmenta onak izan ziren azokan.



Eingo taldeak giro ederra jarri zuen arratsaldeko erromeria ibiltarian. ARGAZKIAK: GOIENA

Adikzioak prebenitzeko proiektua berritu dute

Planaren indarraldian zehar, ikastetxe, osasun- eta lan-zentro, familia, auzo, aisialdi, norbere garapen emozional nahiz sozialean egingo da prebentzio-lana, mendekotasun eta adikzio-jokabideen "prebentzio eraginkorra" lortzeko asmoarekin

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
2022tik 2026ra arteko epealdia hartuko duen adikzioen prebentziorako tokiko plana onartu zen, aho batez, martxoaren 27ko osoko bilkuran. Bosgarren tokiko plana da eta helburuen artean daude herriko errealtatearen diagnostikoa egitea, drogen kontsumoa eta bestelakoak saihestea, herritarren menpekotasunen problematikaren aurrean sentsibilizatu eta heztea eta aisialdi osasuntsua sustatzea.

Plan hori ardazten duten oinarriak finkatzeko aintzat hartu dituzte Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Adikzioen VII. Plana; Bergarako IV. Planaren ebaluazioa; adikzioen arloan eskura dagoen ebidentzia zientifikoa; Bergarako ikasleen errealtatea -Aranzadi Ikastolako, Ipintza Institutuko, Mariaren Lagundiko eta Miguel Altunako 1.118 ikasleren inkestak kontuan hartuta: Lehen Hezkuntzako 274 ikasle, Bigarren Hezkuntzako 844 ikasle-; herritarren partaidetzako galdetegi anonimoa -140 herritarrek erantzun dute, gehienak 36-60 urte bitartekoak-; eta hainbat eragilerekin sortutako lau eztabaida-talde -43 pertsona elkartu dira eta ia bi orduko solasaldiak egin dituzte-.

Herriko errealtatea

Gazteen erantzunetatik ateratako ondorioen artean, alkohola da lehendabizi probatzen duten droga, batez beste, 14 urterekin; 7 hilabete geroago tabakoa eta 15 urterekin kalamua. Gehien erabiltzen diren teknologia digitalak, berriz, sare sozialak eta txatak dira. 12 urtetik gorakoan artean %90ek erabiltzen dituzte; 10-12 urte bitartekoan artean, %85ek. Apustueta erabilera hedatuena gizonezko nagusien artean gertatzen dela ondorioztatu dute. Herritarren galdetegi kasuan, gehienek nabaritu dute



Herritarrek lrala kaleko terrazeta batean. GOIENA

HERRIKO DIAGNOSIA EGITEKO IKASLEEK, HERRITARREK ETA ERAGILEEK HARTU DUTE PARTE

hazi egin dela sare sozialen, bideojokoen eta online jokoen erabilera. Substantziadunei dagokienez, erdiak uste du alkohol gehiago edaten dela; batez ere, gazteen artean. Tabakoari dagokionez, ez daukate oso argi kontsumoa igo edo jaitsi egin den. Era berean, lautik hiruk uste dute legez edo legez kanpoko substantziak erraz eskuratzen direla. 43 eragilerekin egindako foroetan ere, herritarren galdetegiak ateratako ondorio bertsuak atera dituzte.

Eztabaida-talde horietatik hezkuntzako, arlo komunitarioko eta osasun arloko proposamenak atera dituzte, hala nola herriko eragileak adikzioen prebentzioran formatzea, Lehen Hezkuntzan teknologien erabilera eta heziketa emozionala lantzea eta Bigarren Hezkuntzan testigantzak txertatzea eta gaitasun

sozioemozionalei garrantzia ematea, prebentzio zerbitzuaren ikusgarritasuna handitzea, Osakidetzan haurren eta nerabeen arreta psikologiko eta psikiatrikoa indartzea eta osasun arloaren eta zerbitzu sozialen arteko koordinazioa sendotzea.

Lehentasunezko lanketa

Datuak bilduta, lau ildotan egituratu dute V. Tokiko Plana, eta horietan zehaztu dituzte landu beharreko helburu eta ekintzak. Alde batetik, osasunaren sustapena eta arrisku-jokabideen prebentzioa; bizi-eredu, estilo eta gune osasuntsuak garatzea; Bigarrenik, drogen kontsumoaren, jokoen eta teknologia digitalen gehiegizko erabilerekin tolerantzia soziala murriztu eta eskaintza kontrolatzea; halako substantzien kontsumo eta portaeren gehiegizko onarpena txikiagotu egin nahi dute, kontzientziazioa eta erantzukizuna sustatuz. Adikzioen arloko ezagutza eta prestakuntza eskaintzea, prebentzio-jardueretan inplikazio eta parte-hartze handiagoa sustatzeko; eta, azkenik, sare-lana eta koordinazioa komunitateko eragileen artean.

Baliabideen gida osatu du Bergarako Udalak etorkinentzat

Etorri berrientzat informazio erabilgarria jaso du Udalaren webgunean eskuragarri egongo den gidan

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Etorrinei laguntzeko, etorri berriaren egin beharreko prozedurak azaltzen dituen baliabideen gida osatu du Bergarako Udalak. Gida eskuragarri dago euskaraz, gaztelanian, frantsesez, ingelesez eta arabieraz. Bergarara bizitzera datorren pertsona edo familia batentzat hasiera batean baliagarriak diren xehetasunak jasotzen dira. Herriaren aurkezpen laburraz eta leku interesgarrien zerrendaz gain, honako hauei buruzko informazioa kontsultatu daiteke: itzulpen zerbitzua, erroldatzea, erregularizazioa, gizarte zerbitzuak, etxebizitza gaiak, adineko pertsonen gizarte-etxeak, hezkuntza, Udalaren zerbitzuak, enplegua eta herriko eragileen eta parte-hartze irekia duten elkarteak. Era berean, atal bakoitzean daude zerbitzuaren gaineko sa-

rreratxoak, helbidea, ordutegia eta kontaktua.

Udaletik azaldu dutenez, Bergaran bizi diren etorkinekin eta azken urteetan etortritakoekin elkarbanatu dute gida, eta, horretaz aparte, "haien ekarpenekin aberastu da".

Laster eskuragarri

Gida Udalaren webgunean argitaratuko dute. Oraindik ez dago eskuragarri, baina "hemendik gutxira" jarriko dutela gaineratu dute. Aurreratu dute erroldatzen diren unean emango zaiela horren berri eta QR baten bitartez bideratuko dituztela dokumentura: "Gida hori ez da liburuxka moduan argitaratuko, zerbait dinamikoa izateko helburua baitu, eta eguneratzen joango da". Hala ere, webetik lortzeko arazoak dituenari paperean emango zaio.

Maiatzaren 12a, Mokoloblok-en izena emateko azken eguna

Maiatzaren 28an, Pentekoste jaietan, Mokoloblok Bergarako kale-blok topagunea egingo da, eta eskalatzen aritzen diren 14 urtetik gorako gazteek hartu ahal izango dute parte. Bergarako Udalaren webgunean eman behar da izena, maiatzaren 12a baino lehen, eta adin txikikoan gurasoen edo legezko ordezkarien baimena bete beharko dute.

Udalak jakinarazi duenez, antolakuntzak gehieneko parte-hartzaile kopurua jarriko du eta onarpena izen-ematearen ordenaren arabera egingo da. Adierazi dutenez, eskalatazailerik norbere katu-oinak eta eskalatzeko behar duten material pertsonala eramane beharko dituzte; ahal dutenek, koltxoneta ere bai. Azkenik, antolakuntzak aseguru bat egingo die topagunerako izen ematea behar bezala egin duten eta onartuak izan diren guztiei.



Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Enpresa Registrada N°90/025

Komunikazio Campusa 2023

Bideo-podcasta

Sorkuntza eta zabalkundea sare sozialetan



NOIZ: 2023ko uztailaren 3tik 7ra.

TALDEA: 15 lagun, gehienez.

NON: Mondragon Unibertsitateko Komunikazio Campusean, Aretxabaletan.

ORDUTEGIA: 09:00-13:30 (ordu erdiko atsedenaldiarekin).

NORENDAKO:

DBH-4ko eta batxilergoko lehen mailako gazteak.

IZEN-EMATEA:

2023ko ekainaren 19ra arte.

PREZIOA: 125 euro.

Master-eskolak adituen eskutik:



Xabier Urzelai

Goienako kazetaritza-argazkigintza aditua.



Ainhoa Vitoria

Komunikatzailea eta Gazteako irrati esataria.



Unai Portilla

Ikus-entzunezko Komunikazio Graduko irakaslea.



Anima zaitetz eta eman izena!

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Izen-ematea zabalik:

www.labur.eus/komunikaziocampusa2023

Informazio gehiago:

600 02 27 20

komunikaziocampusa@mondragon.edu



Antton Tomasena –Errekako zuzendari orokorra–, Kolonbiako autoritateekin batera, inaugurazioan. ERREKA TALDEA

Errekak filial berria inauguratu du Kolonbian

Erreka Taldeak 2021ean onartutako plan estrategikoan du jasota dibertsifikazioa eta nazioartekotzea helburu izatea, gaur egun zein etorkizunean, eta azaldu dute "pauso garrantzitsuak" eman dituztela bi arloetan. 50 herrialdeetan dute hedatua presentzia

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría ANTZUOLA

Martxoaren 25ean egin zuten filialaren inaugurazioa, Kolonbian, eta, hala, Errekak nabarmendu du egoitza hark Taldearen balio teknologiko handiko produktu, zerbitzu eta soluzioak eskainiko dituela; baita diseinuari eta kalitateari dagokionez ere. "Filial horrek aukera eskainiko dio Errekari gertuko zerbitzua eskaintzeko, Hego Amerikako herrialdeei modu egokian erantzuteko, fidagarritasuna eta gertutasuna eskainiz merkatu berriari".

Horretarako, ordea, erantsi dute Kolonbian ez direla bakarrik arituko, Errekak Bergaran duen egoitzaren babesa izango dute eta diseinuan, fabrikazioan eta automatizazio zein sarbideen kontrolen sisteman adituak diren pertsonen taldeari eskerrak.

Presentzia indartzeko nahia
Enpresaren "nazioarteko presentzia indartzeko" nahia dute

ordezkariak, azpimarratuta Kolonbian ez ezik 50 herrialdeetan hedatu dutela euren presentzia, filialak eta egoitzak zabaldua, zortzi produkzio-eremu eta arlo komertzialeko guneekin. "Filialak ireki dira munduko beste zenbait tokitan, hala nola Mexikon, Dominikar Errepublikan, Erresuma Batuan, Txekiar Errepublikan eta Txinan". Eta, horrenbestez, nabarmendu du "pauso garrantzitsuak" eman direla nazioartekotasunari dagokionez 2021-2024ko sasoi estrategikoan.

Are gehiago, erantsi dute horrek guztiak ahalbideratu duela "Erreka munduko ekoizle nagusienetakoa" bilakatzea Connected Access sarbideen automati-

2021-2024KO ALDIAN BI NEGOZIO-UNITATE BERRI JARRI DITU ABIAN: CARE ETA MEDICAL

zazioari dagokionez. "Sare komertziala Estatuko zein nazioarteko kolaboratzaile, bazkide eta delegazioen bitartez hornituz". Eta, gainera, 2021-2024ko "aldi estrategikoan" dibertsifikazioan urratsak egin dituztela. "Bi negozio-unitate berri jarri baititugu abian: Erreka Care eta Erreka Medical".

Taldearen egungo egoera

Mondragon Korporazioaren parte da Erreka Taldea, eta enpresaren gaur egungo egoeraren berri eman du. Haien hitzetan, bostehun langile baino gehiago ditu, eta azken urteko fakturazioa 75 milioi eurokoa izan dela jakinarazi du. Sei lantoki ditu, orotara, hiru kontinentetan banatuta –Europa, Asia eta Amerika– eta, euren arabera, salmenten %71,4 nazioartekoak dira. Horrez gainera, bost negozio-unitatetan dihardu lanean: Smart Fastening, Plastics, Care, Medical eta Connected Access, hain zuzen ere.



NIRE USTEZ

JON KORTABARRIA MANTZIZIDOR

Ebastea ebatziz

Azken boladan, pandemiaren, Ukrainako gerraren eta klima-fenomenoen eraginez omen, prezioak gorantz doaz, geldiezin. Horren aurrean, agintariek zergak murriztea ebatzi dute, jendeak erosi ahal izan dezan. Aldi berean, lehendik ahul zeuden zerbitzu publikoak, besteak beste, osasuna eta hezkuntza, itotzear dira. Hala, ezinegona nabarmena da arlo horietako langileen artean.

Bien bitartean, bitartekari eta negozio-buru handiek sekulako irabaziak poltsikoratu dituzte. Agintariei boza ematen dietenek, ostera, erosahalmena eta zergak txikitzea lehenesten dutela dirudi; hots, poltsiko propioa.

Alabaina, ez dira ohartzen halako neurriekin guztionak den aberastasun galanta ebasten digutela; oinarritzko zerbitzu duinak, alegia.

Halako politikak babesten dituztenek zilegi egiten dute aberatsak aberasteko neurriak ebatzea; eta, horrenbestez, aberatsenen alde, guztionak diren oinarritzko zerbitzuak ebastea.



IDOIA ARANBARRI ARZUAGA

Senidetzaren haritza, landatuta

Aiherraren eta Antzuolaren senidetzaren isla den haritza landatu zuten hilaren 2an bi herrietako ordezkariak. "Ez dugu hura lehortzen utziko, ezta gure senidetasuna ere", adierazi zuen Beñardo Kortabarría Antzuolako alkateak. *Mugak zubi* ibilbideko Legazpi eta Antzuola arteko bidea egin ostean landatu zuten zuhaitza, San Josen. Ostean, bazkaria egin zuten.

Jendaurrean da HAPOn aurrerapen-dokumentua

Antzuolako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) jendaurrean da, eta Antzuolako Udaleko webgunean (www.antzuoia.eus) kutsulatu daitezke maiztaren 24ra bitartera arte espedienteak eta planoak, hasierako dokumentu estrategikoarekin batera. Hala, iradokizunak eta alternatibak aurkezteko aukera ere izango da, eta,

gainera, dokumentua udal mugakideei ere bidaliko zaie, jakinaren gainean egon daitezten.

Hain justu, herritarrekin batera lurren inguruko hausnarketa egin ostean, martxoaren hasieran egin zuten aurrerapen-dokumentuaren aurkezpena Hirigrama kooperatibako arkitetkoek, Torresoroan, herriak hirigintzan izan ditzakeen aukeren berri eman ahal izateko mugikortasunari, espazio libreei eta ekipamenduei zein instalazioei dagokionez.

Enduro-zaleen topaleku izango da berriz Elgeta

Piñukokuko lagunek prest dute III. enduro martxa. 31 kilometroko ibilbidea du eta hilaren 15ean egingo dute. Iaz 120 bat parte-hartzaile elkartu ziren Elgetan. Aurten ere antzerako kopuruetan ibiltzea aurreikusten dute antolatzaileek

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako Piñukoku elkarteko kideek prest dute ibilbidea. "Betiko antzera, distantzia 31 kilometro ingurukoa izango da. Irteera 09:00etan izango da, herriko plazan, eta berezitasunak aurten noranzko berria eta jaitziera berri batzuk izango dira", azaldu du Piñukoku elkarteko Etor Garatek. "Aurreko edizioetan Azkonabietarantz hasi gara, eta oraingo honetan Intxorta aldera egingo dugu. Ikusita aurreko aldietan batzuek nahikoa zutela lehenengo zatiarekin, pentsatu dugu noranzkoa aldatuta bigarren zatia ere ezagutzeko aukera izango duela hainbatek". Martxa 09:00etan abiatuko da, plazatik, eta Zaldunborda paretik Asentziara egingo dute parte-hartzaileek. "Handik Intxortara igo, Bigarren errekara jaitzi eta San Romandik Santamañarantz egingo dugu, eta presara jaitzi". Ibilbide erdian, plazara itzuliko dira zaleak. Hantxe egongo dira anoa-gunea eta Eibarko CDR bizikleta-dendako lagunek jarritako mekanika-postua.

Bigarren zatian Goikomenditik Karabietara egingo dute ziklistek, eta Azkonabietara helduko dira. "Tontorrera iritsi aurretik hartuko dugu Araotzerako jaitziera.



Hiru parte-hartzaile iazko Piñukoku enduro martxan. IMANOL SORIANO

IZEN-EMATEA 'KIROLPROBAK.EUS' ATARIAN EGIN DAITEKE, EDO PROBA EGUNEAN PLAZAN

Berriz ere Karabietako muino batera igo, eta aurreko urtean estreinatutako jaitziera egingo dugu. Azken jaitziera, bukatzeko, presara eramango gaitu. Plazara itzulita bukatuko da martxa", azaldu du Garatek.

Eguraldiari begira

Oraingoz, 50 bat lagun daude izena emanda. "Jendea eguraldiaren zain dago. Aldapa handiak daude, eta euria egiten badu lokatzak zaildu egiten ditu gauzak. Egunotan pare bat aldiz egin dugu ibilbidea, eta oso ondo dago". Izen-ematea zabalik da; 15 euro federatutakoendako eta 20 euro gainerakoendako. Antolatzaileek jakinarazi dute amaieran bizikletak garbitzeko mangerak, dutxak, txitxi-burruntzia eta Baobeer garagardoak egongo direla.

Ibilbidea prest dago

Azken asteotan ibilbidea prestatzeko lanetan aritu dira Piñukoku taldeko kideak. Martxa aurreko bi egunetan markatuko dute, eta erreparatzea ere tokatuko da. Jakinarazi dute, bestetik, berria dela azken jaitziera. "Pinuak bota dituzte eta duela pare bat hilabete hasi ginen bidexka berriak prestatzen. Uste dut ondo utzi ditugula", esan du Garatek.



Bidezidorretako batean zubi berria egiten. PIÑUKOKU

Liburuaren Egunaren bueltan hainbat ekintza liburutegian

Opor egunen ostean, umeendako kontularitza tailerra, erakusketa eta 'Liburuak plazara!' ekimena izango dira

L.Z.L. ELGETA

Jaiegunak direla-eta udal liburutegi zerbitzua itxita egongo da hilaren 17ra arte. Ondotik, makina bat hitzordu izango da, Liburuaren Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta. Hilaren 20an hasiko du umeei zuzendutako ipuin kontularitza tailerra Mainer Galarzak. LH-2ko eta LH-3ko umeendako saioa izango da. Hilaren 27an egingo du bigarren tailerra; kasu horretan, LH-4ko gazteendako. Beharrezkoa da aurrez izena ematea. Epea zabalik da hilaren 17ra arte.

'Liburuak plazara!'

Apirileko hirugarren barikua berezia izango da; izan ere, plazara aterako ditu liburuak Geaxi Ezpeleta liburuzainak. Plazan jarriko du mahaia, 16:00etatik 18:00etara. Horrekin batera, *Otsoak maite* ikuskizuna izango da ikusgai, 17:30ean.

Ez ahaztu, bestetik, martxan dela artista liburuen erakusketa. Erakusketan parte hartzen dutenen artean bi sari zozketatuko ditu liburutegiak: 9 urte artekoen artean bata eta 10 urtetik gorakoen artean bestea.



L.Z.L.

Frontenis txapelketa gogorra

Emakumezkoetan Maitena Mañariquak eta Mireia Rubiok jantzi dute txapela, finala 25-11 irabazita. Gizonezkoen txapela Elorriora joan da: Gontzal Azkarraga-Urizarrek eta Unai Hernaltesek jantzi dute, Mikel Beretxiga-Ibon Unzetabarrenetxea bikotearen aurkako finala 25-22 irabazita. Hamasei bikote aritu dira hiru egunetan jokaturako txapelketan.

Elgetako Gazte Asanbladak kamisetak atera ditu

Urtarril amaierako aurkezpenaren ostean, kamisetak atera ditu Gazte Asanbladak. Zuriak dira, aurreko aldean *Elgetako gazte asanblada* jartzen du Intxortako Ateko irudiaren ondoan. Atzeko aldean, berriz, kaskajoaren betiko logoa dago. Prezioa 15 euro da. Interesatuek mezua idatzi behar dute Gazte Asanbladaren Instagram-profilera.

Hilaren 23an omenaldia gerrako errepresaliatuei

Hilaren 24an beteko dira 86 urte frankistak Elgetan sartu zirela. Bezperan, Intxorta 1937 kultur elkarteak eta Elgetako Udalak antolatutako ekitaldia egingo dute Mendizaleen Plazan. Joseba Tapiaren saioa, herriko errepresaliatuei omenaldia, lore eskaintza eta plaka berri baten inaugurazioa daude aurreikusita, 12:00etan.



Gaztelekuan dago Maratz zerbitzua. O.E.G.

Gazteei lan-orientazioan laguntzen die Maratzek

Ikasketak bukatu eta lan-esparruan sartzear dauden gazteei merkatuan dauden lan-eskaintzei eta laguntzei buruzko informazioa eta aholkularitza ematen diete, joan den abendua ezkerro, gaztelekuan dagoen Maratz zerbitzuan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Ikasketak bukatu osteko etapan lan-merkatuan sartzeko egoeran dauden gazteei orientazioa eta aholkularitza ematen die gaztelekuan kokatuta dagoen Maratz zerbitzua. Abendua ezkerro dago zabalik zerbitzua, eta, eskaera gehienak ikasturte amaieran etor daitezkeela aurreikusuten duten arren, ordu-rako prestatzen eta zerbitzua egonkortzen dihardute hango bi aholkulariek, Ainhoa Anduagak eta Cristina Valek.

Informazio-puntua

Martitzenetik egubakoitzera bitartean egoten dira biak, goizez, gaztelekuan, eta bien artean kudeatzen dute Maratz zerbitzua. Graduatuak zein goi mailako zikloa bukatu duten gazteak dira abendutik egungo tarte honetan Maratz zerbitzura jo duten gazteak. "Informazioa eskaintzen diegu guk: lana non aurki dezaket, zein lan-eskaintza dauden, nola prestatu curriculum bat,

zer-nolako bekak dauden, adibidez, kanpora joan edo lehen lan esperientzia izateko, non eska ditzaket, dirulaguntzak ote dauden... Horrelako gaien inguruko informazioa ematen diegu eta, kasuan kasu, toki batera edo bestera bideratu, izan Lanbidera edo izan Udaleko Enplegu Sailera, esaterako. Bigarren Hezkuntzako eta batxilergo mailako ikasle batzuk ere etorri dira, bestalde, uztailko udaleku irekietan eta arte jardunaldietan, adibidez, begirale izan daitezkeen galdezka".

Lanbiderekin harremana dute Maratz zerbitzuko aholkulariek, eta diote saiatzen direla gaztea informazio eske doanean ahalik eta gehien laguntzen. "Zer egin

GAZTELEKUAN EDO POSTAZ EGIN DAITEKE KONTSULTA: 'GAZTEINFORMAZIOA@ONATI.EUS'

dezaket orain? Non lortu dezaket lana? Horiek izaten dira galdera ohikoenak, eta lan-eskaintzaren inguruko informazioa edo laguntzena prest izaten dugu eurei erakusteko".

Zerbitzua egonkortzen

Eskaera-kopurua ikasturte amaieran handitu egingo dela uste dute Anduagak eta Valek, eta bitartean zerbitzua egonkortzen eta zabalitzen lan egingo dutela aurreratu dute. "Lana bilatzeko dagoen ziurgabetasun egoeratik etorri zen zerbitzu hori martxan jartzeko ekimena. Gazteek lan-arloko galderak jorratzeko erreferentziatzeko puntu bat izatea zen asmoa, eta horixe eskaini gura du Maratzek, dio Haurrak eta Gazteria Saileko batzordeburu Iker Oñatek. Egonkortzen ari da aholkularitza-zerbitzu hori, eta, erreferente bihurtzen den heinean, gazteei formazioa eskaintzea eta hitzaldiak antolatzea ere bada asmoa, beharra ikusiz gero.

Ekonomiaz eta zaintzaz aritu da Eider Mendoza Oñatiko bisitan

Diputatu nagusigai jeltzalea astelehenean izan zen Oñatin, bertako EAJko alkategai Amaia Erostarberekin



Amaia Erostarbe eta Eider Mendoza astelehenean Oñatin. EAJ

O.E.G. OÑATI

Ekonomia arloko parte-hartze ereduaren inguruan eta pertsonak erdigunean jartzen dituen zaintza eredu berri baten inguruan aritu zen Eider Mendoza astelehenean Oñatin, Amaia Erostarberekin.

Batetik, Mendozak "bisita "pribatuak" egin zituen bailarako zenbait enpresatara, enpresak eta eragileak "gertutik" ezagutzeko, eta "ekonomia sustatzen eta indartzen jarraitzeko konpromisoa" agertu zuen, eta gaineratu Debagoieneko enpresek lurraldeko ekonomiaren ikur

diren bi elementu jasotzen dituztela: industria eta eredu parte-hartzailea. Bi ezaugarri horiek "funtsezkoak dira ekonomia sendo eta lehiakorra eraikitzeko", Mendozaren esanetan.

Gizarte politikei buruz Mendozak esan zuen egun Aldundiak gipuzkoar bakoitzeko 700 euro bideratzen dituela gizarte politikei; "inoizko zifrarik handiena". Ildo berean egin zuen berba Amaia Erostarbek ere; hautagaitzaren "lehetasun nagusietako bat herriko nagusien zaintza eta ongizatea bermatzea" dela esan zuen.

Lizitaziora aterako dute Eltziaoko taberna, bi urterako

Oinarriak berriro egin dituzte; eskaintzak aurkezteko epea apirilaren 17tik maiatzaren 12ra izango da

O.E.G. OÑATI

Hilabete honetan, apirilean, aterako du Udalak lizitaziora Eltziaoko tabernaren ustiaketa. Bi urterako kontratua izango da, beste bi urtez luzagarria izango dena, eta eskaintzak aurkezteko epea apirilaren 17tik maiatzaren 12a bitartekoa izango da, EAEko kontratazio-atarriaren bitartez edo HAZ bulegoan. Interesa dutenek aukera izango dute instalazioak bertatik bertara ikusteko. Maiatzaren 4an egingo dute bisita berezi hori, eta komeni da aurrez jakinaraz-

tea, partaidetza@onati.eus helbidera idatzita edo 943 78 04 11 telefono-zenbakira deituta.

Gaur egun tabernaren kudeaketaz arduratzen direnek apirila izango dute azken hilabetea. Ondoren, lehiaketa eta esleipen prozesuak irauin bitartean, taberna itxita egongo da aste batzuetan. Egun horietan, garbiketa orokorra egiteaz gain, guztia ikuskatuko du enpresa aditu batek, eta, beharra ikusiz gero, egin beharreko esku-hartze edo konponketak gauzatzeko aprobetxatuko dute.

Adikzioak prebenitzeko plana eguneratu egin dute

Bost urterako tokiko udal plana da –2023-2028–, azkena baino osatuagoa, diagnosi batetik abiatuta, eta ez dago substantziei begira bakarrik eginda. Martxoko ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatiko Udalak 30 urtetik gora daramatza adikzioen inguruko udal prebentzio planak egiten, eta azkena eguneratu eta onartu egin dute orain. "Ez da soilik substantzien adikzioen zentratzen. Baita, adibidez, pantailetan eta digitalizazioan. Aurrekoa baino osatuagoa da", zioen Iza-ro Elorza alkateak martxoko osoko bilkuraren amaieran.

Eragileekin batera

Duela urte pare bat hasi ziren lanketa egiten, 2021ean. Pandemiatik ateratzeko sasoiari, konturatu ziren diagnosi bat egin beharra zutela lehenengo, egoe-

ra zein zen jakiteko, eta aldaketa batzuk txertatu zituzten orduan. Hainbat elkarrizketa egin zituzten elkarteekin horretarako, eta plana garatzen hasi ziren;

orduan ikusi zuten substantziez haragoko plan baten beharra.

Beste berezitasun bat da planak jasotzen duen ekintza beste modu batera egingo dela,



Herritarrak Oñatiko plazan. O.E.G.

inguruarekin batera. "Ekintza bat baldin badago zuzenduta kirolean ari direnen umeei, adibidez, kirol horretan eurekin lanean ari diren begiraleen bitartez egingo litzateke ekintza, beste ezagutza eta gertutasun bat dutelako".

Adikzioak prebenitzeko udal plana da, berez. Udalak, baina, baditu beste esku-hartze edo laguntza batzuk adikzio arazo konpontzen lagundu ahal izateko. Adinari dagokionez, herritar guztiendako plana da. "Egia da gaztetandik hasiz gero onura hobekak dituela, heldutasunera heldu orduko landuta izaten dute eta. Baina helduok ere baditugu adikzioak. Denendako da", zioen Elorzak.

Bat Jaurlaritzakoarekin

Plan hori bat dator Eusko Jaur-laritzaren adikzioen planaren printzipioekin, eta esku-hartze ardatz posible hauek jaso ditu: prebentzioa eta osasuna sustatzea, eskaintza murriztea, osasun laguntza, laguntza sozio-sanitarioa eta gizarteratzea eta ezagutzaren kudeaketa eta esku-hartzeen ebaluazioa: iker-

keta, generoaren eraginaren azterketa eta esku-hartzeetan berrikuntza sustatzea. Eta helburu orokorrak izango dira: Oñatiko herritarrak adikzioei lotutako arazoaren inguruan sentsibilizatu eta formatu, haiek jarrera aldatzeko eta arrisku faktoreei modu eraginkorrean aurre egiteko babes faktoreak indartuz; biztanle talde zaugarrienetan prebentziozko esku-hartzearen intentsitatea indartu; prebentziozko esku-hartzean hobekuntza bultzatu, Oñatiko udalerriko komunitatearen inplikazioa erraztuz; eta plana indarrean dagoen bitartean aurrera eramaten diren esku-hartzeetan etengabe aldatzen ari den fenomeno baten etengabeko berrikuntza eta egokitzapena sustatu.

Udal webgunean eskuragarri

Martxoko osoko bilkuran aho batez onartu zuten plana udalbatza osatzen duten bi alderdietako ordezkariak. Bost urterako da, 2023-2028 bitarteko, eta udal webgunean argitaratuko dute, herritarrek eskuragarri eduki dezaten.

EH Bilduk badu zerrenda

Udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du EH Bilduk. Egungo alkate Izaro Elorza izango da buru, iragarrita zegoen moduan, eta "talde sendoa" dutela adierazi du. Hauek izango dira hurrengo hamar kideak: Xabier Igartua, Lierni Altube, Anik Zubizarreta, Iñigo Ruiz, Iñaki Olalde, Saioa Arkonada, Iker Oñate, Ander Lauzirika, Ekhiñe Mendi eta Idoia Aierbe.



OÑATIKO EH BILDU

Aparkalekuak Errekalden

Ibilgailuendako hamar aparkaleku berri ari dira egiten Errekaldeko 29, 31 eta 33. atarien atzealdean, berdeguneak kenduta. Aurretik egindako irisgarritasun- eta mugikortasun-lanek aparkalekuak murriztea eragin zuten, eta auzotarren eskaerari erantzuteko erabaki zuen Udalak aparkaleku berri horiek egokitzea. Argiteria ere berrituko dute.



MIREIA BIKUÑA

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

"Lana ondo erakustera" joango da Ganbara Ejeera

50 urte beteko ditu aurten Ejea de los Caballerosko lehiaketak, eta bederatzia abesbatza gonbidatu dituzte lehiatzera; Ganbara da bat. Josu Elberdinek moldatutako 'Aldapeko' kanta prestatu dute, propio, hilaren 14ko, 15eko, 16ko aste bukaerarako



Ganbara abesbatzako kideak joan den egubakoitzeko entseguan. GANBARA FAKTORIA

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Urteurren borobila du ospatzeko Aragoiko musika sustatzeko helburu duen Ejea de los Caballeros herriko lehiaketak –50 urte–, eta azken urteetan sarituak izan direnetako bederatzia abesbatza gonbidatu dituzte aurten go lehiaketan parte hartzera. Oñatiko Ganbara abesbatza da gonbidatuetako bat –2013an lehen saria eta 2014an Grand sari nagusia–, eta prestatzen ari dira irabazleen arteko txapelketan lehiatzeko.

Derrigorrezko piezak

Lau piezako emanaldia egingo dute oñatiarrek. "Obretako batek derrigorrean izan behar du Aragoiko musika duena. *S'ha feito de nuey* –J. Bustok moldatuta– pieza abestu izan dugu guk lehiaketa irabazi dugun bi alditan, eta hura aukeratu dugu oraingorako. Beste pieza batek dagokion abesbatzaren sorlekukoa izan behar du. Eta, kasu horretan, *Aldapeko* abestia au-

keratu dugu. Ez da, baina, ohikoa izango; Josu Elberdini eskatu genion moldaketa egiteko. Gainera, interpretazioa ere gehituko diogu", azaldu du Ganbara abesbatzaren zuzendari Aitor Biain Bidartek.

"Ekin" eta "ordun"

Sagardoa egiteko prozesua irudikatuko du Ganbara abesbatzak kantu horrekin: sagarrak batu, kupelera bota, txikitu eta sagardoa atera. "Dokumentazio-lanak egin eta jakin dugu "ekin" oihukatzen zutela garai bateko baserritarrek sagarra jotzen hasiteko, eta "ordun", berriz, gelditzeko. Prozesu hori deskribatzen duen pieza bat da moldaketa, eta eszenifikazioa, antzerkia,

SAGARDOA EGITEKO PROZESUA DESKRIBATUKO DUTE KANTUAREKIN, ANTZERKIA GEHITUZ

sartu diogu. Makilak erabiliko ditugu", aurreratu du Biainek.

Kontzertuko hirugarren pieza estilo barrokokoa da, *Laudibus* izenekoa. Eta laugarrena, berriz, *Iuppiter* garaikidea.

Pazko Asteko asteburuan izaten da beti lehiaketa hori; aurten, apirilaren 15ean eta 16an. Entseguak ondo doazela dio Biain zuzendariak, eta, disfrutatzeaz gain, egindako lana erakustera joango direla: "Lan handia egin dugu eta egindako lana ondo erakustera goaz".

Txikiak, Madriler

Eta Ganbara abesbatza Ejea de los Caballerosko lehiaketarako entseatzen ari den bitartean, Madrilerako bidaia ari da prestatzen Ganbara Txiki. Hango Euskal Etxearekin batera, kontzertua dute San Inazio elizan hilaren 6an. Hamabost ume, piano jotzailea eta bi nagusi joango dira. Warner parkera eta *Matilde* musikaleria ere joatekoak dira, bide batez.

GORA ETA BEHERA



Pintaketak zigortzeko ordenantza eskaera



"Udalak pintaketan garbiketa ordaindu behar" duela salatu eta "pintaketak arautu eta zigortuko dituen ordenantza bat aldarrikatu" gura duela dio irakurle batek, argazki hori bidalita.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Telematikoki eskatu behar dira kiroltako dirulaguntzak

Kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzak eta kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko dirulaguntzak emango ditu aurten ere Oñatiko Udalak. Eskera egiteko epea apirilaren 21era arte egongo da zabalik. Aurten, baina, eskaera guztiak telematikoki egin behar dira, udal webguneko *Tramiteak* ataletik. Horretarako, eskatzaileak ziurtagiri digitala izan behar du, ezinbestean. Eskera-orriarekin batera, diruz lagundu gura den kirol asmoaren aurrekontua ere aurkeztu beharko du interesatuak, baita zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria ere.

Nekazaritza arloko ikastaroa apirilaren 24an hasiko da

Apirilaren 24an hasi eta uztailearen 21era arte iraungo du Oñatiko Udalak eta Elkarzabal integratuzko taldeak elkarrekin sustatu duten *Nekazaritza-ko jarduerak osagarriak* izeneko ikastaroa.

Nekazaritza arloan lan egiteko interesa izan eta langabezian dauden pertsonen zuzendutako formazio ikastaroa da, 330 or-

la 95.000 euro kultur programa eta sormen proiektuetarako

Udaleko Kultura Departamentuak kultur proiektuak eta programak zein sormen proiektuak gauzatzeko dirulaguntza emango du aurten ere. Kultur proiektu eta programak gauzatzeko dirulaguntzak kultur arloko ekintza bat edo programazio oso bat antolatzen duten taldeek eskatu ditzakete, Oñatin gauzatzen bada. Ez dira kontuan hartuko Udalaren beste dirulaguntzaren bat jasotzen duten ekintzak. Sormen lanetarako dirulaguntza, berriz, Oñatiko sortzaileei zuzenduta dago; eskatzaileen errolda begiratu da.

Eskera www.onati.eus atarian egin behar dira hilaren 24a aurretik.

dukoa. Ikastaro teoriko-praktikoa izango da eta hiru jarduerak landuko ditu: lurraren prestaketa, landatze eta eretea; ureztatzea, ongarrantzea eta tratamenduen aplikazioa eta laboreetako eta instalazioen mantentze lanak. Horrezaz gain, bisita teknikoak eta arloko enpresetan praktikak egingo dira.

Ikastaroa Hazi-k emango du Zubillagako Olaburu zentroan eta izena Lanbideren webgunean eman daiteke. Informazioa eskuratzeko: 627 43 19 04.

WUT

GAZTEEK
GAZTEENTZAT

BERRITUA

DESKARGATU
ALDIZKAARI
DIGITALA DOAN!



Hirugarren txapela jantzita, Azkorbebeitia Udalatxeko erregina

MENDIKO LASTERKETA Arrasate-Udalatx hirutan irabazi duen lasterkari bakarra da abadiñarra. Gizonezkoetan, Mikel Zabalegi ordiziarrak ezustea eman zuen

Xabier Urzelai ARRASATE

Aitor dezagun, kronikako izenburua ez da erabat zuzena, domekan Oihana Azkorbebeitia (Abadiño, 42 urte) Udalatxen baino gehiago Txukurrillon izan zelako azkarrena. Izan ere, 08:30ean Mondraitzekoek, egiten zuen eguraldi txarra ikusita, ibilbidea egokitzea erabaki zuten, ez zeukan-eta zentzurik boluntarioak Udalatx tontorrean hiru orduz egoteak, ezta 320 korrikalari hara gora bidaltzeak ere -2 graduko tenperatura egiten zuen goian, haize zakar eta euriarekin-. Hala, tontorrean baino gehiago, Udalatxeko mendi magalean ibili ziren korrika lasterkariak, eta, esandako moduan, Txukurrillo eta Pozutueta inguruetan abadinarra ondo moldatu zen, eguraldiagatik batere sufritu barik (1.51.41): "Halako giroaz gustura ibiltzen naiz ni".

Abadiñarrari aurre egiteko hautagai nagusia Ainara Urrutia zen; aretxabaletarra saiatu zen Azkorbebeitia estutzen, baina Udalara iritsi orduko 50 segundoko aldea zeukan bizkaitarrak, eta, Urrutia lasterketan sartuta egon bazen ere, alde hura handitzen joan zen, poliki-poliki



Azkorbebeitia, domekan, etxeko txikiek lagunduta azken metroak egiten. I. SORIANO

(1.55.02). "Une batean neure buruari esan diot hobe nuela geratu eta zira jantzi, dardarka nindoala jabetu naiz eta", adierazi zuen Aretxabaletakoak. Ibilbidea baino gehiago, hotza izan zuen Urrutiak kontrario gogor.

Eta podiumera igotzen hirugarrena izan zen lasterketa lehenengoz egin zuen Lara Estebanez legazpiarra (2.00.14). Ibilbidea ezagutu barik, aurreko biak baino koska bat beherago ibili zen, zortzi minutura helmugaratuta. Ane Zabala podiumetik kanpora geratu zen, baina arrasatearrak lasterketa

Iglesias saria, egokituta

Joseba Iglesias saria egokitu egin zuten. Berez Udalatik Udaltxera azkarren igotzen dutenek jasotzen dute, baina, Udala eta Besaide arteko tartea kronometratu zuten. Azkorbebeitia (37.52) eta Zabalegi (29.48) izan ziren onenak.

ederra egin zuen atzetik aurrera, eta laugarren sailkatu zen.

Zabalegi ezustea eman zuen

Gizonezkoetan, berriz, Goierri Garaia atletismo taldeko Mikel Zabalegi irabazi zuen (1.32.31). Helmugara iritsi baino metro batzuk lehenago eskuak burura eramane zituen mendi lasterkari ordiziarrak; ez zuen sinisten, bereziki, 2019ko irabazle Asier Larruzea atzean utzi izana. "Uste nuen Besaidetik Arrasaterako tartean atzetik zetozenek harropatu egingo nindutela, baina ondo eustea lortu dut".

Lasterketa hasieran Iñigo Alzola arrasatearra izan zen erreferentea. Alzolak erritmo gogorra ezarri zuen hasieratik, eta Udalan 30.44ko marka egin zuen, baina Besaidetik itzulia egin eta ostera ere Udalara iritsi zenerako -17. kilometroa- Zabalegi eta Larruzeak aurre hartua zioten. Hain zuzen, Udalan ikusi zituzten goizeko eguzki izpi bakarretakoak, eta Zabalegi 40 segundoko aldearekin pasa zen hor, eta Alzola minutu eta hogeiturogogor. Podiumetik kanpora geratu bazen ere, nabarmentzeko moduko lasterketa egin zuen laugarren sailkatu zuen Asier Azkaratek.


Mondraitzeko Ganix Lasa pozik zen proba amaieran: "Eguraldiak behartuta zenbait erabaki hartu behar izan ditugu, eta hori ere erronka izan da Mondraitzendako. Badakigu goizean lasterkariak penaz hartu dutela Udalatxeko gaina kendu izana, baina uste dut erabaki zuzena izan dela. Zuzeneko emankizuna ere indartu dugu, eta, ze baldintza izan ditugun ikusita, gustura geratu gara".

Hotz eginda ere, ondo moldatu ziren



OIHANA AZKORBEBEITIA
EMAKUMEZKO AZKARRENA

"Berez, ez neukan Arrasate-Udalatx egiteko asmorik, aurrean distantzia luzeagoko lasterketetan lehiatzeko asmoa daukat eta; baina antolatzaileek animatuta etorri naiz, gustatzen zaidalako. Hotzarekin ondo moldatzen naiz ni".



MIKEL ZABALEGI
GIZONEZKO AZKARRENA

"2018an ere egin nuen lasterketa [zortzigarren izan zen], eta ibilbidea ezagutzen nuen. Sorpresa izan da proba irabaztea; Larruzeak harrapatu egingo ninduela uste nuen. Pena izan da Udalatx igo ez izana, baina han goian ez zen giro".



Realaren eta Rayo Vallecanoren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Rayo Vallecano norgehiagokara beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek.

Real Arena futbol zelaiko premium ganetik.

Partida apirilaren 23an, domeka.

Parte hartzeko azken eguna: apirilak 17

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Realaren ikusteko aukera izango duzue!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia



Aranburu, Azkarate eta Alzola, hiru arrasatear lasterketa buruan, irteeran. I.SORIANO



Alzola, ihes eginda. MONDRAITZ



Azkorbebeitia, Poztuetan. MONDRAITZ



2019ko irabazle Asier Larruzea, Besaideko monumentuaren parean. MONDRAITZ



Zabalegi, gizonezko azkarrena. I.S.



Asier Azkaratek ezustea eman zuen. I.S.



Ainaro Urrutia, bigarren, pozik. I.S.



Ezkerretik eskuinera: Larruzea, Urrutia, Azkorbebeitia –seme-alabekin–, Zabalegi, Estebanez, Alzola eta eskuman Ane Zabala. I.S.

Udalatxera igo ez izanagatik penaz, baina egindako lanarekin pozik



ASIER LARRUZZEA
BIGARREN GIZONEZKOA

"Lokatza izan dugu, haizea, euria, hotza... Eta halako baldintzetan gustura ibiltzen naiz ni. Eguraldi onarekin erosoagoa da mendian ibiltzea, baina... Arrasatera natorren hirugarren aldia da, gustatzen zait proba, etxean moduan sentitzen naiz hemen".



IÑIGO ALZOLA
HIRUGARREN GIZONEZKOA

"Etxeko lasterketa da, gurea, eta ederra izan da. Pena eguraldiak baldintzatu izana, jakinda halako bat antolatzeke atzean ze lan dagoen eta ze ilusio izaten duen jendeak. Erabaki ona izan da, aurrean pasa gara eta arriskutsu zegoen; pentsa atzean...".



ASIER AZKARATE
LAUGARREN HELMUGAN

"Udalatxeko tontorrera igo ez garenez, normalean baino lasterketa azkarragoa izan da, eta goian giroak ez du batere lagundu, baina berotu ederrarekin nindoan; nik, behintzat, ez dut hotzik pasa. Pozik geratu naiz egindako lanarekin, gozatu egin dut".



AINARA URRUTIA
BIGARREN EMAKUMEZKOA

"Pozik geratu naiz egindako lasterketarekin, baina hotz galanta pasa dut; egia esateko, asko sufritu dut. Nire bigarren edizioa izan da hau, eta iaz egin zuen eguraldi onarekin... Gaur, txarra eginda ere, jendea zegoen ibilbidean, eta asko eskertzen da hori".



LARA ESTEBANEZ
HIRUGARREN EMAKUMEZKOA

"Lehenengoz etorri naiz Arrasate-Udalatx lasterketara, eta oso pozik nago podiumera igo izanagatik. Lehenengoz egin dut proba; ez nuen ibilbidea ezagutzen, eta asko gozatu dut. Etorriko gara osterara ere, ez izan zalantzarik".



ANE ZABALA
LAUGARRENA HELMUGAN

"Egia esan, oraindik dardarka nago, hotz handia pasa dugu. Goizean pena hartu dugu Udalatxera igoko ez ginela jakin dugunean, baina zentzuzko erabakia izan da. Txukurri baino apur bat gorago haizea oso zakar zebilen".



Nogen boskotea Oñatin izango da apirilaren 22an. MARIO LEZAUN

Kulturari ere tokia eginda

Puntaik Punta Bidezidorren Jaialdia egingo dute apirilaren 21etik 23ra bitartean Oñatin, Udalak eta Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta; "Natur ondareari balioa ematea" helburu duen ekimenean askotariko kultura ekitaldiak izango dira

Aitziber Aranburuzabala Juldain OÑATI

Foruen plazan kokatuko dute agertoki nagusia eta han izango da Donostiako Nogen taldea apirilaren 22an, zapatua, 22:00etan hasita. Aurrez egondakoak dira Oñatin, gazteleguan izan ziren 2018an, eta Puntaik Punta Bidezidorren Jaialdia ere ezagutzen dute, Aretxabaletan izan ziren-eta urte berean. "Guretzako kontzertu politikak izan ziren Oñatiko eta Aretxabaletakoa, baina bigarren hura berezia izan zen, Skakeitan taldearekin jo genuelako; gertuko lagunak gara, aspalditik partekatu dugu lokala. Bada, guretzako kontzertu gogoangarria izan zen", kontatu du taldeko abeslari eta ukelele-jole Markel Idigorasek.

Jokin Guilisagasti (bateria), Olatz Cuevas (baxua), Alex Irauzusta (gitarra) eta Ane Negue-

ruela (abeslaria) ditu gaur egun Idigorasek taldean lagun. "Ane, hastapenetako abeslaria, iaz itzuli zen taldera, Eider Saezi lekukoa hartuta. Bitxia da, Aretxabaletakoa izan zen Eiderren lehen kontzertua eta Debagoienera Anerekin itzuliko gara orain. Ilusioz gaude; talde batek bidean galtzen duen freskura berreskuratu dugu Anerekin".

Lan berria prestatzen

Folk-pop esparruan kokatzen da Nogenek egiten duen musika, alaia eta dantzagarria. 2016an abiatu zuten taldea, eta, harrezkero, disko labur bat eta bi luze dituzte argitaratuta; azkenekoa, 2020an, *Under Alt* izenekoa. "Ilusioz ari gara abesti berriak konposatzen. Ez dugu disko luze bat argitaratzeko presa handirik; kantuak banaka sortzearen eta argitaratzearen alde egin dugu

oraingoan. Dagoeneko sarean dago entzungai *Glastonbury* kantu berria, bideoklip eta guzti. Lehenengo aldiz ekoizle bat sartu dugu; Nacho Murekin lanean ibili gara, eta interesgarria izan da kanpo begirada bat sartzea. Oñatiko kontzertuan eskainiko dugu aurretik ezagutzen dituzuen kantuekin osatutako kantu-zerrenda berritua".

Txuleton's taldea aurretik

Oñatiko ibilbide luzeko seikoteak sarritan jo du herrian –Jabi Egaña (abeslaria eta saxoa), Karmelo Alberdi (gitarra), Ro-

NOGEN, TXULETON'S, GRANUJAS A TODO RITMO, ROCKALEAN ETA TIO TERON TALDEAK IZANGO DIRA



Aner Etxebarriak zuzendu duen *Joy* film laburraren fotograma bat. MENDI FILM

Mendi Film festibaleko filmak

Mendiari, abenturari eta naturari buruz Bilbon egiten duten zinema-jaialdian saritutako lau film ikusteko aukera izango da apirilaren 21ean, 18:30ean, kultura etxeko zinema aretoan.

Hiru euskal ekoizpen

Iazko Mendi Film jaialdian bi sari eskuratu zituen *Agur artzai* film laburra da eskainiko duten lanetako bat –Euskarazko Film Onena eta Gazte Epaimahaiaren saria–; Orozkoko Julen Zubietek zuzendu du eta Gorbeian erretiratzeaz dagoen Jose Ereño artzainaren gogoetak jasotzen ditu.

Ugandako Mgahinga Parke Nazionalako gorila handien zaintza eta haren semeena partekatzen duen Joyleen Tugume emakumearen istorioa jasotzen du Getxoko Aner Etxebarriak zuzendu duen *Joy* filmak; Film Labur Onenaren saria jaso zuen.

Euskal ekoizpena da Andrew Opilak zuzendu duen *Into the ice* filma ere. Hego Amerikako Darwin mendikatera 2022ko martxoan eta apirilean egin zuten nazioarteko espedizioa du ardatz; besteak beste, Ibai Rico eta Eñaut Izagirre geografo eta glaziarretan aditu direnek parte hartu zuten bidaiaren kontakizunak.

Erresuma Batuko Jake Hollandek zuzendu duen *New way up* filmarekin borobilduko dute eskaintza. Himalaiako irudi ikusgarriak batzen ditu alpinismoa ardatz duen lanak.

berto Zabarte (gitarra), Fernando Mugartza (baxua), Xabier Arregi (bateria) eta Sven Linnenbrügger (teklatura); oraingoan, Nogenekin "pozik" partekatuko dute oholtza, 20:30ean.

Musikari-ibiltariak kalean

Erdiguneko kaleetan zehar musika-ikusketan gehiago izango dira; esaterako, egubakoitzean, 19:00etan hasita, Santanderko Granujas A Todo Ritmo seikoteak Blues Brothers taldearen doinuak eroango ditu, panpina ikusgarriak lagun dituztela.

Ibilbide luzea duten musikariek osatzen duten RocKalean taldea ere gonbidatu dute Puntaik Puntara. Debagoienean sarritan izandakoak dira kantu-zerrenda rock eta pop estiloko kantu eza-gunekin osatzen duen boskote dibertigarria. Jaialdiaren egitaraua borobiltzeko, dantzarekin

gozatzeo aukera izango da Tio Teron taldearekin domekan, 18:00etan hasita, Foruen plazan. Euskal dantza tradizionala eta umorea uztartzen dituen musika- eta dantza-taldea da; haiek ere eskualdean behin baino gehiagotan izandakoak dira.

Ibilaldi literarioa ere bai

Ibon Martinek idatzi duen *Ladrón de rostros* azken nobelan oinarritutako bisita gidatua egingo dute apirilaren 21ean, 16:00etan hasita. Oñatin kokatutako istorioa da eta eleberriko kokaleku esanguratsuak bertatik bertara gerturatzea du helburu Turismo Bulegotik abiatu eta hiru ordu iraungo duen ibilaldi gidatuak. Parte hartzeko aurrez izena eman behar da, 747 41 75 85 telefono-zenbakira deituta edo Puntaikpunta@debagoiena.eus helbidera idatzita.

"Intrigazko trama bada ere, azpigeruzak ditu"

ENEKO BIDEGAIN IDAZLEA ETA IRAKASLEA

Saiakera generoan murgilduta ibili ondoren 'Bichta éder' (Elkar) intrigazko eleberria argitaratu du MUko Humanitate eta Hezkuntza Fakultateko irakasle Eneko Bidegainek

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ESKORIATZA

Orain dela hamabost urte sortzen hasitako istorioa borobildu du Bidegainek, fikziora eta misteriozko esparrura salto eginda, *Bichta éder* izena duen nobelan.

400 orritik gorako eleberria da; bistan da bazenuela zer kontatu.

Aspaldi hasi nintzen istorioarekin, eta hainbeste urtetan asko handitu da, bai. Intrigazkoa izanik, hari-mutur asko behar ditu, trama ez dadin irakurlearentzako agerikoa izan. Jarraian irakurtzea gomendatzen dut; hari asko eta pertsonaia asko ditu, eta, bestela, galtzeko arriskua dago; opor garaian irakurtzeko aproposa dela uste dut.

Kazetari baten ikerketa da trama nagusia, baina askotariko gaiet buruzko gogoetak ere egiten dituzu. Zeri buruzkoak?

Bitxia bada ere, istorioaren inspirazioa prentsaurreko baten sortu zitzaidan, alkate batek proposatu zuen antzerako proiektu bat aitzakia hartuta, eta, horren bueltan, higiezinaren espekulazioaz hausnartzea naturala egin zait; eta, bestetik, protagonista, ni neu moduan, kazetaria izanik, ofizioari buruz ere jardun dut beste une batzuetan.

Itxurakeria istorioaren beste ardatz garrantzitsu bat da.



Eneko Bidegain idazle baionarra. E.B.

"PERTSONAIA ETA HARI-MUTUR ASKO DITUEN ARREN, ERRAZ IRAKURTZEN DEN LIBURUA DA"

Hala da; izenburua ere hortik doa: itxura ederra eman nahi izateak edo gauden eremuan komeni den itxura emateak gaur egun pisu handia duelako. Frantses grafian idazte ere ez da kasualitatea izan, Ipar Euskal

Herrian euskarak bizi duen zapalkuntzari keinua egiteko; izan ere, etxe, saltoki eta bestelako toki askok euskarazko izena dute, baina euskarazko idazkera errespetatu barik. Eta euskarari egiten zaion beste burla bat da hori. Pertsonaietan ere islatzen da itxurakeria; adibidez, badaude euskaltzaletasunarekin eroso sentitzen ez direnak, edo Eñaut protagonista: maskulinitate hegemoniko araberako mutila izaten saiatzen den arren, ez dago eroso....

Euskara batua da, baina lexikoa, neurri handi batean, zure jatorrizko euskalkian dago. Aukera konzientea hori ere bai?

Euskal Herri osora begira idazten dut, baina oreka bat bilatu behar da guztiek ulertzeko moduan izan dadin; hala ere, lexiko bati uko egin gabe eta lexiko hori zabaltzeko gogoz. Akaso, puristei ez zaie egokia irudituko, eta batuegia beste batzuei. **Nolako irakurlea irudikatu duzu?** Idazterakoan ez dut irakurle zehatz bat izan buruan; errango nuke publiko zabal batentzat dela. Akaso, orri kopuruak atzera egitera bultzatzen dezake, baina erraz irakurtzeko ahalegina egin dut, eta hala dela esan didate dagoeneko liburua irakurri duten ere.

Higiezinaren espekulazioaz eta gehiago

2020an Lapurdiko kostaldean kokatutako misteriozko kontakizuna du oinarri *Bichta éder* (Elkar) eleberriak. Aspaldi hutsik dagoen jauregi zahar baten egiteko asmoa dagoen luxuzko proiektu turistikoa da trama nagusia, baina azpian "geruza asko dituen istorioa" da; korapilo eta pertsonaia asko jasotzen dituen, alegia.

Eñaut Oihenart kazetari gaztea da protagonista nagusia: Euskal Herrikan kanpo urte batzuk egin ondoren, jaioterrira itzuli da. Luxuzko proiektu turistikoa ikertzen hasiko da, baina ez da guztien gustuko izango hori, eta, besteak beste, interes pertsonalak dituzten hainbat politikariek eta enpresaburuekin egin beharko du topo.



Bichta éder liburuaren azala. ELKAR

Goienakideen txokoa

APIRILEKO SARIAK

Liburua eta DVDa

Bizipoza elkarteari esker, 'Mundu berri bat guztiontzat' liburua eta DVDa

Parte hartzeko sariaren izena: Liburua



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATISKO SARRERAK



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus **Whatsapp:** GOIENAKIDE "sorian onena" [txokidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
"goiena app"-a / zozketa etalean. Parte-hartzaleen artean agingo da zozketa.
Inbentzietan OFI TV/VO legioen edozein gurekin dagoen pertsonak Goiena Kulturako Zebaituen Itxarotzailearen baten artean dala. Gure biletaren helburuak dira irakurlearen gogozko gaiteriaz. Eskubide argoak dituzten arteak, hezikuntzako beste txokoa helburuarekin dala: goienakide@goiena.eus



Puntu aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 65 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 7 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

Zapatua, 8 JUNCAI: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

Domeka, 9 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

Astelehena, 10 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Martitzena, 11 JUNCAI: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

Eguaztena, 12 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

Eguena, 13 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 7 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Zapatua, 8 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Domeka, 9 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Astelehena, 10 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Martitzena, 11 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 78 16 87

Eguaztena, 12 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Eguena, 13 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 7 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Zapatua, 8 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Domeka, 9 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Astelehena, 10 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Martitzena, 11 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguaztena, 12 GARATE: Kale Barria 6 / 943 78 05 58

Eguena, 13 GARATE: Kale Barria 6 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2023 osoan: JUNCAI: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2023 osoan: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

HILDAKOAK

Jesus Mari Abarrategi Ibabe. Aramaion, martxoaren 22an. 67 urte.

Fermi Sanchez Alonso. Bergaran, martxoaren 23an. 91 urte.

Jose Miguel Isasa Mercero. Arrasaten, martxoaren 24an. 97 urte.

Maribi Gomez Pagaldy. Aretxabaletan, martxoaren 25ean. 74 urte.

Encarnacion Lopez Cabeza. Arrasaten, martxoaren 25ean. 90 urte.

Felipe Setien Ortuzar. Bergaran, martxoaren 25ean. 73 urte.

Paco Martinez Padua. Aretxabaletan, martxoaren 26an. 87 urte.

Esperanza Nafarrate Zabala. Arrasaten, martxoaren 26an. 98 urte.

Estibaliz Velez de Mendizabal Saez de Vicuña. Bergaran,

martxoaren 26an. 87 urte.

Purita Barrutia Zabaleta. Bergaran, martxoaren 27an. 94 urte.

Jabier Arregui Liziaga. Arrasaten, martxoaren 29an. 97 urte.

Esperanza Lizarralde Gallastegi. Arrasaten, martxoaren 29an. 84 urte.

Isabel Urionabarrenetxea Zaitegi. Arrasaten, martxoaren 29an. 95 urte.

Eusebio Blazquez Serrano. Arrasaten, martxoaren 31n. 79 urte.

Juanmari Altuna Sagastigutxia. Bergaran, martxoaren 31n. 88 urte.

Jose Mari Heriz Abarrategi. Arrasaten, apirilaren 1ean. 90 urte.

Isabel Iza Garmendia. Aretxabaletan, apirilaren 2an. 91 urte.

Pili Miguel Melgosa. Arrasaten, apirilaren 2an. 82 urte.

Pilar Ormazabal Unzueta. Arrasaten, apirilaren 2an. 91 urte.

Jose Angel Urkiza Iñiguez. Arrasaten, apirilaren 3an. 59 urte.

Pilar Agirre Ugalde. Bergaran, apirilaren 3an.

Luis Alberto Bolinaga Alegria. Bergaran, apirilaren 3an. 66 urte.

ESKELA

Jose Maria
Iturbe Arana

2023ko apirilaren 4an hil zen, 58 urte zituela.

Emaztea: Idurre Ochoa; seme-alabak: Enara, Jon; gurasoak: Luis(†) eta Maria, Luis Ochoa(†) eta Dominga Oyangueren; anai-arrebak: Elena, Amaia, Susana, Roman, Javier, Agurtzane; ezkon anai-arrebak, ilobak, osabak, izebak eta gainerako ahaideak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, asteazkena, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari. Aldez aurretik mila esker.

Familiak ez du inor hartuko.
Arrasaten, 2023ko apirilaren 5ean.

ESKELA

Ignacio
Balzategi Uribesalgo

2023ko apirilaren 4an hil zen, 91 urte zituela.

Bere seme-alabak: Jose Mari eta Idoia Urrutia, Arantza eta Jaime Osinaga, Edurne eta Alex Goitia, Ander eta Naiara Telleria; bilobak: Ane eta Unai, Leire eta Oier, Antxon eta Nerea, Ainhoa eta Aitor, Jokin eta Patri, Iñaki eta Paula, Aitor, Alaitz, Haizea; birbilobak: Ur, Ibon, Libe. Anai-arrebak, ilobak, lehengusuak, eta gainerako ahaideak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, asteazkena, izango da, 18:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari. Aldez aurretik mila esker.

Familiak San Felipe beilatokia hartuko zaituzte,
11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 17:30era bitartean.

ESKER ONA

Eusebio
Blazquez Serrano


M. Luisa Errarteren alarguna

2023ko martxoaren 31n hil zen, 79 urte zituela.

Eskerririk asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko apirilaren 5ean.

ESKER ONA

Luis Alberto
Bolinaga Alegria

'Beto'

2023ko apirilaren 3an hil zen, 66 urte zituela.

Euskal Mendietatik
Rias Baixasera,
oroitzen gaituzten bitartean
betirako bizi gera.

Eskerririk asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko apirilaren 5ean.

OROIGARRIA

Eusebio
Blazquez Serrano

2023ko martxoaren 31n hil zen, 79 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Asteazkenetako lagunak.
Arrasaten, 2023ko apirilaren 5ean.

OROIGARRIA

Luis Alberto
Bolinaga Alegria

'Beto'

2023ko apirilaren 3an hil zen, 66 urte zituela.

Ixa atzorarte gurekin zenden
bihar be guban egongo za.Miguel Altuna LHILKO lagunak.
Bergaran, 2023ko apirilaren 5ean.

OROIGARRIA

Pilar
Agirre Ugalde

Patxi Alberdiren alarguna

2023ko apirilaren 3an hil zen.

Zenbat bisita egin ditugun
urte hauetan zuregana
beti zenezukan salda eta haragi
plater ta jarleku bana
nola eskertu barre horrekin
zuk guri emandako dana
bizi oso bat etxe inguruan
familiari emana.Behetik gora begiratuta
balkoian falta da dama
Kale giroa begiratuaz
egiten lorazain lana
itzuli zara hain faltan bota
izan duzun Patxingana
merezki gisan deskantsau zazu
maite zaitugu amama.Bilobak eta birbiloba.
Bergaran, 2023ko apirilaren 5ean.

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtuGari deita zuzenean edo, nahitago
badute, jakinarazi zure asaguru-
kospainiari gurekin nahi duzuela agurtu
maite duzue.Marioven, Ibanen eta Maribiren
partetik, besarkada magikoak
zuzentzeko, bihotz sendatzeke balo
duten horietakoak. Guk baditugu gordeta
zuzentzeko, gure behar duzue.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ZORION AGURRAK



BERGARA Itxaso Agirre Benitez
13an, 14 urte. Zorionak, Itxaso. Musu handi bat zure aitaren eta amaren partetik.



ARRASATE Ilazki Lorenzo Martinez
12an, 7 urte. Zorionak, sorgintxo! Askok maite zaitugu! Patxo handi bat etxeko danen partetik!



OÑATI Izaro Bellido Gonzalez
10ean, 11 urte. Zorionak pitxin! Orain arte bezelako saltsera jarraitu izaten. Muxu handi bat.



BERGARA Isolda Beristain Laskurain
9an, 12 urte. Zorionak Isolde! Ondo ospatu zure eguna. Muxu handi bat.



OÑATI Maitane Dorado Fuente
Apirilaren 8an, 38 urte. Zorionak, maitia! Edarto ospatu zure eguna. Muxu pila bat familia osoaren partetik! Askok maite zaitugu!



ANTZUOLA Elene Kone Mugica
8an, 8 urte. Oso ondo pasau eguna! Muxu potolo bat. Ainara, Aitziber, Aitor eta Irati.



OÑATI Goretti Zumalde Irazabal
Apirilaren 7an, 11 urte. Zorionak, Goretti! Familia guztiaren partetik!



ARRASATE Paule Juldain
Apirilaren 7an, 4 urte. Zorionak, maitia! Askok maite zaitugu, 'tramosilla'!



OÑATI Eñaut Lopez de Okariz
6an, 3 urte. Zorionak Eñaut! Askok gura zau! Patxo handi bat eta ondo ospatu.



OÑATI Auritz Gorosabel Urrutia
6an, 13 urte. Zorionak, Auritz, familia danaren partetik! Askok gura du!



BERGARA Oier Gabilondo Muguruza
5ean, 10 urte. Zorionak, Oier! Egundik bikaina izan. Segi zaren modukoa izaten. Patxo handi bat.



OÑATI Ekain Bartolome Agirregabiria
4an, gure txikiak jada bi urtetxo etxeko txokoak alaitzen! Zorionak!



BERGARA Ainere Gallastegi Lete
Apirilaren 4an, 10 urte. Zorionak, prexioxi! Konturatu orduko 10 urte handi! Segi gure bizitzak alaitzen zure irribarre, alaitasun eta goxotasunarekin. Izan zoriontsu! Familiakuen partetik, mila muxu.



ESKORRIATZA Nare Corral Parra
Apirilaren 2an, 11 urte. Segi horrela, Naretxo, mundiala zara eta infinito maite zaitugu.



OÑATI Mattin Goitia Osinaga
1ean, 8 urte. Zorionak maitia! Merezitako moduan ospatuko dogu danok. Infinito maite zau!

ZORIONTEKO HIRU BIDE
• Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu.
• Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
• Zatoz Goienara batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.
• Asteleheneko 12:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
• Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

BERRI-ZAKUA



65 urte ezkontuta
Manuel Moreno eta Isabel Martin bergararrak 1958ko apirilaren 6an ezkondu ziren. "Zorionak, bikote! Segi zoriontsu izaten eta gu zoriontsu egiten. Besarkada estu eta goxo bana seme-alaben eta biloben partetik. Maite zaituztegu".



Dantzan
Bailarako hainbat dantzari-taldek egun-pasa ederra egin zuten Oñatin. Kalejiran ibili ziren eta emanaldia egin zuten Foruen plazan.

Horma-irudia
Bizente Goikoetxea musikari aramaioarraren omenezkoa margotu dute Gasteizen, Bengoa Gestoriaren kanpoaldean.



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Aupa Aloña!
Juan Carlos Unzue futbol jokalaria ohiak Aloña Mendi taldearen bufanda jantzi zuen Deustuko Unibertsitatean egindako hitzaldian.



Bergararrak
Oñatin bizi diren 70 bergarar inguruk bazkaria egin zuten aurrekoan Pago Uso elkartean. Postrean erreilenok eta tostoiak jan zituzten.

Kukubasokoak
Denboraldiko azkena egin zuten Bergarako Agirretxeberriko lurretan. Zuhaitzak landatu eta txoriendako etxolak ipini zituzten.



Saloura
Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako kideek ez zuten hutsik egin: urtero moduan, Salouko kaleak doinuz girotu eta Port Aventura bisita egin zuten.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUAZTENA 5

OÑATI Arantzazuko Parketxean bisita gidatuaErreserba egiteko: 943-78 28 94.
*Parketxean, 10:00etan.***LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa**12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz. Izena emateko: reservas@gatzmuseoa.com edo 943-71 47 92.
*Gatz Museoa.***OÑATI 'Oñati, txokolatearen herria' bisita gidatua**Izena emateko: txokolateixia@hotmail.com edo 605 76 35 95.
*Txokolateixian, 17:00etan.***BERGARA Eguaztenetako azoka**Herriko baseritarren garaioko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

EGUENA 6

OÑATI Arantzazuko Parketxean bisita gidatuaErreserba egiteko aukera: 943-78 28 94.
*Parketxean, 10:00etan.***ELGETA Intxortara bisita gidatua**Gaur, ele bitan. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa, 10:30ean.***OÑATI Espeleotxiki abentura**Gaur, euskaraz. Izena emateko: arrikruz@onati.eus edo 943-08 20 00 telefonoan.
*Arrikruzten, 10:30ean.***OÑATI Arantzazuko Santutegira bisita**10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gaztelaraz. Erreserba egiteko: 943-79 64 63.
*Arantzazuko Turismo Bulegoan.***ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**Izena emateko: www.arrasate.eus edo 943-25 05 05.
*Herriko Plazan, 11:00etan.***LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa**12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz. Izena emateko: reservas@gatzmuseoa.com edo 943-71 47 92.
*Gatz museoa.***OÑATI 'Oñati, txokolatearen herria' bisita gidatua**Bisitak egingo dira 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan. Izena emateko: txokolateixia@hotmail.com edo 605 76 35 95.
*Txokolateixian.***OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua**Sancti Spiritus unibertsitatea ezagutzeko aukera. Izena emateko: turismo@onati.eus edo 943-78 34 53 telefonoan.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

EGUBAKOITZA 7

ARRASATE Gurutze-bidea08:00etan, Portaloitik Santa Barbaraino; 11:00etan, Santa Teresan; eta ordu berean, Uribarrin.
*Arrasaten.***OÑATI Arantzazuko Parketxean bisita gidatua**Erreserba egiteko: 943-78 28 94.
*Parketxean, 10:00etan.***OÑATI Arantzazuko Santutegira bisita**10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gaztelaraz. Erreserba egiteko: 943-79 64 63.
*Arantzazun.***ELGETA Intxortara bisita gidatua**Gaur, ele bitan. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 11:00etan.***ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**Izena emateko: www.arrasate.eus edo 943-25 05 05.
*Herriko Plazan, 11:00etan.***ARRASATE Egubakoitz Santua**Aitortzak.
*Parrokian, 11:00etan.***LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa**12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz. Izena emateko: reservas@gatzmuseoa.com edo 943-71 47 92.
*Gatz Museoa.***OÑATI 'Oñati, txokolatearen herria' bisita gidatua**Bisitak egingo dira 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan. Izena emateko: txokolateixia@hotmail.com edo 605 76 35 95.
*Txokolateixian.***OÑATI Sancti Spiritus unibertsitatean bisita gidatua**Izena emateko: turismo@onati.eus edo 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.***ARRASATE Egubakoitz Santua: Jesusen nekaldia eta heriotza**18:00etan, parrokian; 19:00etan, San Andresen; eta 19:30ean, Santa Teresan.
Arrasaten.

ZAPATUA 8

OÑATI Arantzazuko Parketxean bisita gidatuaErreserba egiteko: 943-78 28 94.
*Parketxean, 10:00etan.***OÑATI Arantzazuko Santutegira bisita**10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gaztelaraz. Erreserba egiteko: 943-79 64 63.
*Arantzazun.***OÑATI Arantzazura bisita gidatua, umeekin**Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63 telefonoa.
*Arantzazun, 11:00etan.***ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua**Izena emateko: www.arrasate.eus edo 943-25 05 05.
*Herriko Plazan, 11:00etan.***OÑATI 'Oñati, txokolatearen herria' bisita gidatua**

Bisitak egingo dira 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan. Izena



GOIENA

OÑATI Bisita gidatuakAste Santuan eta Pazko Astean erdiguneko eraikin esanguratsuenak eta Txokolateixia ezagutzeko aukera izango dute turistek. Lekuaren arabera, hainbat bisita egingo dituzte.
*Datozen egunetan, Turismo Bulegoan eta Txokolateixian.*emateko: txokolateixia@hotmail.com edo 605 76 35 95.
*Txokolateixia, Oñati 12:00etan***LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa**12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz. Izena emateko: 943-71 47 92 edo reservas@gatzmuseoa.com
*Gatz Museoa.***OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua**Sancti Spiritus unibertsitatea ezagutzeko aukera. Izena emateko: turismo@onati.eus edo 943-78 34 53 telefonoan.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.***OÑATI Espeleotxiki abentura**Gaur, gaztelaraz. Izena emateko: arrikruz@onati.eus edo 943-08 20 00 telefonoan.
*Arrikruzten, 15:30ean.***ARRASATE Zapatu Santua: Pazko gaubeila**19:00etan, San Andresen; 19:30ean, Santa Teresan; eta 20:00etan, parrokian.
Arrasaten.

DOMEKA 9

ARRASATE 'Bakua-Kortaburu-Etxezarreta' irteera10,5 kilometroko ibilaldia. Izena emateko: [Arrasate.eus](http://www.arrasate.eus) edo 943-25 05 05.
*Herriko Plazan, 09:00etan.***OÑATI Arantzazuko Parketxean bisita gidatua**Erreserba egiteko: 943-78 28 94.
*Parketxean, 10:00etan.***ELGETA Intxortara bisita gidatua**Gaur, ele bitan. Izena emateko: infoturismo@debagoiena.eus edo 943-79 64 63.
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:30ean.***OÑATI Arantzazuko Santutegira bisita**10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gaztelaraz. Erreserba egiteko: 943-79 64 63.
*Arantzazun.***LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa**12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz. Izena emateko: reservas@gatzmuseoa.com edo 943-71 47 92.
*Gatz Museoa.***OÑATI 'Oñati, txokolatearen herria' bisita gidatua**Bisitak egingo dira 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan. Izena emateko: txokolateixia@hotmail.com edo 605 76 35 95.
*Txokolateixian.***OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua**Sancti Spiritus unibertsitatea ezagutzeko. Izena: turismo@onati.eus edo 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.



LABORATORIUM MUSEOA

BERGARA Bisita gidatuak

Bergarako lorategi historikoak, erdigune monumentala eta Laboratorium museoa ezagutzeko aukera dago, bisita gidatu bidez. Izena emateko: 943-76 90 03.

Datozen egunetan, Seminarixoan.

ASTELEHENA 10**OÑATI Espeleo Arrikutz, 18 urtetik gorakoendako**

Izena emateko: arrikutz@onati.eus edo 943-08 20 00.

Arrikutzen, 10:30ean.

OÑATI Arantzazuko Santutegira bisita

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63. *Arantzazun.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: reservas@gatzmuseoa.com edo 943-71 47 92. *Gatz Museoa.*

OÑATI 'Oñati, txokolatearen herria' bisita gidatua

Bisitak egingo dira 10:00etan, 12:00etan eta 17:00etan. Izena emateko: txokolateixia@hotmail.com edo 605 76 35 95. *Txokolateixian.*

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita

Izena emateko: turismo@onati.eus edo 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

OÑATI Espeleotxiki abentura

Gaur, gazteleraz. Izena emateko: arrikutz@onati.eus edo 943-08 20 00. *Arrikutzen, 15:30ean.*

MARTITZENA 11**OÑATI Arantzazuko Santutegira bisita**

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Erreserba egiteko: 943-79 64 63. *Arantzazun.*

OÑATI 'Oñatiko altxorrek' bisita gidatua

Sancti Spiritus unibertsitatea ezagutzeko aukera. Izena emateko: turismo@onati.eus edo 943-78 34 53 telefonoan. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

EGUAZTENA 12**OÑATI Arantzazuko Parketxera bisita**

Erreserba egiteko: 943-78 28 94. *Parketxean, 10:00etan.*

OÑATI Arantzazuko Santutegira bisita

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63. *Arantzazun.*

BERGARA Kafekonpon

Etxeko tresna txikiak konpontzen ikasteko. *San Joxepe elkartearen, 16:00etan.*

BERGARA 'Bañolet' pelikula

Maia Iribarneren eta Paxkal Irigoyenen lana zineklubean.

Ostean, musikaldia eta solasaldia zuzendariekin. Sarrera, hiru euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

EGUENA 13**OÑATI Arantzazuko Parketxera bisita**

Erreserba egiteko: 943-78 28 94. *Parketxean, 10:00etan.*

OÑATI Arantzazuko Santutegira bisita

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63. *Arantzazun.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan, euskaraz eta 13:00etan, gazteleraz. Izena emateko: reservas@gatzmuseoa.com edo 943-71 47 92. *Gatz Museoa.*

OÑATI 'El caftán azul' filma

Maryam Touzani zuzendariaren lana zineklubean. Sarrera, bost euro. *Zinema aretoan, 20:00etan.*

EGUBAKOITZA 14**OÑATI Arantzazuko Parketxera bisita**

Erreserba egiteko: 943-78 28 94. *Parketxean, 10:00etan.*

OÑATI Arantzazuko Santutegira bisita

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Izena: 943-79 64 63. *Arantzazun.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan, euskaraz eta 13:00etan, gazteleraz. Izena: 943-71 47 92 edo reservas@gatzmuseoa.com. *Gatz Museoa.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAI ANTZOKIA**

Mari(dos)
Apirilaren 15etik
17ra: 19:30.

Violeta, el hada traviesa
Apirilak 16 eta 17:
17:00.

BERGARA**SEMINARIXOA**

Mari(dos)
Apirilak 7, 9 eta
10: 19:30.

King mi pequeño rey
Apirilak 9: 17:00.

El caftán azul
Apirilak 16 eta 17:
19:30

OÑATI**KULTURA ETXEA**

El hotel de los lios
Apirilak 8: 22:00.
Apirilak 9: 19:30,
22:00.
Apirilak: 19:30.

Mari(dos)
Apirilak 14 eta 15:
22:00.
Apirilak 16: 19:20,
22:00.
Apirilak 17: 19:30.

ARETXABALETA**ARKUPE**

Mari(dos)
Apirilak 14: 22:00.
Apirilak 15 eta 16:
19:30.

Oink oink
Apirilak 15 eta 16:
17:00.

GASTEIZ**FLORIDA**

Air
Eguaztenetik
astelehenera:
17:00, 19:15,
21:30.
Martitzenetik
egunera: 17:30,
20:00.

Blue jean
Eguaztenetik
egunera (apirilak
13): 19:30.

Honor entre ladrones
Eguaztena: 16:45,
19:30.
Eguenetik
astelehenera:
11:30, 16:45,
19:30.
Martitzenetik
egunera: 17:30.

El castigo
Eguaztenetik
astelehenera:
22:00.
Martitzenetik
egunera: 20:15.

El hotel de los lios

Eguaztena:
17:30, 19:30.
Eguenetik
astelehenera:
11:30, 17:00,
19:00.
Martitzenetik
egunera: 17:30.

El imperio de la luz

Eguaztena
(apirilak 5):
17:00, 19:30,
22:00.
Eguenetik
astelehenera:
17:00, 22:00.
Martitzena eta
egua: 17:30.
Eguena: 17:00,
19:30.

El inocente

Eguaztenetik
astelehenera:
19:30, 21:30.
Martitzena:
19:00.
Eguaztena eta
eguna (apirilak
12 eta 13):
19:30.

Irti (euskaraz)

Eguaztena
(apirilak 5):
19:30, 21:45.
Eguenetik
astelehenera:
11:30, 19:30,
21:45.

Martitzenetik
egunera
(apirilak 13):
19:30.

Loli tormenta

Eguaztenetik
astelehenera,
egua: 17:30.
Martitzena:
17:00.

Momias

Eguaztena
(apirilak 5),
martitzena,
egua: 17:30.
Martitzena:
12:00, 17:30.

Mari(dos)

Eguaztena
(apirilak 5):
21:30.
Eguenetik
astelehenera:
11:30, 19:30,
21:00.
Martitzenetik
egunera: 19:45.

Una bonita mañana

Eguaztenetik
egunera
(apirilak 13):
17:15.

ZAPATUA 15**OÑATI Arantzazuko Parketxera bisita**

Erreserba egiteko bidea: 943-78 28 94. *Parketxean, 10:00etan.*

OÑATI Arantzazuko Santutegira bisita

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Erreserba egiteko: 943-79 64 63. *Arantzazun.*

ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua

Izena emateko: Arrasate.eus edo 943-25 05 05. *Herriko Plazan, 11:00etan.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: reservas@gatzmuseoa.com edo 943-71 47 92. *Gatz Museoa.*

DOMEKA 16**OÑATI Arantzazuko Parketxera bisita**

Erreserba egiteko: 943-78 28 94. *Parketxean, 10:00etan.*

OÑATI Arantzazuko Santutegira bisita

10:30ean eta 15:30ean euskaraz eta 12:30ean eta 17:00etan gazteleraz. Erreserba egiteko: 943-79 64 63. *Arantzazun.*

OÑATI 'Altxorren bila' familiendako

Gomiztegiko ibilbide irisgarrian, familiendako ekintza. Izena: arantzazu@gipuzkoanatura.eus edo 943-78 28 94. *Parketxean, 11:00etan.*

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatua Gatz Museoa

12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: reservas@gatzmuseoa.com edo 943-71 47 92. *Gatz Museoa.*



90 segundora

Egun gutxi dela, Nazio Batuen buru Antonio Guterresek esan du Lurra "denbora-bonba" baten menpe dagoela. Mundua denborarik gabe geratzen ari da klima aldaketaren ondorio katastrofikoak geratzeko.

Aspaldi irakurri nuen badagoela beste mehatxu planetario bat denboraren metaforaz ere salatzen dena: desastre nuklearra. Espezie bezala desagertzeko arriskua ekarri zuen bonba atomikoak. Eta aparteko zientzialari talde batek arriskua urtero neurtzen du 1947tik aurrera. Ordulari sinboliko batekin egiten dute hori (Doomsday Clock): orratzak gauerditik zenbat eta gertuago egon, orduan eta hurbilago dago hondamendi nuklearra.

Pandemia garaian elkarlaguntzak gora egin eta esaten genuen munduak hobera egingo zuela. Hala eta guztiz ere, Ukrainako gerraren ondorioz, egoera globalak okerrera egin du: estatu asko eta asko aurrekontu militarrek areagotzen ari dira. Ez da harritzekoa, beraz, inoizko gertuen gaudela apokalipsitik; aipatutako ordulariaren arabera, 90 segundo falta dira.

Aste Santu garaian gaude, eta, errituak berpizkundeaz bukatzen badira ere, munduari dagokionez ezin izan oso optimista...

BUKATZEKO



Herritar bat jaurtiketa egiten 2019ko doke txapelketan. GOIENA

Txapa eta punteria: doke txapelketa bueltan da

Arrasateko elkarte gastronomikoen SUDC elkarteak antolatzen duen doke txapelketa jokatuko dute egubakoitzean; hamaiketakoa ere egongo da bertaratzen direnentzat, eta dokean erabakiko dute nork ordainduko duen: elkarte irabazleak edo Udalak

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE Pista, aiztoa, txapa, jaurtitzailak eta punteria. Bost elementu horiek behar dira dokean jokatzeko. Helburua txaparekin aiztoa jotzea da, eta, hala ez bada, ahalik eta gehien gerturatzea. Irabazlea, berriz, zehaztutako puntu kopurura lehendabizi iristen dena. Ondo dakite SUDCeko kideek –Arrasateko 25

elkarte gastronomiko batzen dituen elkarteak, urtero antolatzen baitu elkarten arteko doke txapelketa. 2019an egin zuten azkenengoz, eta, ohitura denez, Egubakoitz Santurako egin dute hitzordua: 10:00etan, Monteazpin.

Urteetako ohitura

SUDC elkarteak presidente Juan Luis Arkauzek azaldu du doke



Jaurtialdi baten ostekoa. GOIENA

jokoa "beti" izan dela Arrasatekoa. Kondairak dioenez, berriz, Oñatiko Pedro Lopez de Gevara kondeak Zaldibarko lursailen bat galdu zuen joko horretan. Hortik abiatuta, aipatu du oñatiarren eta arrasatearren arteko doke txapelketak egiten zirela Zaldibarren: "Gero, pilotalekua egin zuten, eta, horregatik, Monte-rongo zelaian egiten dugu".

"Aspaldi" hasi zirela dio. Elkarte bakoitzetik bikote bat aurkeztu daiteke eta norgehiagokan bi bikote elkarren aurka aritzen dira. Egubakoitzean bertan amaituko da izena emateko epea, eta, hortaz, parte hartuko duen elkarte kopurua zehaztu gabe dago. Hala ere, adierazi du parte-hartzaile kopurua jaitsi egin dela: "Esango nuke lehen elkarte guztiek ematen zutela izena. Orain hamabi bat elkarte bagara, gustura. Ez dakit arrazoia zein izan daitekeen, baina uste dut elkarte bakoitzetik lortu daitekeela bikote bat dokean jokatzeko". Haurren txapelketa ere antolatzen zuten, baina partaide kopuru urriagatik egiteari utzi zioten duela zenbait urte.

Udalaren kontra dokean

Hamaiketakoa ere eskaintzen dute partaideentzat eta ikusleentzat. Edaria eman eta 30 kilo sardina erretzen dituzte. Behin elkarten arteko txapelketa amaituta, bikote irabazlea Udaleko bi zinegotziren aurka lehiatzen da eta galtzaileak hamaiketakoa ordaindu behar izaten du. "Elkarteko kideek irabazi ohi dute. Normalena da zinegotziek sekula dokean jokatu ez izana. Hala ere, duela urte batzuk zinegotziek irabazi zuten", dio Arkauzek.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

MARKEL MENDIZABAL

ETXEPE TALDEKO ABESLARIA

'GALDEGAZTE'

APIRILAREN 13AN, EGUENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN
IMANOL BELOKI AURKEZLEAK ETA
ALMENEKO IKASLEEK EGINDAKO
ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.

